Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoa 2023-2033

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA... 2. or.

2 ESPARRU TEORIKOA... 4. or.

3 ENTZUTE AKTIBOKO METODOLOGIA... 18. or.

4 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA... 25. or.

5 PLANAREN MISIOA ETA IKUSPEGIA... 93. or.

6 ILDO ESTRATEGIKOAK... 98. or.

7 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA... 119. or.

8 ERANSKINAK... 125. or.

1

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Kultura gakoa izan da Bilboren transformazioan. Eta gakoa da Bilboren etorkizunerako. Aukera eman zigun, orain dela hiru hamarkada, gure gaztaroan ezagutu genuen Bilbo postindustrial eta zahar hura herrarik gabe ehorzteko eta hiri-garapeneko eredu berri baten aldeko apustua egiteko, gizakiaren neurrirako eredu baten alde, zeina jasangarria baitzen ingurumenarentzat eta gure ekonomiarentzat eta gizartearentzat. Hiri-garapen horrek, hain zuzen, kultura du nortasun-ezaugarri nagusietako bat, Guggenheim Bilbao Museoaren eragina duelarik erakusgarririk ospetsuena.

Une honetan, kulturak, Bilbon, eremu zabal-zabal bat hartzen du, hasi jarduera profesionaletatik eta sormenezko jardueretaraino, hala nola arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak, diseinua, musika, ikusizko arteak (margolaritza, eskultura, argazkilaritza), arkitektura, artisautza, moda, goi-mailako gastronomia, ondarearen artapena eta zabalkundea, aplikazio eta eduki digitalen garapena, publizitatea eta argitalpen inprimatuak; eta, horiei guztiei esker, kultura sektore arras askotarikoa eta ardura estrategiko handikoa bihurtu da, hala uriko ekonomia-jardueran eta enpleguan duen pisuagatik, nola Bilbon bizi garenon eta lan egiten dugunon giza garapenerako eta ongizaterako ekarpen ukaezinagatik.

Baina, bat-batean, orain dela ia hiru urte, birus kasik ezezagun batek gerarazi egin zuen mundua, eta behartu gintuen gure bizitzak itxialdian jartzera, egoera behin ere ezagutu gabe eta ia distopiko batean, eta, egoera hori, hain zuzen, kulturari esker gertatu zitzaigun eramangarriago.

Kultura hori, izan ere, giza arimaren barrenenetik sortzen da, eta besarkatu eta eraldatu egiten gaitu, beti: kolore bakoitzarekin, hitz bakoitzarekin, musika-nota bakoitzarekin... eta sentiarazten gaitu norberaren nia baino askoz handiagoa den zerbaiten parte.

Bada, zalantzarik gabe, pandemiaren irakaspenik handienetako bat izan da ezen, guztiok batera arraun egiten dugunean, urrats berean, norabide berean, gai garela urrun iristeko, oso urrun.

Lankidetza-espiritu hori da Kulturaren Plan Estrategiko hau lantzeko bidean gidatu gaituena, Bilboko Udalak atzoko eta betiko balio handi horien alde hartutako konpromisoak bultzaturik; izan ere, balio horiek duindu egiten gaituzte gizarte moduan, eta dagoeneko zedarritzen ari dira Uriaren etorkizuneko garapena.

Bide-orri bat da, beraz, Udalak kulturaren arloan datorren hamarraldian egingo duen bidea erakusten duena. Urte eta erdi baino gehiagoan, 570 lagun ibili dira, direla sektoreko agenteak, herritarrak, kultur elkarteen ordezkariak edo udal-barrutietakoak, egungo abiaburuko egoeraren diagnostikoa eginez, etorkizuneko desafioak zeintzuk diren bereiziz eta proposamenak eginez kultura Bilbon aurrerantzean ere gizarte-transformazioa eragiten duen eta ekonomia-jarduera sorrarazten duen motor bat izan dadin.

Bilboko alkate moduan, eskerrak agertu nahi dizkiet Kulturaren Plan Estrategiko hau lantzen parte hartu duten pertsona guztiei, egin dituzten 5.000 ekarpen baino gehiago horiengatik eta entzute aktiboko prozesu luze honetan erakutsitako engaiamenduarengatik, zeina espero baitut inspirazio eta abiaburu moduan baliatuko zaigula beste ekimen batzuetarako. Betiere, Bilbo uri geroz eta distiratsuago bat bihurtzearren nazioarteko erreferentziako metropoli handien *mapamundian*.

Juan Mari Aburto. Bilboko alkatea

2

ESPARRU TEORIKOA

ESPARRU TEORIKOA

Sarrera

Tamaina ertaineko hirietan, Bilboren kasuan bezala, Kulturaren Plan Estrategikoa diseinatu eta abian jartzeko ahalik eta adostasun handiena lortu behar da, kultura-eragileen zein herritarren parte-hartzearen bidez. Lehenengo fasean, Administrazioa entzule bihurtzen da, entzute aktiboko prozesuetan zentratuta; bigarren fasean —betiere bere potentzialtasunen eta mugen esparruan—, berriz, Planaren diseinuari eta hura osatzen duten estrategia eta ekintzei buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko eragile gisa agertzen da.

Ikuspegi hori ezinbestekoa da kulturaren *balio intrintsekoa*, ikuspuntu intelektual, emozional eta espiritualetik haren esperientzia subjektiboari lotutako balioen multzoa, nabarmentzeko (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018; Holden, 2006). Balio horrek kulturaren *balio instrumentala eta instituzionala*, edo, bestela esanda, ikuspegi esklusiboki ekonomikoa gainditzen du. Giza esperientzia sinplifikatzen duen eta indibidualera eta subjektibotasunera mugatzen den begirada baten aurrean, ezagutzaren funts komun gisa ulertu behar da, esperientzia zehatzen multzoaren emaitza gisa, esperientzia horien bidez bere eraldatzeko gaitasuna landu baitaiteke (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018).

Horretarako, hiri *kulturozentrikoa* sustatu behar da. Hau da: kulturak lurralde-garapenaren erdigunean egon behar du, eta beste diziplina batzuekin bitartekari izan behar du. Izan ere, *Guggenheim efektua* jada finkatuta, Bilboko hiria bere Plana diseinatzeko moduan dago, etengabeko entzutea aktibatuz kultura-eskari potentziala ondo ezagutzeko eta publikoen aurreragoko garapenari begira, hiriak kultura-programazioan rol pribatuaren bideratzaile gisa duen posizioa eztabaidatuz eta, zeharka, kultura-kudeaketa baldintzatzen duten ildoak aztertuz. Horrela, kudeaketa publiko, pribatu eta asoziatiboaren arteko lankidetzan sakondu nahi da, eta kulturaren rola sustatu, epe luzerako gizarte-elementu eraldatzaile gisa, eta, era berean, kapital kulturala sortzen lagunduz. Hori guztia jada etengabe ematen diren aldaketa teknologiko eta ekonomikoen eta beste parametro exogeno global batzuen mende dago; eta hori dela eta, beharrezkoa da Udaleko kultur arloko sailen esku soilik ez dagoen esku-hartze zeharkakoagoa egitea.

Gaur egun, funtsezkoa da hiria zerbitzuen katalizatzaile gisa ulertzea, bere inplikazio guztiekin. Horren guztiaren ondorioz, kultura-zerbitzuak sendotu egin behar dira bertako auzoetan eta erdigunean, alderdi ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren uztarketa orekatua alde batera utzi gabe.



Holdenen Balio Kulturalaren triangelua.
Iturria: Bertan landua.

Zergatik eta zertarako 2023-2033 Plan Estrategikoa?

Aurrekoari erantzuteko, lehenik eta behin, Planaren aurreikusitako indarraldia aipatu behar da, 10 urteko tartea hartzen baitu. Hamar urterako plan bat diseinatzearen helburua da estrategiaren garapenak eta ekintzek eguneroko larrialdiak saihestea eta nahi dugun etorkizuneko agertokira gu hurbiltzeko ahalbidetzea, planteatzen diren heinean modu egokian kudeatu beharreko unean uneko koiunturetatik haratago. Kultura-politikan punta-puntakoak diren beste hiri batzuek antzeko denbora-muga baten aldeko apustua egin dute eta egiten jarraitzen dute. Bartzelonak *1999-2010 Plan Estrategiko* aitzindariarekin egin zuen, Montrealek *2007-2017 Montreal Metropoli Kulturala Ekintza Planarekin* berretsi zuen, eta gaur egun Buenos Airesek *Buenos Aires 2035 Kultura Plan Estrategiko Parte-hartzailea* izenekoarekin egiten du adibidez, erreferentzia gisa hartzeko hiru hiri aipatzearren.

Bigarrenik, eta udal-plan estrategiko baten zertarakoa egungo globalizazioaren testuinguruan kokatzeko, hemen deskribatutako inputek oinarri duten **Europako esparruari** erreparatu behar zaio. Ildo horretan, Europako Batzordearen *Kulturarako Europako Agenda Berria* (COM/2018/267) hartu behar da kontuan; horren helburua da kulturak Batasun integratzaileagoa eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzeko duen potentziala erabat aprobetxatzea, berrikuntza, sormena eta hazkunde eta enplegu jasangarriak sustatuz, eta hiru helburu estrategiko definituz:

1. Dimentsio soziala: kulturak eta kultura-aniztasunak ongizaterako eta gizarte-kohesiorako duten potentziala erabiltzea.

2. Dimentsio ekonomikoa: kulturan oinarritutako sormena babestea, hezkuntzaren eta berrikuntzaren esparruetan eta enplegurako eta hazkunderako.

3. Kanpo-dimentsioa: nazioarteko kultura-harremanak indartzea.

Europako Batzordeak egindako *Work Plan for Culture 2019-2022* ere aipatu behar da. Bertan, EBko estatu kideek "Europar Batasuneko kultura- eta sormen-sektorerako dituzten lehentasunak eta ekintzak zehazten dituzte", honako puntu hauek azpimarratuz:

1. Kulturaren eta jasangarritasunaren artean dagoen harremana.

2. Klima-aldaketari eta ingurumenari etengabeko arreta ematea.

3. Kultura- eta sormen-profesionalen estatusa eta lan- eta gizarte-baldintzak, baita haien erresilientzia ere.

4. Genero-berdintasuna.

5. Eraldaketa digitalaren erronkak eta aukerak, eta horrek kultura- eta arte-aniztasunean dituen ondorioak.

6. Gizarte-kohesioa eta ongizatea indartzea.

7. EBko nazioarteko kultura-harremanen ikuspegi estrategikoari arreta handiagoa ematea.

Aurrekoa kontuan hartuz, askotarikoak eta ugariak dira kultura ardatz egituratzaile gisa erabili duten tamaina ertaineko hirien garapen-estrategiak. Izan ere, kultura-politikek prozesu horren erdigunean egon behar dute (Barbieri, 2014). Kultura esparru askotan eragiten duen saila da (hezkuntza, gizarte-kohesioa, osasuna, garapen ekonomikoa, nazioarteko erakargarritasuna…), eta, beraz, udal-politiketan zentraltasun-rola bete behar du. Aurrerago nabarmenduko dugun bezala, Bilboko hiriak erronka berriei egin beharko die aurre hurrengo hamarkadan, azken urteetako historian ezagutu ez diren bi krisialdien —ekonomikoa eta sanitarioa— eraginez; era berean, hainbat disrupzio teknologikori ere egin beharko die aurre, ekosistema sozial osoan zeharka eragiten dutenak eta gure egunerokotasuna baldintzatzen dutenak. Bestalde, jasangarritasunak eta beharrezkoa den nazioartekotzeak, globalizazio orokorreko panorama batean, XXI. mendeko kultura-kudeaketari eragiten diote (Work Plan for Culture 2019-2022). Era berean, gizartean oraindik dagoen genero-arrakala nabarmendu behar da, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzen dituzten kultura-politikak bultzatze aldera.

Plan Estrategiko honek indar handiagoa hartzen du COVID-19aren krisiaren ondorioz. Pandemiak agerian utzi du gizakiok izaki sozialak garela eta elkarren beharra dugula soluzioak aurkitzeko. Desafio globalek gure lankidetza-gaitasunari eta, ondorioz, gure biziraupen-gaitasunari aurre egiteko aukera ematen digute. Kultura, bereziki erritualen, ospakizunen eta irudikapenen bidez, emozio unibertsalak (beldurra, haserrea, zoriona, harrotasuna edo desioa) sortzen dituen eragile indartsua da; eta horiek, era berean, jarduteko motibazioa bultzatzen dute eta gure pentsamenduak eta erabakiak gidatzen dituzte. Euren jarduera kulturaren esparruan garatzen duten pertsonek zeregin garrantzitsua izan dezakete jarduteko borondate kolektiboa eta munduko erronkei heltzeko beharrezkoa den elkartasuna sortzeko. Kulturaren mundua helburu horretara jada bideratuta dago nazioartean, sarean eta lankidetzan funtzionatzeko duen moduarekin (KEA Affairs, 2022).

Pandemiaren eta krisi ekologikoaren ondorioz sortutako zaurgarritasun berrien agertoki honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da kulturaren zein tokiko gobernuen zeregina erreibindikatzea. Hori da CGLUk (Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak) *Gizateriaren etorkizunerako Itunean* (Daejeon, 2022) egiten duena. Itun horretan, oinarrizko zerbitzu publikoetan eskubide kulturalen multzo berrituak sartzeko deia egiten da, baita deszentralizazioa eta subsidiariotasuna bultzatzeko ere, demokrazia bultzatzeko bide gisa baliabideak erabilita.

Kultura-proiektuek hainbat modutan eragiten dute gizartean, bai ikuspegi ekonomikotik (aberastasuna eta enplegua sortzea, erakundearen jasangarritasuna, eta abar), bai ikuspegi sozialetik, kulturaren balio intrintsekoarekin lerrokatutako ukiezinak gauzatuz. Ildo horretan, lortutako esperientzien edo ezagutza berrien bidez sortutako eragina nabarmendu daiteke; horren ondorioz,

herritarrak ingurumenarekiko kritikoago bihurtzen dira, baina batzuetan parte-hartzaileak berariaz ez dira lortutako balioaz jabetzen. Kultura-*artefaktuak* bere identitatea eta munduan duen posizioa osatzen duten emozioak gainditzeko eta sortzeko duen gaitasuna irudikari bizigarrietan, atsegingarrietan, eraikitzaileetan, asaldatzaileetan, espiritualetan, desafiatzaileetan, aspergarrietan eta abarretan biltzen da. Kultura-kudeaketak osatzen duen ekosistemaren barruan, non mota guztietako sentsibilitateak eta ikuspuntuak aurkitzen diren, beharrezkoa da kultura-proiektu batek sortzen duen balioa gauzatzea ahalbidetuko duten irizpideak adostea eta eskemak planteatzea. Alderdi horretan ohikoa da eszeptizismoak eta sentiberatasunak aurkitzea, kultura-eraginaren kontakizuna desitxuratu duen inertzia ekonomizistan oinarrituta. Hipotesi prosaikoa bezain erreala dugu abiapuntu: kulturak pertsona hobeak eta herri hobeak egiten gaitu, eta horretan inbertitzeak berekin dakar herritarren ongizatea bere arlo guztietan handitzea.

Begirada bat beste esperientzia eta joera batzuetara

Hiri-mailan diseinatu eta inplementatu diren Plan Estrategikoen adibideak anitzak eta askotarikoak dira. EAEn, kulturaren esparruari dagokionez, Vitoria-Gasteizek bere 2018-2021 plana aurkeztu zuen. Bertan, plana arrakastaz inplementatzeko herritarren eta kultura-eragileen parte-hartzeak duen funtsezko garrantzia nabarmentzen zen. Estatuan, Zaragozak bere ahalegin estrategikoaren zati handi bat erdigunetik urrunen bizi den publikoarengana iristera bideratu du, kultura auzoen sorkuntza bateratuaren katalizatzaile gisa erabiliz eta periferiako industria-gune amortizatuak (Harinera, Azucarera) kultura-ekintzarako gune bihurtuz. Malaga beste adibide bat izan ohi da; kasu honetan, bere lurralde-garapena bultzatzen du bere museo-parkea zabalduz.

Europako egungo joerei eta joera potentzialei dagokienez, eta heterogeneotasuna ere ezaugarri duten arren, Europar Batasunaren gidalerro berriek —COVID-19aren krisiaren ondoren abian jarritako Next Generation Funtsen eraginez— “kultura-edukiak sustatzeko eta publikoaren jokabide-aldaketei erantzuteko modu berriak esperimentatzeko” beharra dute oinarri (European Commission, 2021). Estatu kideek pandemiaren osteko behar sozial berrietara egokitzen lagundu behar diote sektoreari, ingurune digitalera eta fisikora zuzendutako ekintzak konbinatuz. Horrela, publiko digitalaren parte-hartzea eta ulermena errazteko neurriak sustatu behar dira. 2021eko bigarren seihilekoan, publiko digitalaren ulermenean adituak diren pertsonez osatutako talde bat jarri zuen martxan Batzordeak, pandemian zehar sortutako jardunbide eta berrikuntzei esker ikasitako ikasgaietan arreta jartzeko. Jardunbide eta berrikuntza horiek egungo publikoa mantentzera eta Internet bidez publiko berria erakartzera bideratuta zeuden. Estatu kideak animatzen dituzte talde horri ezagutza espezializatuak ematera eta talde horren lanetik sortzen diren jardunbide egokiak aplikatzera.

Azkenik, Europako Bauhaus Berria aipatu behar da, Europako Itun Berdea bizi-espazioekin eta esperientziekin lotzen duen ekimen sortzaile eta diziplinartekoa. Europako Bauhaus Berriaren ekimenak guztioi dei egiten digu “gure begi, buru eta arimentzat ederra izango den etorkizun jasangarri eta inklusiboa elkarrekin irudikatu eta eraikitzera”. Tokiko erakundeak, hala nola Bilbao Metropoli-30, proiektu honi atxikita daude.

Kulturak gizartean duen zeregina: bere ekipamenduak eta auzoak

Egungo edozein estrategiaren gakoa da 2030 Agendak planteatzen dituen desafioak modu eraginkorrean integratzea, eta kasu honetan, zehazki, kulturari dagozkionak. Aldez aurretik, komeni da arestian aipatutako kultura-demokratizazioaren kontzeptuari erreparatzea, UNESCOk proposatzen duen definizioan oinarrituta. Definizio horren arabera, kultura demokratizatzeko programa batek, lehenik eta behin, arte ederren aisialdirako eta gozamenerako guneak deszentralizatzera behartzen du.

Bilboren kasuan, erdigunearen eta periferiaren arteko tentsioa argia da. Auzoak dinamismo kulturalaren eragileak dira, baina Hiriaren orografiak berak eta Bilbon —hiri gehienetan bezala— ekipamendu kultural nagusiak erdigunean egoteak kulturara periferiatik iristeko zailtasun handiagoak eragiten dituzte. Kultura-politika demokratizatzaile batek aukera emango du bikaintasun artistikoaz gozatzeko komunitate guztietan eta herritar guztien artean (UNESCO, 1982: 21. art.). UNESCOren arabera, kulturak funtsezko eginkizuna du 11. GJHa lortzeko. Horren helburua da “hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea". Osasunaren eta ongizatearen (3. GJH) eta kalitatezko hezkuntzaren (4. GJH) esparruetan giza garapenaren alde egindako ekintzak eraginkorragoak dira kasuan kasuko komunitate edo lekuen kultura-testuingurua eta berezitasunak kontuan hartzen dituztenean. Kultura espezifikoki aipatzen da 4. GJHren zazpigarren helburuan. Bertan, kultura-aniztasuna balioesten duen eta bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzen duen hezkuntzaren alde egiten da, baita kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpenaren alde ere. Horrela, kulturako inbertsioaren itzulera sozialak esparru fiskaletik haragoko eremuak sortzen ditu. Esparru horiek, premiaz, nazioz gaindiko eremuetatik eskatzen dira, eta Plan honek irekiko dituen ildo askori eusten diete.

EBren Kohesio Politika da Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF), Europako Gizarte Funtsaren (EGF) eta Kohesio Funtsaren finantzaketa jasotzen duten Europa osoko ehunka mila proiektuen atzean dagoena. Ekonomia- eta gizarte-kohesioa —1986ko Europako Agiri Bakunean definitzen den bezala— "eskualdeen arteko desberdintasunak eta egoera ahulenean dauden eskualdeen atzerapena murriztean" datza. EBren azken tratatuak, Lisboakoak, kohesioari beste alderdi bat gehitzen dio, "ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari" erreferentzia eginez. Asmoa da kohesio-politikak "lurralde-garapen" orekatuagoa eta jasangarriagoa ere sustatzea, "eskualde-garapenarena" baino kontzeptu zabalagoa.

Bilboren gizarte-kohesioak —zuzenean lotuta dago auzoetatik beren ekipamenduei ematen zaien eskuratze- eta erabilera-gaitasunarekin— jardunbideak, metodologiak eta helburuak garatu behar ditu, sektore publikoaren eta komunitarioaren arteko jarraipen- eta eztabaida-egiturarekin, laguntzeko politika publikoetan oinarrituta. Ekipamenduak kultura-hedapenaren bizkarrezurra dira, herritarrak kulturara iristeko bidea, jendearen aniztasuna kontuan hartuta, baterako sorkuntza sustatuz, espazioak eta ordutegiak moldatuz, eta auzo bakoitzeko errealitateetara egokituz. Ekipamenduak auzoak eta, beraz, hiria osatzen eta kohesionatzen dituzten elementuak dira, erdigunearen eta periferiaren arteko eztabaida orekatuz. Azpimarratu behar da egokitzapen- edo berregokitze-prozesu horiek aipatutako ikuspegi *kulturozentrikotik* egin behar direla beti, non entzute aktiboa eta analisia funtsezkoak diren publiko berrien formatu eta kezka berriak ezagutzeko eta kultura-berrikuntzako prozesuak sartzeko. Espazio publikoa, era berean, aliatu garrantzitsua da erdigunearen eta periferiaren arteko tartea murrizteko, eta kulturalki aktibatzen ditu kaleak eta plazak, herritarrek eskuragarritasun handiagoa izan dezaten. Parte-hartzea da, beraz, erabateko

kultura-demokratizazioa lortzeko gakoa, eta behin eta berriz errepikatzen den entzute-prozesu etengabe eta sistematizatuaren bidez egin behar da.

Hiriak globalizazio-eremu batean

Globalizazio ekonomiko eta digitalaren testuinguruan, industria-birmoldaketa prozesuak jasan dituzten eta hiri- eta ekonomia-garapeneko estrategia nagusi gisa zerbitzuetara bideratuta dauden tamaina ertaineko hiriak elkarren artean lehiatzen dira turismoa eta inbertsioak erakartzeko (Kotler et al., 1993). Leku bat marka esklusibo baten bidez bereizi behar da, jendeak ezagutu dezan nahi bada; era berean, bisitariaren gogamenak toki horrek dituen ezaugarriak honekin lehiatzen duten tokiena baino hobeak direla antzeman behar ditu; eta, azkenik, kontsumitu egin behar ditu (Kavaratzis eta Asworth, 2005). Hiri baten irudia markaren ikuspegitik eztabaidatzen denean, lehenik eta behin nabarmendu behar da, gaur egun, horietako asko artefaktu ikonikoen laguntzaren bidez sustatzen saiatzen direla (Riza et al., 2012). Gainera, leku-markak hainbat faktore hartzen ditu barnean, hala nola azpiegiturak eta instalazioak, ondarea, kultura-erakarpenak, zerbitzuak, komunikabideak eta harremanak, besteak beste (Hankinson, 2004; Brandt et al., 2017). Beraz, esan daiteke hiriak sustatzeko hiru ikuspegi nagusi daudela: megaekitaldi kulturalak, ondarearen zaharberritzea eta sustapena, eta eraikin enblematikoen eraikuntza (Kavaratzis, 2005; Hankinson, 2006).

Bilbok bat egiten du dinamika horiekin, eta ikuspegi globalizatuko estrategia arrakastatsuak ezarri ditu. Estrategia horiek inoiz ikusi gabeko bisitari kopurua hurbiltzea sustatu dute, baita lurralde honi buruzko pertzepzio positiboa ere (gogora dezagun duela bi hamarkada arte ez zegoela halako ikuspegirik). Baina Sarreran adierazi den bezala, Hiriak dagoeneko gainditu ditu estrategia horiek, eta arlo ekonomikoak arlo sozialarekin borrokatzen ez duen ikuspegi baterantz zuzentzen da, azken item hori lehenetsiz.

Aipagarriak dira atal honetan Bilboko hiriko Gobernu-batzordeak onartutako Turismo- eta Nazioartekotze-estrategiak. Lehenengo kasuan, *Bilbao Bizkaia Turismoa 2030*ek NBEk definitutako 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuak ditu erreferentzia nagusitzat. Helburu horiek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasangarritasuna lortzeko helburu globalak dira, hiru esparrutan oinarrituta:

- **Garapena.** Bisitaria iritsi aurretik helmuga diseinatu, egokitu eta prestatzea, erreferentziazko ikono turistikoak, kalitatezko zerbitzu turistikoak eta bisita erakargarriagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa egingo duten azpiegiturak erabiliz.

- **Marketin**. Helmuga modu pertsonalizatuan eta bisitarien interes eta beharretara egokituta komunikatu, sustatu eta merkaturatzea, eta helmugaren irudia indartzea.

- **Gobernantza.** Helmugako turismo-industriako eragileen ekosistema zabal, askotariko eta kohesionatuaren arteko lankidetza sendotzea.

Nazioartekotze Estrategiak, bestalde, honako hau azpimarratzen du: “Bilbo hirigintzako erreferentzia-eredu gisa mundu osoan aintzatetsi ondoren, Udalak beste urrats bat eman nahi izan du eraldaketa berri bat bultzatzeko —oraingo honetan izaera ekonomiko eta sozialekoa— eta sektore berrietara bideratutako nazioarteko inbertsio berrien erakarpena sustatzeko. Estrategia horrek azken urteetan

hiriak hasitako bideari jarraitzen dio, baina ekintza, erronka eta sektore ekonomikoak biltzen dituen asmo handiagoko plangintza-dokumentu batekin".

Kulturak ekonomian duen papera eta bere balio-katea

Kultura-industrien eta sormen-industrien arteko tentsioak funtsezko lekua du dinamika ekonomiko, sozial eta instituzionalean (UNCTAD, 2008). Tentsio hori isileko dimentsio bihurtu da, eta, zeharka, jardunbide sozial askotara iristen da. Horrek, beraz, kultura zer den behar bezala definitzea zailtzen du.

Horrela, alde batetik, Plan Estrategikoaren diseinuan eta inplementazioan kontuan hartu behar da alderdi hori, eta ekonomiaren, gizartearen eta iruditerien eraldaketaren ikuspegitik pentsatu behar da, baita herritartasun kritikoagoa sortzeko bidea jorratu ere; hori are beharrezkoagoa da gaur egun hain aldakorra eta ziurgabetasunez betea den ingurune honetan. Laburbilduz, Europako esparruan erreferentziatutako eredu ekonomikoa sektorea —beti atomizatua eta prekarioa— duintzeko gida bat da, baina kultura bezalako errealitate espezifiko bat ahaztu gabe. Errealitate hori bere mugak gainditzea ahalbidetuko dioten egiturazko aldaketen zain dago.

Globalizazioak bultzatutako zatiketaren aurrean, gaur egun hiriak funtsezko eragile dira lurralde-garapen orekatuago eta jasangarriago batean aurrera egiteko. Duela hamarkada batzuetatik hona, Europar Batasunean azpimarratzen da garrantzitsua dela hiri lehiakorragoak eta bizigarriagoak eraikitzen aurrera egitea, hiri horietan berrikuntza-tasa handiagoak sortzea, gizarte- eta kultura-aniztasuna indartzea, baliabideak hobeto kudeatzea eta lurraldeak lotzen dituzten fluxu materialen eta ez-materialen sareetara konektatzea (Méndez et al., 2010).

Horren aurretik, garrantzitsua da Plan Estrategiko honek abiapuntu duen esparru orokorra kontuan hartzea. Esparrua bi ikuspegi osagarritan banatzen da:

- alde batetik, ekonomikoa, *Espezializazio Adimendunerako Ikerketa eta Berrikuntzako Eskualde Estrategia* (hemendik aurrera, RIS3) deritzon planarekin bat datorrena, eta Europako lurraldeen garapen ekonomikoan jartzen duena arreta, jarduera ekonomiko jakin batzuen bidez;

- bestetik, soziala, betiere kontzeptu-geruza lauso baten pean, ez baitago definizio argirik, eta orain 2030 Agendan gauzatzen dena, baita eskubide kulturalei, demokratizazioari eta kulturarako irisgarritasunari buruzko konpromisoetan ere.

Kulturaren ikuspuntu ekonomikoari dagokionez, eta Holdenen triangeluaren balio intrintsekoa oinarri hartuta, hori aipatutako RIS3tik orientatzen da, zeinak Kultura eta Sormena bi kaxoitan banatzen dituen: Kultura eta Sormen Industria ezagunak (KSI, hemendik aurrera):

KULTURA	SORMENA
○ Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza)	○ Bideojokoak
○ Musika	○ Eduki digitala (aplikazioak, softwareen edukia)
○ Kultura-ondarea (museoak, artxiboak, galeriak, liburutegiak)	○ Diseinua (produktua, grafikoa, barrualdea, hirigintza)
○ Ikusmen-arteak (pintura, eskultura, argazkigintza)	○ Arkitektura
○ Artisautza	○ Moda (eta osagarriak)
○ Argitalpena eta inprimatutako bitartekoak	○ Goi-mailako gastronomia
○ Ikus-entzunezkoak (zinema, telebista, irratia, Internet)	○ Publizitatea eta marketina

RIS3 Sailkapena. Iturria: Europako Batzordea

Kulturaren balio-kateari dagokionez, goian aipatutako interes-taldeek hainbat sormen- eta kultura-eragile biltzen dituzte, baita hornitzaileak, banatzaileak, bezeroak eta ikus daitekeen espektro oso bat ere. Espektro hori funtsezkoa da garapen ekonomiko eta kulturala sortzeko. Interakzio horiek, beraz, enplegua eta errenta sortzen dituzte, literaturak hainbat angelutatik aipatzen dituenak. Horren adibide dira European Cluster Observatory-ren (Power eta Nielsen, 2010) ordezkaritzak sormenaren eta lurraldeko per capita errentaren arteko korrelazioari buruzko oharrak, Europako eskualde guztietarako eskualdeko per capita errentaren eta kultura-sektoreko okupazioaren arteko korrelazio sendoaren egiaztapen enpirikoa zabaltzean. Horren aurretik, Richard Floridaren (Florida et al., 2008) azterketa aitzindariak aipatu behar dira. Azterketa horiek erakusten dute, hurbilketa enpirikoetatik abiatuta, eskualde-garapenean eragin handiagoa duten zeregin jakin batzuk daudela —artistikoak eta entretenimenduzkoak, besteak beste—.

Bilboko kulturaren balio-kateko eragile ekonomikoen arteko interakzio horiek kontuan hartzea garrantzitsua da Bilboko Plana bideratzeko. Balio-katea —prestakuntza, sorkuntza, produkzioa, banaketa, erakustaldia eta bitartekaritza, besteak beste— batzearen garrantziaren ikuspegi argiago batek kultura-kudeaketan tentsio publiko-pribatua murriztu dezake.

Horren inguruan azpimarratu beharreko lehen elementua profesionaletan egindako **prestakuntza-inbertsioa eta ikerketa** da, beharrezkoa baita plantillak berritzeko —batzuetan zaharkitua— eta kulturaren balioa modu eraginkorragoan zabaltzeko. Beraz, ikerketatik prestakuntzara bideratutako prozesuak sortu nahi dira, profesionalen etengabeko birziklatzeari aurre egin diezaioten, gaur egungo erronkei —mutanteak bezain konplexuak— erantzuteko ezinbesteko pieza gisa. Kultura-kudeaketan, ezagutzaz eta haren eraikuntzaz, baita pentsamenduarekiko harremanaz ere, galdetzea eragiten duten ikerketa eta prestakuntza. Horrela, kultura-kudeaketako prestakuntza- eta ikerketa-prozesua testuinguruaren araberakoa da; izan ere, ezagutzaren zergatiaz galdetzeaz gain, zertarako, zergatik eta nola ere landu behar du, eta horrek izaera kulturala du funtsean (Yáñez, Rucker 2018).

Katearen hurrengo elementuari dagokionez (**kultura-sorkuntzarena**), adierazi behar da lantze-prozesu indibidualak zein kolektiboak direla. Prozesu horietan, ezagutza, informazioa eta inspirazio artistikoa bera, azpiegitura eta baliabide egokiak bezala, funtsezkoak dira kultura-produktu sendoak eta kalitatezkoak lortzeko.

Aurrerago, sortutako obra katearen beste ardatz batetik bultzatu behar da —hau ere aurrekoaren erantzuna—, hau da, **produkziotik** (batzuetan sorkuntza-proiektutik kanpoko eragile profesionalen mende dago). Ondoren, **banaketaren, merkaturatzearen eta, azkenean, erakustaldiaren** txanda iritsiko da. Hemen obra ikusarazteko prozesuak bultzatzen dituzten beste eragile batzuk sartzen dira jokoan.

Bereziki interesgarria da **kultura-bitartekaritzari** erreparatzea, herritarren aurrean lehen lerroko kultura-espazioetan bideratzaileen presentzia sustatzeko beharra azpimarratuz, hala nola liburutegiak. Kultura Ministerioa arreta berezia jartzen ari da diziplina hori bultzatzeko, kultura pedagogiarekin eta hezkuntza arautuarekin teilaka dadin, artistak bitartekaritza egin dezaketen ikastetxeetara hurbiltzen dituzten programak erraztuz.

Aurrekoa osatuz, adierazi behar da zenbait jardunbide artistiko garaikide errealitatearen eta egunerokotasunaren artean sortzen direla, prozesu naturalizatuetatik abiatuta, merkatu artistikoaren erritmoetatik kanpo. Zabaltzen ari diren bideen berezitasunen eta ezaugarrien artean bilatuz, gizateriaren aurkikuntza zorioneko batzuk jakin-minari zor zaizkiola ikusten dugu. Kashdan, Rose eta Fincham-ek (2009) azaltzen dute nola jakin-mina berritasunaren, konplexutasunaren, ziurgabetasunaren eta/edo gatazkaren bitartez ezagutza bilatzeko jarrera hori den. Jakin-mina eta premia nahasteak, intuizioarekin eta adimenarekin batera, errealitatea eraldatzen duten aldaketa handiak egitera bultzatzen du gizakia. Ezagutzen ez dugunarekin interakzioan jardutea goi-mailako esperientzia modu bat da, Deweyk ohartarazten zuen bezala: “esperientziak (artistikoa) norberaren sentipen eta sentsazio pribatuen barruan giltzapetua egotea esan ordez, munduaren eta bere aurrerapenen aurrean truke aktiboa eta arretatsua esan nahi du”, horregatik bihurtzen da bizitasun handi gisa.

Publikoen garapena

Item honen hitzaurre gisa esan behar da, *publikoen garapena* terminoa sinplea dirudien arren, ulertzen zailak ez diren bi hitzek osatzen dutelako, benetan eraikuntza ideologiko eta politiko oso konplexua dela. Terminoaren itxurazko irisgarritasunaren ondorioz, terminoa zabaldu egin da, gehiegi erabili da eta politikan eta kultura-kudeaketan soberan aipatu ere egin da urteetan zehar (Hadley, 2021).

Hau da, beraz, estrategiaren beste elementu eragileetako bat: publikoen garapena, gaur egungo kultura-kudeaketaren borroka, eta, zenbait aurreiritziren aurka, ez du soilik publiko gaztea aipatu behar, nahiz eta hori izan esku-hartzeak planteatzeko biztanleria-segmentu handietako bat. Horri dagokionez, bi kontzeptu bereizi behar dira: kultura-demokratizazioa, kultura-politikei lotua, eta publikoak sortzea eta garatzea, kultura-erakundeei eta hauen kudeaketari askoz lotuago (Cuenca, 2014). Zehazki, 15 eta 30 urte bitarteko biztanle-tartera iristea eta fidelizatzea oso eginkizun zaila da, batez ere musika klasikoan, arte eszenikoetan edo ikusmen-arteetan, irakaskuntza arautuetan sustatzen diren publiko gatibuaren politiketatik haratago. Entzute aktiboko prozesuak egin behar dira egungo kultura-eskaintza lantzeko eta gazteek gehien erabiltzen dituzten kanalen ezagutzan sakontzeko, kolektibo horrentzako erreferenteak bilatuz eta pertsona horiekin elkarlanean, erakargarriak izango zaizkien jarduerak (solasaldiak, lantegiak...) sortuz.

Era berean, audientziak garatzeko oso kontuan izan behar da digitalizazioaren gaia, kreazio-edukietara sartzen laguntzen baitu eta hazkunde ekonomikoa bultzatzen baitu. Museoen eta kultura-ondarearen

digitalizazioan aurrera egitea da joera argienetako bat horren inguruan. Europa osoko museoetan eragin handia izan du COVID-19ak maila posible guztietan, eta, kasu batzuetan, malgutasun eta ezagutza falta eta hutsuneak azaleratu dira haien eskumenetan, egituretan eta eragiketetan. Zorionez, soluzio digitalak existentzial bihurtu dira erakunde horiek beren audientziekin lotura izan dezaten, eta hori joko-aldaketa gisa ikus daiteke. NEMOren (Europako Museoen Erakundeen Sarea) azken datuen arabera, Europako museoen % 93k online zerbitzuak hasi edo zabaldu dituzte garai zail horiei aurre egiteko. Beren bildumak digitalizatzeko ahalegin guztiak egiten ari diren erakundeek adibide gisa balio dezakete, aukera birtual berrietatik hasita, hala nola, ikusleentzat eskuragarri dauden objektuak (The British Museum) edo gidari interaktiboa duten bisitak (Madrilgo Thyssen Bornemisza Museo Nazionala).

Horrela, digitalizazioaren bidez gazteengana gehiago hurbiltzea eredutzat hartzen jarraitu behar da, baina baita beste kolektibo batzuengana ere, kultura-bitartekaritzaren, baterako sorkuntzaren eta hibridazioaren bidez, kulturara lehen aldiz hurbiltzea sustatzen duten jarduerak txertatuz elkarren artean. Horretarako, eragile pribatuen eta publikoen arteko elkar ulertze handiagoa sortu behar da, eta horrek, aldi berean, audientzien kudeaketa optimizatua ekarriko du.

Betiere publikoa subjektu sortzailekidetzat hartuta, eta parte-hartze pasibotik erantzukizun kolektibora haren bilakaera erraztuz.

Hirien identitatea eta marka

Elkarren artean bereizteko markaren irudia hobetzea ezinbestekoa da produktu eta zerbitzuen arloan lehiatzeko abantailak sortzeko, bai ondasunen erosketa handituz, bai kostuak murriztuz, eskaintzak handituz eta, azkenik, kontsumitzailea/turista fidelizatuz. Lehiakorra izateko, beraz, tokiko marketin-estrategia diseinatu behar da. Eta hori eraginkorra izan dadin, bilatzen den irudiak errealitatearen parekoa izan behar du. Hau da: erakargarria, sinesgarria, sinplea eta dotorea. Marka baten gainean egon daitezkeen lotura negatiboak (komunikabideen iritzia, klima, krisi ekonomikoa, eta abar) baztertzeko zenbait faktore ezin direnez kontrolatu, berriak eta positiboak sortu behar dira.

Hiriko irudi positiboak osatzeko eta turistentzako konfiantzazko giroa sortzeko, funtsezkoa da turisten portaera eta pertzepzioa ulertzea. Horregatik, hiriek arreta berezia jarri behar dute webguneko irudi positiboetan edo negatiboetan, informazio birtualeko iturriak identifikatu behar dituzte, sare sozialetan zer informazio dabilen jakin behar dute eta, hiriaren inguruan lotura negatiboak aurkituz gero, eduki positiboa sortu behar dute haiek baztertzeko. Bestela esanda, administrazioek horri buruzko neurriak hartu beharko dituzte, hiri baten irudi txar batek eragina izan baitezake helmuga baten hautaketan. Interneten sortzen diren edukiekin tentuz ibiltzen ez bagara, iruzkin negatiboak azkar zabaltzen dira, eta ahalegin komertzialei kalte egin diezaiekete eta galera esanguratsuak eragin ditzakete.

Aukeratzen den helmugak asko adierazten du kontsumitzaile/turistaren inguruan; izan ere, gaur egungo kanonen arabera, haren helmuga den tokiak balio erantsia izan behar du, erakargarritasun emozionala, kontsiderazio ez-materialak, azken batean, leku hori helmuga kosmopolita eta ospetsua izatea eragin behar du. Helmugako irudiaren edo *Destination Branding*en eragina da ohikoena turistaren portaerari dagokionez eta, ondoren, bidaiaren esperientziarekiko gogobetetze-mailari edo asegabetasunari dagokionez. Hau da, bidaia bat aukeratzea oso lotuta dago haren inguruan sortutako itxaropenekin.

Europako Batzordeak adierazten duen bezala, Europako eskualde eta hiri guztietako egoiliarrek eta bisitariek asko baloratzen dute kultura, eta kultura-ondarea funtsezko elementua da leku haien irudi eta identitaterako. Mundu mailan, World Tourism Organization (UNWTO) erakundeak turista kulturaltzat jotzen ditu munduko turisten % 40; zifra horiek Europara estrapolatu daitezke. Euskadin, Turismo Behatokiaren datuen arabera, turistaren motibazio kulturala % 38koa da. Kultura eta ondarearen kudeaketa eraginkorra, beraz, jarduera ekonomikoko oso aktibo garrantzitsuak dira, ez bakarrik turismoan oinarrituak, baita turismoa garapen-ardatz hartuta ere.

Kultura-helmugen arrakastaren zati handi bat sortzen duten inpaktu ekonomiko positiboan (Scott, 1997; Throsby, 1999; McGrath et al., 2017) eta tokiko garapen jasangarriari egiten dioten ekarpenean (Tweed eta Sutherland, 2007; Bowitz eta Ibenholt, 2009; Sacco et al., 2014; Capello eta Perucca, 2017) datza. Hori hainbat alderditan islatzen da, hala nola zuzeneko jarduera ekonomikoa sortzea, ondarea mantentzea eta kontserbatzea, kultura-baliabide berriak garatzea, hiriaren irudi sortzailea eraikitzea, eta abar. UNWTOk (2008) adierazitakoaren arabera, “kulturak hiri-turismorako motor gisa duen garrantzia ikus daiteke helmuga bat aukeratzean kontuan hartzen den faktore garrantzitsuenetako bat delako”.

Izan ere, azken urteotan, kulturaren arloa gero eta garrantzitsuago bihurtu da hirien jarduera ekonomikoan. Joera hori hiriko helmuga turistiko eta kulturaletan ere ageri da. Kultura- eta ondare-turismora egindako lehen hurbilketa akademikoak lekuetan eta monumentuetan oinarritu ziren (Richards, 1996). Pixkanaka, ikuspegi zabalagoa sortu zen alderdi hauek barne hartuz: arte eszenikoak (Hughes, 2000), artisautza, kultura-ekitaldiak, arkitektura eta diseinua, eta, berrikiago, sormen-jarduerak (Richards eta Wilson, 2006; Richards, 2011) eta ondare ukiezina (Kurin, 2004; Vecco, 2010).

Begien bistakoak dira branding digitalari eta Web 2.0ari lotutako estrategiak hartu izanak hiriko kultura-turismoan eragin dituen eraldaketak. Hiri industrialetik zerbitzu-hirirako trantsizioan arrakastaren paradigma gisa Bizkaiko hiriburua erabiliz, eta bisitarien kopurua handituz joan den heinean, online kanalek kontsumo-ohiturak eta bidaiaren esperientzia aldatu dituzte. Bisitariak erakartzen dituzten hiriko ondare- eta kultura-elementuez gain, Bilbon administrazioak antolatzen dituen nazioarte-mailako makro-ekitaldiek profil espezifikoa duen turista mota baten hazkundea eragin dute. *Guggenheim efektuak* arkitekturaren potentzial sinbolikoa eta identitatea sortzeko duen gaitasuna erakusten du. Horrela, museoa ez da hainbeste erabilera-leku bat, baizik eta adostasuna eragiten duen sinbolo bihurtzen da. Gogobetetasunaren eta ongizatearen ispilua da (Esteban, 2009).

Azken batean, gaur egun hiriak planetako jarduera ekonomiko, politiko eta kultural gehienak biltzen diren agertoki bihurtzen ari dira. Bilbo ez da salbuespena. Horrela, metropoliak eta haien gobernuak lehian ari dira ahalik eta inbertsio eta turista gehien erakartzeko. Aurrekoaren ondorioz, hiriek eta haien zuzendaritzek marketin eta *City Branding*eko estrategia berriak sartu behar izan dituzte. Era berean, hirietako espazioa ez da fisikoa bakarrik. Hirien mugak ez datoz bat bertako geografiarekin; gaur egun, hiria Interneten, Social Median eta ingurune birtual desberdinetan dago. Globalizazioaren eta lehiakortasun handiaren ondorioz, hiriak munduan sustatzen dira hainbat merkataritza-estrategiaren bidez. *City Branding*ak eta bere oinarriek marka baten edo batzuen sorrera eta eraikuntza bultzatzen laguntzen dute, bereizteko, bere ezaugarri onak erakusteko eta bezero eta negozio berrien migrazioa sustatuko duten irudi positiboak eraikitzeko.

Aniztasuna, euskara, berdintasuna eta jasangarritasuna

Aurreko paragrafoetan deskribatutako esparrua oinarri izan da, halaber, Planaren estrategian zeharkako lan-ildo batzuk kontuan hartzeko. Ildo horiek kulturaren balio-kate osoa hartzen dute, eta

eragina dute arlo sozialean, ekonomikoan eta, jakina, Bilboren kultura-identitatean. Egungo gizarteen bidezko garapena lortzeko funtsezko balio eta printzipioekin estrategia desberdinak txertatzea eta bideratzea da haren zeregina.

Zeharkakotasuna erakunde osoaren konpromiso eraginkorra bermatzen duen kontzeptua da, edozein espezializazio sektorialetik abiatuta, eta antolamendu-egitura sektorial bakar batek bere gain hartu ezin dituen helburuen alde esparru, ikuspegi, ikuspuntu, arazo publiko eta abarretan lan egiteko. Eta zeharkakotasuna antolaketa-tresna ere bada; eta horren bidez, sektoreko antolamendu-egituraren barruan, errealitate oso konplexu baten eskakizunetara hobeto egokitzea ahalbidetuko duten estrategiak, erremintak eta tresnak garatu nahi ditu.

Aurrekoarekin bat etorriz, adierazi behar da plangintza publiko orok politiken koherentzia integratu behar duela bere lanaren oinarri gisa. Aurre egin behar diegun desafio komun eta elkarri lotutakoei erantzun integralak emanez eraldaketa sakonak bultzatuko dituzten politika koherenteen aldeko apustua egin behar dugu. Kulturaren esparruan, gainerako eremuetan bezala, beharrezkoa da guztien ongia interes partikularren gainetik bilatzen duen garapen- eta kohesio-eredurako beharrezko trantsizioak bultzatzea.

Ondoren, zeharkako ildoei buruzko gogoeta egiten da, kulturaren esparruarekin lotutako ikuspegi batetik.

Hizkuntzaren esparruan, Hiriaren kultura-programazioari buruz hemen egindako diagnostikoak gizarte osora estrapolatu daitekeen arazo iraunkor bat islatzen du: eguneroko bizitzan euskara nahi baino gutxiago erabiltzen dela. Gaztelaniarekiko inertziek, kultura-erakustaldiaren hizkuntza nagusi gisa, arrakalak sortzen dituzte elebitasunean, eta kultura izan daiteke inertzia horiek pixkanaka aldatzen lagunduko duen elementu nagusia.

Bilbo Euskaraz udal-programan jasotzen den bezala, euskararen erabileran eragin handiena duten faktoreak honako hauek dira: hiztun kopurua; hiztunek euskaraz hitz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak; euskal hiztunen arteko harremanen sare bat izatea, hau da, solaskideen zati handi bat, familian, lagunen artean, auzoan, kalean, sarean eta eremu formalagoetan, euskal hiztunak izatea; eta, azkenik, adostasunak sustatutako hizkuntzarekiko atxikimendua (adostasun horrek hizkuntzen eta gizarte-berdintasunaren arteko oreka du helburu). Ildo horretan, kultura-politikak eta -ekintza masa gisa erabil daitezke oreka horri eusteko.

Gauza bera esan daiteke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, gizarte-kohesioaren borroka baita; bertan, kulturak ere erakusten du genero-desberdintasun handiak daudela balio-katean. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak (bai II. kapituluan —Kultura eta Komunikabideak—, bai 25. artikuluan) eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak emakumeak ahalduntzeko ardatzak artikulatzen dituzte, eta zutabe horietan garatzen dira ondorengo lanak. Plan horiek Bilbok bere Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. udal Planean zein horri buruzko Udal-ordenantzan jasotzen ditu. Ordenantza horrek bere helburuen artean hau aipatzen du hitzez hitz: “Andrazko guztien ahalduntzea sustatzea eta haien posizio soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala sendotzea eta haien aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzea, beren eskubideen erabilera benetakoa eta erreala bermatzeko”. Kultura, berriro ere, funtsezkoa da helburu horiek lortzeko.

Kulturaren eta sormenaren ikuspegitik, gizarte inklusiboago eta anitzago baten motor diren aldetik, artea integraziorako bide izan daitekeela egiaztatzen duten askotariko azterlanak daude. Bilboren

kasuan, *Zurrumurruen Aurkako Estrategia* (kultura-jardueratik estereotipoak murrizteko topaketak sustatzen dituena) bezalako udal-ekimenak, UNESCO Etxea eta hainbat kultura-elkarte dira aniztasunaren aldeko lan honen adibide.

Azkenik, Jasangarritasunaren ardatza ere bat dator estrategiarekin; izan ere, kultura-proiektuek jasangarritasun ekologikoaren ikuspegitik ez ezik, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik ere orientatuta egon behar dute, eta legegintzako eginkizun bihurtu dira duela urte batzuetatik hona. Horren adibide da Ingurumen Ekintza Plana 2020-2023, Agenda 21etik eratorri dena. Halaber, funtsezkoa ere bada esparru orokorragoetara begiratzea, hala nola Europako Itun Berdea eta Basque Green Deal, garapen ekonomiko justu eta jasangarrirako euskal eredua.

Kultura (bereziki sorkuntza eta erakusketa) jasangarritasunerako lagun handia izan daiteke, arlo horretan ibilbide luzea duen sektorea delako, kontzientziatua, buruaskia eta baliabideak optimizatzen dituena, eta baliorik handiena balio soziala heztea eta herritarrei zabaltzea duelako. Jasangarritasuna presente dago eta hala egoten jarraituko du esparru honetan.

3

ENTZUTE AKTIBOKO METODOLOGIA

ENTZUTE AKTIBOKO METODOLOGIA

Sarrera

Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoa egiteko prozesuaren lehen urrats gisa, egoeraren diagnostiko bat egin da, **Hiriaren errealitate kulturala maila kualitatiboan zein kuantitatiboan aztertzeko** aukera ematen duena, pandemiak adierazpen artistiko desberdinetan sortutako egoeraren argazkia barne. Diagnostiko horretatik abiatuta, Bilboko Udalak hurrengo hamarkadako (2023 – 2033) udalaren kultura-ekintza gidatuko duen ibilbide-orria diseinatu du, egonkortasuna emateko eta udalaren kultura-politikak hobetzeko.

Azterketa hori egiteko, **bigarren mailako iturriak** (gaiari buruz jada eginak dauden txostenak, beste administrazio eta erakunde batzuek egindako datu-baseak, eta abar) eta **lehen mailako iturriak** (kultura- eta sormen-sektorearen beraren, udal-erakundeen eta udalaz gaindiko erakundeen, Hiriko elkarte-ehunaren edo herritarren ekarpenak) hartu dira kontuan. Horiek hainbat kanalen bidez bildu dira.

Ikuspegi kuantitatibotik, besteak beste, honako gai hauek aztertu dira: gaur egungo kultura-eskaintza, haren mapifikazioa sektoreka, enpresa kopurua, enplegua eta negozio-bolumena sektoreka, gastu publikoa kulturan, udal-antolaketa eta Sail desberdinen ekintza gai honen inguruan, beste erakunde batzuek Hirian egiten duten kultura-ekintza, Bilboren nazioarteko irudia eta kultura-turismoaren eragina.

Azpimarratzekoa da, halaber, **Bilboko kultura-errealitatea maila kualitatiboan** aztertzeko egindako **landa-lan garrantzitsua**, Bilboko ekosistema kulturalean inplikatuta dauden esparruetako sentsibilitateen, eskaeren eta proposamenen aniztasuna bilduz. Diagnostiko kualitatibo hori **entzute aktiboko** prozesu baten emaitza izan da. Prozesu hori **elkarrizketa sakonen, lan-mahai sektorialen, online galdetegien eta topaketen** bidez gauzatu da.

Bilboko kultura-eragile nagusien parte-hartzeari irekitako leiho horiei esker, **sektorearen funtsezko gaiei buruzko egoeraren laburpena** egin ahal izan da: **publikoak, finantzaketa, berdintasuna, euskara, komunikazioa eta balio-katea, besteak beste.**

Diagnostiko-txostenaren azken prestaketa triangelukatze metodologikoko prozesu baten bidez edo bigarren mailako zein lehen mailako iturrietatik lortutako edukiak bateratuz egin da.

Jarraian, **Bilboko ekosistema kulturalean inplikatuta dauden eragileek** hirian kulturaren egoerari buruz dituzten ikuspegiak eta etorkizuneko erronka nagusiei erantzun behar dieten ikuspegiak **jasotzeko prozesuan** sakonduko dugu.

Topaketa profesionalak: 20 lan-jardunaldi diagnosiaren eta sektoreen etorkizuneko erronken bila

Hamar lan-mahaitan banatuta, **125 erakundetako 135 kultura-eragilek** parte hartu dute Kulturaren Plan Estrategikoa egiteko parte-hartze prozesu honen esparruan antolatutako topaketa profesionaletan. Bertaratutakoek **beren sektorearen egoeraren diagnostikoari buruzko ikuspegia partekatzeko** aukera izan dute, etorkizuneko Planak erantzun behar dien **ahulezia nagusiak** barne, baita beren lanbide-esparru zehatzak erakusten dituen **indargune garrantzitsuenak** ere —udalaren kultura-plangintzak horien gainean oinarritu beharko luke—.

Hauek izan dira lan-mahai horietan ordezkatutako kultura- eta sormen-sektoreak:

- Liburua.
- Arte Eszenikoak.
- Ikusmen Arteak
- Ikus-entzunezkoa.
- Musika Klasikoa, Korala eta Tradizionala.
- Musika Modernoa.
- Ondarea.
- Euskararen sustapena.
- Kultura eta Garapen Komunitarioa.
- Sormen Industriak.

Guztira **20 lan-jardunaldi egin dira**, talde sektorial bakoitzeko bi. Mahai profesional bakoitzaren lehen saioan, Bilboko kulturaren egoeraren **diagnostikoa egiteko ekarpenak eta orientabideak jasotzea** izan da helburu nagusia. Bigarren saioan, sektore-taldeekin egin den lana **etorkizuneko erronkak eta esku hartzeko ildoak eztabaidatzea eta lehenestea** izan da, azkenean Plan Estrategiko berria egiten laguntzeko.

48 elkarrizketa, ikuspegi-aniztasuna biltzeko

Partaidetza-prozesuan, halaber, landa-lan garrantzitsua egin da **udalaren ikuspegia, ikuspegi politikoa eta akademikoa lortzeko, baita ekipamendu nagusien, jaialdien, kulturaren arloko administrazio publikoen eta kultura-, ekonomia- eta gizarte-erakundeen arduradunen ikuspegia jasotzeko ere**.

Bilboko kultura-sektorearen egoerari buruzko ahalik eta iritzi eta ikuspegi gehien biltzeko, kulturarekin lotutako hainbat esparrutako ordezkariei **berrogeita hamar bat elkarrizketa** egin zaizkie: Bilboko Udaleko Sailak, museo nagusien zuzendaritzak, bestelako ekipamendu berezien zuzendaritzak, kultura-eragile profesionalak eta amateurrak, unibertsitateetako eta beste erakunde batzuetako ordezkariak, eta ziklo eta jaialdietako arduradunak, besteak beste.

Zehazki, elkarrizketetan parte hartu duten erakundeak honako hauek izan dira:

- Bilboko Udaleko Sailak.
- Bilboko Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoak.
- Bilboko kultura-zentro eta -ekipamendu erreferentzialak (museoak, zentro balioaniztunak, antzokiak…)
- Unibertsitate-zentro publiko eta pribatuak.
- Hiriko ziklo eta jaialdi nagusiak.
- Bilboko kultura-, ekonomia- eta gizarte-erakundeak (merkataritzarekin, euskararekin, kirolarekin, gazteriarekin eta abar lotutako erakundeak).
- Hiritik kanpoko beste administrazio batzuk (Foru Aldundiak, EAEko beste hiriburuetako udalak, Eusko Jaurlaritza).

Elkarrizketa horietan, erakunde guztiei oro har eragiten dieten elementu komunak eta bakoitzari bereziki eragiten dioten gai zehatzagoak aztertu dira. Horrela, parte hartu duten erakunde guztiek aukera izan dute **Bilbon kulturaren arloan egin duten lanari buruzko ibilbide bat** egiteko, garatu diren programa, proiektu edo lan-ildo zehatzen indargune eta ahulezietan sakonduz.

Arreta jarri da, gainera, **Bilboko kultura-ehunarekin eta, bereziki, Kulturako udal-sailarekin eguneroko kudeaketan** erabiltzen dituzten **harreman-moduetan eta -tresnetan**, Plan Estrategiko berrian oinarrituta Udalaren sail horrekin harreman desberdinak ezartzeko aukerak kontuan hartuta.

Modu analitikoagoan, orain arte garatutako politiken **elementu positiboak** —programak, lan-ildoak, neurriak, ekintzak, eta abar— baloratu eta lehenetsi dira, baita **hobetu beharreko puntuak** ere.

Azkenik, eta etorkizunera begira, **erantzun beharko liratekeen erronka estrategikoenak** aztertu dira, baita erakunde horiek Kulturaren Plan Estrategikoan izan beharko luketen zeregina eta zein kultura-sektore edo-esparrutan izan nahiko luketen protagonismo handiagoa ere.

Zeharkako lantaldeak: 5 jardunaldi sektoreen gai komunei buruz hausnartzeko

Era berean, **zeharkako lantaldeak antolatu dira, 32 erakundetako 34 parte-hartzailerekin.** Foro horietan, interes orokorreko hainbat sektoreren gai komunak edo interes orokorreko gaiak aztertu dira, bost lan-mahaitan banatuta:

- Kulturako publiko diferenteen azterketa eta kudeaketa.
- 2030 Agenda eta herritarren eskubide kulturalak.
- Kultura garapen ekonomikoko faktore gisa.
- Genero-ikuspegia kulturan.

- Agertzen ari diren artistak.

Publikoak aztertzeko lanean, parte hartu duten erakundeek honako gai hauei buruz eztabaidatu dute: **publiko berriak sortzeari buruzko diagnostiko-elementu gaurkotuenei eta garrantzitsuenei buruz**, **publiko-segmentu zehatzen galerari buruz** (batez ere gazteak eta zaharrenak), **erdiguneak eta auzoek** publikoa erakartzeko **dituzten berezitasunei buruz**, eta publikoaren **fidelizaziorako estrategiei** buruz. Halaber, ikusleek ikusle, parte-hartzaile aktibo eta/edo subjektu sortzailekide gisa duten rolari buruzko eztabaidak jarri dira mahai gainean.

Gehiago sakonduz, erakundeek publiko zehatzaren profilen egoerari buruz hausnartzeko baliatu dute aukera, hala nola gazteei, migratzaileei edo baliabiderik ez dutenei buruz, baita **beste leku batzuetan garatzen diren** sortzeko eta fidelizatzeko politikei eta ekimenei buruz ere.

2030 Agendaren eta herritarren eskubide kulturalen esparruko diagnostiko-elementu gaurkotuenen artean, parte-hartzaileek honako gai hauei buruz eztabaidatu dute: 2030 Agendaren helburuen artean kultura-eremuak duen lekuari buruz, kulturan jasangarritasun-helburuak zehazten parte hartu behar duten eragileei buruz, esparru horretan erantzukidetasun publiko-pribatuaren definizioari buruz, oinarrizko eskubide kulturalen definizioari buruz eta horiek eskuratzeko eta baliatzeko estrategiei buruz.

Era berean, erakundeek beste udalerri edo esparru batzuetan (bai politika publikoetan, bai lankidetza publiko-pribatuan) garatzen ari diren esperientziak partekatu dituzte, 2030 Agendaren helburuen eta kultura eta eskubide kulturalen inguruan lan egiteko: arau-elementuak, esperientzia pilotuak, esku hartzeko sailen arteko koordinazioa,...

Kultura garapen ekonomikorako faktore gisa lantzera bideratutako zeharkako lan-mahaian, diagnostikorako hainbat elementu azpimarratu dira, besteak beste, sektoreak ekonomiari egiten dion ekarpena, oreka publiko-pribatua eta arlo ekonomikoaren eta sozialaren arteko oreka.

Gainera, **kulturaren inguruko estrategiak eta/edo lan-ildoak aurreratu dira garapen ekonomikorako faktore gisa** eta kulturaren balio ekonomikoa neurtzeko tresna eta elementu gisa, eta diskurtso ekonomizistek kulturaren balio intrintsekoa erreindibikatzearen aurrean duten nagusitasuna eztabaidatu da. Sormen- eta kultura-sektoreen pisua, eta dimentsio ekonomikoaren eta sozialaren arteko oreka izan dira topaketan jorratu diren beste gako garrantzitsu batzuk.

Kulturan dagoen genero-ikuspegiaren aldetik, emakumeek eta gizonek kulturan duten presentziari eta parte-hartzeari buruzko **diagnostiko-elementu nagusiak nabarmendu dituzte parte-hartzaileek** (kultura-sektore diferentetan, lanbide-rol desberdinetan, balio-katean), baita aurreiritzi eta estereotipo sexistak irauteari buruzkoak ere, besteak beste.

Erakundeek honako esparru hauen inguruan ere sakondu dute: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera gehiagori buruzko datuak hautematen eta/edo ezagutzen dituzten sektoreei buruz, politika publikoetatik dauden erantzukizun-elementuei buruz (desparekotasun-elementuak identifikatu diren esparruetan hautemateko eta esku hartzeko moduak eta tresnak), sexu- eta genero-aniztasuna kultura-eremuan txertatzeari buruz, edo desberdintasun-elementuak eta -egoerak betikotzen dituzten kulturaren transmisio-balioei buruz.

Azkenik, **agertzen ari diren artistekin lotutako lanari** eskainitako gunean, gogoeta egin da agertzen ari den artistaren kontzeptuari eta amateurismoari buruz, bi kontzeptu horien inguruko politika publikoen ikuspegiari buruz, eta agertzen ari diren artisten sustapenaren eta babesaren helburuei

buruz, eta garrantzitsuak izan daitezkeen lankidetza- eta hibridazio-esperientzia desberdinak nabarmendu dira.

Batzorde soziokulturalak: 8 bilera, barrutiei gehien lotutako errealitatea bilatzeko

Hiriko auzo eta barrutietan diagnostikoa ahalik eta gehien bideratzeko asmoz, **8 topaketa** egin dira barrutietako kontseiluetako batzorde soziokulturalekin:

- Deustu.
- Uribarri.
- Otxarkoaga/Txurdinaga.
- Begoña.
- Ibaiondo.
- Abando.
- Errekalde.
- Basurtu/Zorrotza.

Lan-saio horietan, parte hartu duten **71 pertsonek** aukera izan dute **auzo bakoitzean kulturaren egoeraren diagnostikoa** helarazteko, eta Plan berriak barruti bakoitzean modu berezian jorratu beharko dituen erronka eta behar nagusien inguruan modu partekatuan lan egiteko.

Parte hartzeko topaketa bat eta online galdetegi bat: gizartearen pertzepzioa lortzera bideratutako bi ekimen

Azkenik, partaidetza-prozesuari amaiera emateko, Udalak **bi ekimen** jarri ditu abian, plan hau egiteko orduan **Hiriko herritarren eta elkarte-ehunaren ekarpena bultzatzera bideratuak.** Alde batetik, Udalak **parte hartzeko topaketa** bat deitu zuen, herritar guztientzat eta Hiriko kultura-elkarteentzat irekia. Hitzordura **62 pertsona** joan ziren, eztabaidatzeko, ideiak partekatzeko eta Hiriaren eta bertako eragileen bizitza kulturala hobetuko duten ekintzak proposatzeko.

Bestalde, Udalak ***online* galdetegi bat prestatu zuen** gizarteak Bilboko kulturaren egoerari buruz duen pertzepzioa ezagutzeko. Bide horretatik **220 pertsonek** helarazi dituzte udalaren kultura-ekintzari buruzko balorazioak. Zehazki, parte-hartzaileek beren gogobetetze-maila helarazi ahal izan dute Bilboko kultura-programazioari lotutako esparruekin: auzoen araberako banaketa, programazioaren aniztasuna, jardueren jarraipena urtean zehar eta jardueren hedapena, besteak beste.

Era berean, herritarrek aukera izan dute honako hau proposatzeko: **zein kultura-sektore bultzatu behar diren** indar handiagoz udal-esparrutik, eta **zein publiko motatara zuzendu beharko liratekeen gehien** kultura-jarduerak.

Azpiegituren kapituluari dagokionez, Hiriko **kultur etxeekiko gogobetetze-mailari** buruzko informazioa bildu da, hainbat ikuspuntutatik: ordutegiak, irisgarritasuna, ekipamenduen kalitatea, eta abar.

Azkenik, espazio parte-hartzaile horien bitartez, Bilboko herritarrek **hobetzeko elementuen** proposamenak helarazi ahal izan dituzte.

Emaitza: 570 parte-hartzaile eta 5.000 ekarpen

Sektoreko eragileen, herritarren eta kultura-elkarteetako ordezkarien eta Barrutiko Kontseiluen artean, **570 pertsonek** (% 55 emakumeak eta % 45 gizonak) hartu dute parte Hiriko Kulturaren Plan Estrategiko berria osatzeko prozesuan .

Lankidetza- eta partaidetza-lan horren ondorioz, **5.000 ekarpen baino gehiago** bildu dira, kualitatiboak zein kuantitatiboak (beharrak, eskaerak, egoeraren balioespenak, erronka berriak, eta abar), Plana prestatzeko. Laburbilduz, honako **ardatz tematiko** hauen ingurukoak dira:

- Auzoetako bizitza kulturala eta hurbileko kultura.
- Kultura-jarduera eta-sorkuntza finantzatzea.
- Programazioaren komunikazioa.
- Azpiegiturak eta ekipamenduak.
- Euskara.
- Publikoa berreskuratzea eta berriak sortzea.
- Sorkuntza eta talentua bultzatzea.
- Genero-ikuspegia.

Parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, Udalak **Hiriko kulturaren egoeraren diagnostiko osoa** dauka plangintza estrategiko hau idazteko.

4

EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

DIAGNOSTIKO KUALITATIBO ETA KUANTITATIBOA

Bilbon kulturaren egoerari buruzko azterketa ahalik eta osoena egiteko, lan-prozesu bat jarri da abian bi norabidetan.

Alde batetik, eta **ikuspegi kualitatibo batetik, eskaria atzemateko prozesu bat gauzatu da**, eta horri esker, **Hiriko ekosistema kulturalean elkarrekin bizi diren askotariko ikuspegiak eta sentsibilitateak** jaso ahal izan dira.

Azterketa kualitatibo hori hainbat kanalen bidez (elkarrizketak, lan-mahai sektorialak, zeharkako saioak...) egindako landa-lan garrantzitsu baten emaitza da. Metodologiari buruzko aurreko kapituluan azaldu den bezala, azterketa horretan **hainbat kultura-eragilek**, erakundeetako ordezkariek eta elkarteekin lotutako pertsonek **hartu dute parte.**

Lan-prozesu horren bidez, **Hiriko kulturak gaur egun dituen indargune eta ahulezia** nagusiak bildu dira, **baita Hiriak erantzun beharreko erronka nagusiak ere**. Emaitza horiek hurrengo orrialdeetan aurkezten dira, bost ikuspegiren arabera sailkatuta:

- **Udalaren eta udalaz gaindiko ikuspegia.**
- **Ikuspegi sektoriala eta profesionala.**
- **Zeharkako ikuspegia.**
- **Elkarteen ikuspegia.**
- **Herritarren ikuspegia.**

Atal horietako bakoitzean, zehazki, udalaren kultura-ekintzaren funtsezko ardatzei buruzko ondorio nagusiak biltzen dira:

- **Parte-hartzea eta publikoak.**
- **Baliabideak eta finantzaketa.**
- **Programazioa.**
- **Azpiegiturak eta ekipamenduak.**
- **Komunikazioa eta ikusgaitasuna.**
- **Koordinazioa eta lankidetza.**
- **Berdintasuna.**
- **Euskara.**

- **Aniztasuna.**
- **Jasangarritasuna.**

Diagnosi kualitatibo osoa azaldu ondoren, bertatik ateratzen diren ideia nagusien **laburpen-taula** batzuk aurkezten dira.

Bestalde, eta osagarri gisa, Bilbon kulturaren egoeraren diagnostiko kuantitatiboa aurkezten da. Kasu honetan, **lehen mailako iturriekin** (Kultura Sailaren beraren txostenak eta datu-baseak, eta herritarrei zuzendutako online galdetegi bat) eta **bigarren mailako iturriekin** (beste administrazio eta erakunde batzuek egindako txostenak eta datu-baseak) lan egin da.

Hurrengo orrialdeetan, alde batetik, **220 pertsonak parte hartu duten online galdetegitik** ateratako analisi kuantitatibo nagusiak jasotzen dira. Hori bi multzo analitiko nagusitan egituratu da:

- **Kulturaren pertzepzioaren balorazioa Bilbon:**
  - Bilbon kultura bultzatzeak duen garrantzia.
  - Kulturarekiko gogobetetze-maila Bilbon.
- **Udalaren kultura-ekintzaren balorazioa:**
  - Kultura-jardueren udal-programazioa.
  - Kultura-jarduera mota.
  - Zer publiko motari zuzentzen zaion.
  - Kultura-ekipamendu publikoak.

Bestalde, Bilbon kulturaren egoerari buruzko datuek uzten diguten laburpen kuantitatiboa kontsulta daiteke, ikuspuntu hauetatik:

- **Testuinguru soziodemografikoa.**
- **Kultura Sailaren aurrekontua.**
- **Hiriaren kultura-eskaintza.**
- **Kontsumo eta parte-hartze kulturala.**
- **KSI Bilbon.**

4.1

DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

IKUSPEGIEN LABURPENA

UDALAREN ETA UDALAZ GAINDIKO IKUSPEGIA

Ikuspegi diagnostiko hori udalaren, udalez gaindiko erakundeen eta beste lurralde batzuetako administrazioen begiradan oinarritzen da, eta Hiriaren bizitza kulturalarekin erlazionatzeko dituen moduei erantzuten die.

Kultura Sailaren ikuspegian, sektorearen errealitatea eta bertan izandako parte-hartzea sakon ezagutzen dela egiaztatzen da, eta ideiak eta plangintzak sortzen dira ekosistema kulturalera etengabe hurbiltzeari esker. Gainera, ekosistema horrek gora egin du azken urteotan. **Udaleko beste Sail batzuetatik**, ordea, ikuspegia zatituagoa da, proiektu partekatuek baldintzatuta nagusiki. Bi kasuetan, **konpetentzien egituraketa** orokor hobea nahi da, lan partekatuaren funtzionamendua optimizatzeko.

Udalaz gaindiko mailan, Hiriaren kultura-eskaintzaren ikuspegi positiboa partekatzen da, eta komunikazio ona sumatzen da, baina **administrazioen arteko egituraketa eta lankidetza handiagoa** behar dela ikusten da.

IKUSPEGI SEKTORIALA ETA PROFESIONALA

Eragile profesionalekin izandako topaketen diagnostikoa eredu komun batzuen arabera osatzen da: **ikusgaitasunik ezaren eta kanpo-balorazio ezaren** sentimendu orokortua, **prekaritate kroniko** batean gauzatzen dena; **euskarazko programazioaren inguruko ikusgaitasun txikia**, betiere gaztelania-hiztunaren mende dagoena; **jendea erakartzeko** borroka, gazteak zein biztanleriaren beste segmentu batzuk, eta horiei irteera aurkitzea zaila da *ad hoc* pedagogia batetik harago; **nahigabeko kontraprogramazioa**; **baliabide publiko eta pribatuen arteko desoreka**; **sormena zailtzen duen burokratizazioa eta administrazio-araudia**; eta, makro ingurune mailan, **prezioak igotzeak eragindako kontrako egoera**, herritar guztiek kultura eskura izatea are gehiago zailtzen duena.

ELKARTE-EHUNAREN IKUSPEGIA

Kultura-elkarteen ikuspegia kultura-gertaerarekin duen lotura batetik abiatzen da; eta gertaera horrek **jardueraren hartzaile eta sustatzaile izatea** uztartzen ditu. Haren diagnostikoak, beraz, **bizitza kulturalaren pertzepzio osoa** barne hartzen du, eta hainbat gai aztertzen ditu, hala nola dauden espazioak eta nahi direnak, baliabideak eskuragarri izatea, lotzeko dauden biztanleria-sektoreak edo programak eta proiektuak bideratzeko moduak.

Kaleko ikuspegi horretatik begiratuta, aipatzekoak dira honako hau bezalako diagnostikoen beharrari buruzko iruzkinak, eta parte-hartzearen balio sinbolikoari eta belaunaldi-erreleboaren ondoriozko erronken inguruan lan egiteko beharrari buruzkoak.

HERRITARREN IKUSPEGIA

Bildutako iritziek erakusten dutenez, **Bilboko herritarrek oso balorazio positiboa egiten dute**, **programazioa eta azpiegitura publikoengatik ez ezik, Udalak kultura Hirian identitate-ikur bihurtzeko egin duen apustuagatik ere.**

Gainera, irakurketa sakonago batetik, eta ikusle eta kontsumitzaileen roletik haratago, **kezka bat** sumatzen da **Bilboren kultura-bizitzan aktiboki parte hartzeagatik, sektoreak jasotzen dituen baliabideengatik eta Bilboko kultura-bizitza egituratu, komunikatu eta planifikatzeko moduagatik.** Hortik abiatuta, **euskararen, inklusioaren, irisgarritasunaren, aniztasunaren eta gobernantza irekitzearen aldeko apustua** egitea proposatzen da.

Hala ere, nabarmentzekoa da programazioan sektore-desorekak hautematen dituzten **ahots kritikoak ere badaudela**, dantza edo ikusmen-arteak bezalako diziplinen presentzia handiagoa, edo zartzuela bezalako produktu espezifikoak eskatzen dutenak.

ZEHARKAKO IKUSPEGIA

Mahai eta topaketetatik ateratako zeharkako diagnostikoa funtsezko lau puntutan oinarritzen da: **GJHak gutxi ezagutzea, eta, beraz, haiek gutxiago aplikatzea**, eta eskubide kulturalak zer diren eta zer suposatzen duten hobeto jakitea; **kulturaren sorkuntzan eta balio-katean emakumeak leku nagusi batean kokatzeko erronka**, oraindik ere genero maskulinoaren mende baitago; **euskarak kultura-programazioan duen presentzia txikia**; eta **hainbat publikorentzako irisgarritasuna**, mugatua dela ulertzen baita, eta horrek audientziak zehatzago aztertzea eragozten du.

Zeharkako ikuspegi horretatik, era berean, **sortzen ari diren kultura-eragileentzako sorkuntza-egoitzarik eza** diagnostikatzen da, nahiz eta **azken urteetan kolektibo horrentzako udal-beka eta -baliabideen ugaritzea** txalotu eta aitortu den.

UDALAREN ETA UDALAZ GAINDIKO IKUSPEGIA

INDARGUNEAK

• KULTURAREN IKUSPEGIA

Udalarekin eta udalaz gaindiko esparruekin lotutako eragileak bat datoz esatean **Bilbon kultura elementu nagusitzat hartzea** dela egungo indargune nagusietako bat, baita **urteko 365 egunetan kultura-jarduera edukitzen jarraitzea ere.**

Komenigarritzat jotzen da **ekitaldi handiak eta hurbileko kultura** uztartzen dituen kultura-ekintza baten aldeko apustua egiten jarraitzea, bi kasuetan tokiko eragileen parte-hartzea bermatuz, bai ibilbide luzea dutenena, bai profil berriagoari erantzuten diotenena. Hain zuzen ere, **epe labur eta luzerako begirada bikoitz** hori da aurrera egiten jarraitzeko indargune handienetako bat.

Nabarmentzen den beste indargune nagusietako bat da **kultura hiriaren eragile dinamizatzailea dela, jarduera ekonomikoa sortzen duela** eta beste ekitaldi eta jarduera batzuetarako erakarpen-ahalmena duela. Kulturaren balio ekonomiko hori, gainera, Hiriko auzo askotan **hiri-eraldaketarako** ardatz nagusietako bat da.

Balio ekonomiko horren osagarri gisa, udalaren eta udalaz gaindiko ikuspegi horretatik azpimarratzen da kulturak **gizarte-kohesioa eta inklusioa** sustatzeko duen zeregina, **herritartasun kritikoa** sortuz eta **lurraldearekin lotura** eskainiz.

Era berean, ikuspegi horretatik, kulturak funtsezko elementu gisa hezkuntza formalean, ikaskuntza informalean eta gizarte- eta hezkuntza-aisian duen zeregina nabarmentzen da.

• AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

Kultura-azpiegiturei eta -ekipamenduei dagokienez, udaleko eta udalaz gaindiko eragileek balioa ematen diote **kultura-azpiegiturak eta -ekipamenduak hobetzearen aldeko apustu irmoari**, eta funtsezko hainbat proiektu nabarmentzen dituzte: erreferentziazko zentroetan (Arte Ederren Museoa, Bilbao Arte eta Euskal Museoa) abiarazitako handitzea, Arriaga Antzokiaren eta honen nazioartekotzearen aldeko apustu irmoa egitea, Blas de Otero Fundazioa irekitzea, 6. pabiloiko instalazioak hobetzea, eta abar.

Gainera, eraikin historikoen **kultura-ondarea kontserbatzeko eta inbentariatzeko** egiten ari diren lanak nabarmentzen dira.

• BALIABIDEAK

Kultura-sektorearekiko erlazioari buruzko kapituluan, **sektoreari** etengabe eman zaion **laguntza** nabarmentzen da indargune gisa, batez ere pandemian, programazioetan tokiko talentuari garrantzi handia emanez, edo jarduerara itzultzeko agenda bizia eta askotarikoa sustatuz.

Era berean, ekintzaileei laguntzeko, dirulaguntzetan funtsak bideratzeko edo hainbat lankidetza egiteko eta sektorearekin (mahai eszenikoa, esaterako) eta elkarte-ehunarekin topaketak egiteko espazioetara bideratutako **baliabide ugari** daudela uste da.

Distantzia hartuta, udal eta udalaz gaindiko ikuspegi horretatik nabarmentzen da, Bilboko ekosistema kulturalaren barruan, Kultura Saila **eragile hurbiltzat, inplikatutzat eta irisgarritzat jotzen dela. Politikaren eta kultura-jardueraren lehen leihoaren** funtzioa behar bezala betetzen duela ulertzen da, baita jarduerek beste erakunde-sustatzaile batzuk dituztenean ere.

Kalitatearen eta profesionaltasunaren alde egindako apustua oso positibotzat jotzen da, baina baita gizarte-sareko eta harremaneko jardueraren alde egindako apustua ere. Hurbiltasuneko kultura horrek **eragile txiki eta handiei erantzuten diela, eta hiriaren ideia indartzen duela** ondorioztatzen da.

• EUSKARA

Euskarazko kultura-programazioan esfortzu handiagoa eskatzen bada ere, gaur egun egiten den lana balioesten da, eta **euskara sustatzeko dauden kultura-programak** azpimarratzen dira, bai haurrei eta gazteei zuzendutakoak (*Ikusi eta Ikasi, Harrapazank, Gu ere bertsotan, B-Tuber edo Euskarazko zinema*), bai beste erakunde euskaltzale batzuekin elkarlanean aritzekoak helduen artean euskararen erabilera sustatzeko.

Azpimarratzekoa da udalaz gaindiko erakunde batzuek, gainera, **Hiriarekin batera euskarazko kultura-jarduerak sustatzeko lan egiteko** eskaintza egiten dutela, ahaleginak eta baliabideak eskainiz.

• PROGRAMAZIOA

Programazioari dagokionez, **Bilborocketik eta gaztegunetatik egiten diren gazteentzako aisialdiko, musikako eta STEAM oinarriko jardueren eskaintza** egokia dela uste da, eta desafio handiei erantzuten diela, hala nola **emakumeen parte-hartzeari, euskararen sustapenari** edo **aisialdi erakargarri eta osasungarriko jardueren eskaintza** zabaltzeari. Gainera, Hiriko gazteei gehien lotutako elkarte-ehunarekin dagoen lankidetza estua azpimarratu da.

Era berean, 15 urtetik gora garatzen daramaten **programetan metatutako ibilbidea** nabarmentzen da, baita beste esparru edo diziplina batzuetan proiektu berritzaileagoekin duen lotura ere. Azken batean, eta antzeko beste hiri batzuekin alderatuta, **positiboki baloratzen da udalak kultura-eskaintzaren eta bertako per capita gastuaren alde egindako apustua.**

Azkenik, Udaleko eta udalaz gaindiko eragileek positiboki baloratzen dituzte haurrei zuzendutako programazioa eta jarduerak, haien balio potentziala oso handia dela adieraziz eta bereziki zaindu beharreko publiko mota dela pentsatuz, **kultura txikitatik sentitu eta bizi dezaten**.

AHULEZIAK

• PARTE-HARTZEA ETA PUBLIKOAK

Udal-programetan gazteen ikuspegirik ez izatea ahulezia nagusietako bat bezala ikusten da. Gazteek kulturan parte har dezaten sustatzeko politika aktiboak lantzea proposatzen da.

Era berean, **kultura-elkarteen egituretan nolabaiteko zurruntasuna** sumatzen da, eta aldatzeko eta eguneratzeko asmorik ez dutela edo zailtasunak dituztela ikuste da. Horregatik, **beharrezkotzat jotzen da** parte hartzeko guneetan pertsonak **berritzea**, aniztasunean irabazteko eta ahots berriak integratzeko.

Ildo beretik jarraituz, agerian jartzen da ezinbestekoa dela kulturaren esparruan **parte hartzeko egiturak berritzea**, eta **publiko desberdinen portaerari** buruzko informazioa eta azterketa-elementuak falta direla, haien beharrak, balorazioak eta parte-hartze datuak ulertzeko. Puntu zehatz horretan, hots, kultura-kontsumoari dagokionez, elkarrekin sortzeko edo topaketarako espazioak abian jartzeko nahia ere adierazten da, kultura-kontsumo hutsetik haratago.

Azkenik, parte-hartzearen ikuspegitik, **teknologiaren aldeko apustua** egitea gomendatzen da, **kultura demokratizatzeko bide gisa**, sarbideak eta proiektuak erraztuz.

• LANKIDETZA ETA SAREA

Udaleko eta udalaz gaindiko eragileek **lankidetza publiko-pribatuaren tradizio urrian** jarri dute arreta. Komenigarritzat jotzen da diru-sarrera pribatuen eta babesletzen ehuneko handiagoa izatea. Askotan, dagoeneko finkatuta dauden ekitaldietan, udalaren laguntza ez da desagertzen eta urtez urte mantentzen da, lagundu litezkeen ekimen berrien kopurua eta aniztasuna mugatuz. Azken batean, Udalaren eta udalaz gaindiko ikuspegitik, **lankidetza publiko-pribatuaren eredu sendoagoaren** alde egiten da, kultura-sektorearen babesa eta jasangarritasuna sustatzeko.

Era berean, **eskumen-mugaketatik** altxatutako oztopoak gainditzea jarri da erronkatzat; izan ere, oztopo horien ondorioz, **ez dago koordinaziorik edo harremanik Sailen eta kultura-ekipamendu handien artean.** Planoa gehiago zabalduz, kontsultatutako eragileek uste dute **jardueren *udal-izaeraren* ideia indartu** behar dela, ekimenak zein Sailetan sortzen diren alde batera utzita.

Beharrezkotzat jotzen da Udalak beste administrazio batzuekin duen lankidetza hobetzea; izan ere, Bilboren kultura-eskaintza, neurri handi batean Udalak sustatzen duen arren, inguruko biztanleei ere eskaintzen die zerbitzua.

Bilbok eta EAEko beste hiriburuek kultura-arloan duten lankidetzan oraindik ere asko dago egiteko, nahiz eta Bilbok kulturaren alde egindako apustuari buruz dagoen ikuspegi positiboa eta adostasuna ona izan. Horregatik, komenigarritzat jotzen da **topaketa- eta harreman-gune gehiago aurkitzea**, hiru hiriburuen arteko lankidetza arinagoa eta biziagoa bultzatzeko.

- ## EUSKARA

Udaletik eta udalaz gaindiko esparrutik, adostasuna dago **euskarazko kultura babestu eta sustatzeko beharrari buruz**; izan ere, ahaleginak egin diren arren, **bat datoz esatean euskararen erabilera areagotzeko tartea oraindik oso zabala dela.** Udaleko eta udaletik kanpoko erakundeek adierazi dute garrantzitsua dela ildo horretako neurriak sustatzea.

- ## PROGRAMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Diziplinen arteko programazio orekatuagoa behar da. Zehazki, udalaren eta udalaz gaindiko ikuspegi horretatik azpimarratzen da beharrezkoa dela **dantzarako espazio bat sortzea** (beste erakunde batzuekin koordinatuta), **musika eta bere jardunbidea are gehiago sustatzea**, antzerki-produkzioen **nazioartekotzea** bultzatzea edo **tokiko ikus-entzunezkoen sektorea indartzea**, Bilbo grabazio-gune gisa erakargarriagoa izan dadin. Era berean, kontsultatutako iturriak bat datoz **ondareari eta kultura-identitateari arreta handiagoa** emateko premian, batez ere industria-ondareari dagokionez.

Programazioa espazioetara egokitzea ere ezinbestekotzat jotzen da, **auzoei baliabideak emanez jardueraren logistika errazteko.**

Udaletik eta udalaz gaindiko esparrutik ahaleginak ardaztu beharko liratekeela uste den beste puntu batzuk honako hauek dira: **kultura-proposamenetan berrikuntza** bultzatzea, **kultura-eskaintzan genero-ikuspegia sendotzea**, **jasangarritasunaren ikuspegia** txertatzea, eta **hurbiltasuneko kultura indartzea** Bilboko auzo eta barrutietan.

Era berean, **komunikazioa hobetzeko dagoen tartea** azpimarratzen da, batez ere gazteei zuzendutakoa, eta berariaz gomendatzen da **komunikazio-ekintza teknologia berrien eskutik joatea.**

Azkenik, **ekitaldiaren iragarpenaren eta ekitaldia burutzen den unearen arteko tartea zabaltzea** proposatzen da. Tarte hori funtsezkotzat jotzen da nahi ez diren gainjartzeak eta kontraprogramazioak saihesteko, eta, ondorioz, bertaratze-datuak hobetzeko.

IKUSPEGI SEKTORIALA ETA PROFESIONALA

INDARGUNEAK

- ### BALIOA ETA IKUSGAITASUNA

Berezko **eszena-kontzientzia berezi baten** existentzia balioesten da. Eragileak bat datoz esatean **kultura-identitate askotarikoa eta indartsua** dagoela, elementu guztiak garrantzitsuak direneko **ekosistema bat izatearen kontzientzia hartzera** eramaten duena.

Era berean, **Hiriak bere kultura-izaeran duen ospea azpimarratzen da**, baita *Bilbo markak* kanporantz duen ospea ere, eragile askok indargune garrantzitsutzat jotzen baitute. Markari dagokionez, **Bilboren elementu bereziak erabiltzeak duen potentziala** eta edozein ekimen sustatzeko duen gaitasuna adierazten dira, atxikitzeko eta bultzatzeko duen indarretik abiatuta.

- ### PROGRAMAZIOA: ESKAINTZA

Programazioaren indarguneen artean, ikuspegi sektorial horrek hainbat erakundek parte hartzen duten proiektu kulturalen aberastasuna eta aniztasuna azpimarratzen ditu. **Kultura-aniztasun zabala** sumatzen da **eta Hiriaren ondare gisa balioesten da.** Ikuspegi kuantitatibotik, programazioa modu positiboan baloratzen da.

- ### KULTURA-AZPIEGITURAK

Eragile sektorialak bat datoz **kultura-ekipamenduen kalitatea eta aniztasuna** nabarmentzen, baina azpimarratu dute oso garestiak izan daitezkeela, eta, beraz, ahulezia ere izan daitekeela, batez ere erakunde pribatuentzat.

Indargune gisa nabarmentzen dira, halaber, **ekipamendu eta azpiegiturek Bilboko herritarrengan duten tradizioa eta errotzea**, eta ikuspuntu historikotik eta arkitektonikotik jendearengan pizten duten interesa.

Azkenik, ekipamendu horiek alde batera utzita, eragile sektorialek positiboki baloratzen dute Hiriak berak eta bere inguruek ikus-entzunezkoen sektorerako, batez ere, eskaintzen dituzten **"agertokien" aniztasuna** (hondartza, zelaia, mendia, hiria...).

- ### PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Ikuspegi profesionalak **publikoaren fideltasuna eta heterogeneotasuna** nabarmentzen ditu indargune gisa. Publiko berriak bilatzeak berebiziko garrantzia duela adierazi da, baina **lehendik dagoena**

fidelizatzeko politika publikoen beharraz ohartarazi da, azken batean, bi lan-ildoen bateragarritasuna azpimarratuz: **fidelizazioa eta publiko berriak bilatzea.**

Publikoez gain, eragileek **tokiko elkarte-ehunak duen indarra** azpimarratzen dute, zehazki auzoetan hedatzen diren elkarteen eta erakundeen sarea. ***Indar militantea*** deiturikoa existitzearen gakoetako bat direla uste da, **pandemiaren garairik gogorrenetan ere** gauzatutako ekimenak nabarmenduz.

Elkarte-sare horrek, gainera, **bitartekaritza-gaitasuna du kultura eskuragarri edukitzea zailago duten gizarte-sektoreekin**, kulturaren eta gizartearen arteko **zubi-funtzio** garrantzitsua betez. Ikuspegi horretatik, ondorioztatzen da **oso sektore inklusiboa eta belaunaldi anitz biltzen dituena** dela.

Sorkuntzaren esparruari dagokionez, **publiko gaztearen parte-hartzeak potentzial sortzaile** handiko unea bizi du **Bilbon**, **talentuz beteriko belaunaldi gazte baten bultzadagatik**, eta, gainera, Bilboko ekosistema kulturalean inplikazio handia erakusten duelako.

AHULEZIAK

• BALIOA ETA IKUSGAITASUNA

Ikuspegi profesionalaren arabera, oro har, sektore-mahai hauetan aztertutako sektorea eta azpisektore kultural eta sortzaileak ez dira **oso baloratuak** (zehazki, Liburua, Ikusmen Arteak, Industria Sortzaileak, Ondarea, Arte Eszenikoak, Ikus-entzunezkoak eta Musika, modernoa zein klasikoa, baita Euskara eta Garapen Komunitarioa ere).

Era berean, eta kontsultatutako sektore guztiak barne hartuta, eragile profesionalek uste dute kultura-sektorea **ez dela oso lehiakorra** posizionamenduari eta euren lana saltzeko eta transmititzeko gaitasunari dagokienez. Alde horretatik, **lehiakortasun hori erronka gisa aipatzen da, eta erronka horretan aurrera egiten jarraitu behar da**, ez soilik alderdi ekonomiko eta kuantitatiboei dagokienez, baita **transmisioaren eta gizarte-eraginaren** ikuspegitik ere.

Lehiakortasun falta hori, besteak beste**, datuen urritasunarekin lotzen da.** Eragile sektorialen iritziz, kulturaren ahulezia nagusietako bat litzateke **jardunbide egokien eta kulturak** garapenaren dimentsio sozialean **duen eraginari buruzko datuak falta direla.**

Ikuspegi sektorial horretatik, **azken urteotan ohiturak aldatu egin direla** ohartarazten da, **eta horrek paradigma-aldaketa bat eragin du.** Aisia eta kultura beste bide bat hartzen ari dira. Eredu berri horrek kulturaren ikuspegi zabalagoa dakar berekin, bere argi-itzalekin, eta hori **proiektu kultural batzuk beste sail batzuetan txertatzean islatzen da.** Okertzat jotzen da ikuspegi berri horretatik proposatzen eta garatzen diren programa asko beste Sail batzuetara bideratzea, hala nola Nazioarteko Lankidetzaz, Hezkuntzaz, Gazteriaz, Migrazioaz eta abarrez arduratzen diren Sailetara, haien benetako espiritua eta balioa kulturala denean. **Kultura zeharkako elementu gisa azpimarratzen da**, baina begirada espezifiko batekin, eta kultura-politikatik jorratu beharreko gaiak direla uste da.

Doakotasunaren inertziak kultura-sektorearen ahulezia nagusi gisa ere nabarmentzen dira, batez ere publiko gazteenaren ikuspegitik; izan ere, publiko hori kultura-edukietara sarrera doan dela normalizatuz hazi da eta atzean dagoen lanaren ideia okerra sortu du.

Kontsultatutako kultura-eragileentzat **Bilbo ez da beti kultura-plaza garrantzitsutzat hartzen.** Nahiz eta onartzen den une jakin batzuetan eta sektore jakin batzuetan (antzerkia Aste Nagusian, adibidez) Hiriaren erreferentzialtasun argia dagoela kulturaren esparruan, hori koiunturazko kontua baino ez da, denboran jarraipenik ez duena; gainera, hori ez da gertatzen beste kultura-sektore batzuetan.

• PROGRAMAZIOA ESKAINTZA

Programazioaren ikuspegitik, bat egiten da arazo berberak diagnostikatzerakoan, **izendatzaile komuna kulturarako irisgarritasuna izanik**. Ikuspegi profesional horretatik, **aisia ez-kontsumistaz eta onargarriak diren kostuz gozatzeko zailtasuna** nabarmentzen da. Kultura eskuratzeko aukera ez duten kolektiboak daudela egiaztatu da; kasu horretan, bereziki azpimarratu da baliabide ekonomikorik eza dela horren elementu baldintzatzailea. Gainera, **kultura-elkarteen jarduerak programatzeko espazioak periferikoak direla** hauteman da.

Bestalde, programazioari buruzko kapitulu honetan, ahulezia gisa aipatzen da ere **burokrazia-mailan jarduerak antolatzeko dagoen eskakizun-maila handia.** Halaber, uste da **arauen gehiegizko zorroztasunak** arriskuan jartzen duela ikuskizunak egitea, musika modernoaren kasuan bezala. Azken finean, legeria garai berrietara eguneratzea eskatzen da.

• EUSKARA

Euskarari buruzko blokean, **euskarazko programazio eskasa** nabarmendu da, eta eragile sektorialek azpimarratu dute **euskarazko kultura-eskaintza ez dela nagusia.** Horregatik, **horren inguruan ekintza-ildo estrategiko bat burutzea eskatzen da.**

Kultura-eragileen ustez, **euskarazko kultura-edukia sortzen duten pertsonek ikusgaitasun handiagoa eta laguntza sendoagoa izan beharko lukete beren lanak finantzatzeko.** Era berean, **euskararen erabilera sustatzen duten tresnak** bultzatu beharko lirateke, hala nola azpitituluak edo prestakuntza-ikastaroak.

Eragileek, oro har, adierazi dute euskararen esparruan **ez direla erabiltzen Bilbok dituen potentziala eta baliabideak.**

• PUBLIKOAK, TALENTUA ETA BALIABIDEAK

Ikuspegi sektorialetik adierazten da **publiko berriak sortzeko politika aktiboak falta direla, batez ere arte eszenikoetan, musika klasikoan eta ikus-entzunezkoen sektorean.** Bat datoz Bilbon ikuskizun eta produkzio oso interesgarriak programatzen direla esatean, baina publikoari bizkarra emanez egiten dela adierazi dute.

Talentuaren ihesa berehala konpondu beharreko mehatxuetako bat bezala identifikatu dute, eta, adierazi dutenez, **sektorearen prekaritatearekin lotuta dago.** Proiektu ertain eta txikiak dira baliabide-eskasiak gehien jasaten dituztenak. Gainera, aipatutako prekaritatearen ondorioz, **agortze orokorra** eta **profesionalizaziorik eza** sumatzen da sektorean, duintasuna galtzen ari baita.

Era berean, hainbat eragile sektorialek **publikoaren eta pribatuaren arteko tentsioa** nabarmendu dute. Alde batetik, hainbat sektorek planteatzen dute **ekitaldi publikoen finantzaketak geldiarazi egiten duela eta baldintzatu egiten duela hazkunde pribatua**; baina, era berean, beste ikuspegi batek dio **publikoa kaltetuta ateratzen dela egitura pribatu handien aurrean**. Ildo horretan, **ikuskizunaren eta *makroekitaldiaren* kultura** aipatzen da adibide gisa; kultura horrek ideia bateratu hori lehenesten du jarraitutasun- eta hurbiltasun-kulturaren aurretik, eta horrek kultura-potentziala alferrik galtzea dakar.

Finantzaketa publikora itzuliz, dirulaguntzen oinarri arautzaileen irizpideen ondorioz gehiegi mugatuta dagoela aipatzen da, eta **horrek sormena asko mugatzen eta baldintzatzen duela. Era berean, ikuskizunen izapidetzean eskakizun burokratiko zorrotzak daudela adierazi dute.** Frustrazio horiek talka egiten dute eragileen bokazioarekin —horrek mantentzen du sektorea bizirik—.

Gainera, finantzaketa publikoaz haratago, **beste finantzaketa-kanal batzuk** (bankuak, SPRI, eta abar) **eskuratzeko zailtasuna** nabarmentzen da, eta **inbertitzaile pribatuak bilatzeko eta erakartzeko** laguntzarik eza aipatzen da. Eragileek azpimarratu dute **zerbitzu bat behar dela bazkide edo inbertitzaile posibleekin harremanak sortzeko**, baterako inbertsiorako tresna gisa.

Prestakuntzaren ikuspegitik, sektoreak dituen hainbat ahulezia ere aipatzen dira. Hala, ikuspegi profesional horretatik, **erakundeen apustu sendoa egin nahi da prestakuntzaren esparruan, bereziki ikus-entzunezkoen sektorean**, egiturak bateratuz eta baliabideak emanez, **esparru horretan benetan erreferentzialak diren zentroak** eduki ahal izateko.

• KOORDINAZIOA

Hemen aztertutako sektore guztietan oro har, besteak beste, **prestakuntza-zentroen, enpresen, erakundeen eta programatutako ekitaldien arteko interrelazio handiagoa behar dela azpimarratzen da**. Erakunde horien arteko komunikazioaren eta koordinazioaren garrantzia nabarmentzen da, eta **komunikazio modu** askoz **arinagoa** eskatzen da.

Eragileen arteko elkarrizketa eta harreman falta horrek beste deribatu batzuk ditu. Kulturaren sektoretik **topagune eta foroen falta** nabarmentzen dute, baita sare operatibo batena ere, eta **sektorearen atomizazioa Bilboko kulturaren ahulezia nagusietako bat dela diote.** Nabarmentzen da askotariko eragileak daudela, mota askotakoak (profil, behar, interes eta egiteko modu oso desberdinekin), modu isolatuan lan eginez, alderatzeko gune eta lekurik gabe. Arazo horrek, ohartarazten denez, **zailtasun handia sortzen du eragileen artean proiektu kolektiboak sortzeko edo kudeatzeko, eta koordinaziorako arazo horiek aipatzen dira kontraprogramazio beldurgarriak gertatzeko arrazoietako bat bezala.**

• KULTURA-AZPIEGITURAK

Sektore profesionalek **malguak** izan beharko luketen **lan-espazioak eskatzen dituzte.** Hala, **udal-espazioak birmoldatzeko eta sektoreen benetako beharretara egokitzeko** premia aipatzen da: arte eszenikoetarako, egoitza artistikoetarako, ikus-entzunezko filmaketetarako eta abarretarako entsegu-espazioak. Gainera, **arte eszenikoen esparruan proposamen artistikoak dibertsifikatzeko**

ezintasuna azpimarratzen da, normalean proposatzen ez diren formatuak eskaintzeko espaziorik ez dagoelako.

Ikuspuntu lokalago batetik begiratuta, **auzoek egitura eta ekipamendu kulturalik ez dutela** azpimarratzen da. Ahulezia garrantzitsutzat jotzen da auzoetako elkarte-ehunak, irabazi-asmorik gabeko erakundeek edo arte eszenikoetako edo musikako konpainiek eta taldeek **entsegu-tokirik edo ikuskizunak eskaintzeko espaziorik ez izatea.**

Fokua gehiago zabalduz, **Bilboren gentrifikazioa eta inflazioaren koiuntura** ahulezia eta mehatxu garrantzitsutzat jotzen dira, hurrenez hurren. Turismoari irekitako hiri bat izatearen bertuteak aitortzen dira, baina horren ondorioak ere azpimarratzen dira; adibidez, filmaketa bat egiteko alokairuko espazio eskuragarriak aurkitzeko zailtasuna.

• PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Oro har, lehen dinamikak eta lana **militantziaren ikuspegitik** mantentzen zirela uste da, eta zalantzan jartzen da gaur egun paradigma hori bera dagoenik. **Profesionalizazioa litzateke aldarrikatzen den testuinguru berria.** Tentsio horrek —nolabait konpondu gabe dagoena—, belaunaldien arteko ordezkapenean eta hedatzeko eta transmititzeko gaitasunean du eragina.

Gainera, eragileek nabarmendu dute haiek **ikusgaitasun eskasa dutela**; besteak beste, **komunikazioaren kudeaketan gabeziak daudelako**, eta, horren ondorioz, komunikazio-politika ez da eraginkorra kultura-espazioetatik, offline publizitate gutxi dago, gaizki planifikatutako eta eraginkortasun txikiko online komunikazioaren aldeko apustua egiten da... Azken batean, **kultura-ekintzaren hedapen eskasa antzematen da.**

Sektorearen iritziz, **egoera horretatik *makroak* ateratzen dio etekina: gertaera eta izen handiei emandako ikuspen eta balio handiegiak** *mikroa* eta iraupen luzeagoa duena alde batera uztea dakar. **Erreferentziazko kultura-zentro handiek kanpoko artistak gonbidatzen eta programatzen dituztela** hautematen da; tokiko elkarte-ehunak, berriz, ez ditu aukera horiek.

Gainera, iraultza digitalak zaildu egiten du sektore batzuek, Liburuarenak zehazki, behar duten arreta jasotzea.

ELKARTEEN IKUSPEGIA

INDARGUNEAK

- ### KULTURA-AZPIEGITURAK

Indargune nagusi gisa, **teknikoki ondo hornitutako eta baliabide eta espazio ugari dituzten instalazioak eta ekipamenduak** daudela azpimarratzen da. Horiek kokapen ona dute eta garrantzitsuak dira, bai Hirian, bai hiritik kanpo.

Era berean, **kultura-erabilerarako dauden kanpoko espazioen aniztasuna** nabarmentzen da, baita espazio horien egokitzapen arkitektoniko egokia ere.

- ### PROGRAMAZIOA: ESKAINTZA

Elkarte-ehunaren arabera, **kultura-programazioa aberatsa eta askotarikoa da.** Nabarmentzeko modukoak dira **kanpoan proiekziorik handiena duten ekitaldiak edo jaialdiak eta kaleko programazio irekia**. Programazio hori oso errotuta dago herritarren artean. Era berean, publiko espezifikoarentzat zuzen bideratuta daudela uste diren jardueren adibideak aipatzen dira, hala nola adinekoentzat zuzendutako San Inazioko dantzaldiak, Bilboko Kalealdia, eskola-antzerkiko kanpaina edo Munduko Arrozak. Azken hori kultura-aniztasunaren jarduera asoziatiboaren adibide gisa.

- ### PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Bereziki nabarmentzen da **biztanleria aktiboa, inplikatua eta parte-hartzailea dagoela. Elkarte-ehunaren belaunaldi-berrikuntza** nahi bada ere, eta pandemia-osteko ohitura aldatzeko presentzialtasuna murrizteak kezkatzen badu ere, elkarteei lotutako eragileen ustez, Bilbok **askotariko elkarte oso egokiak ditu**, eta elkarte horiek Hirian kultura-bizitza garrantzitsua eragiten dute; era berean, herritar kritikoak ditu, kultura-jardueretara joateko gaitasuna dutenak, baita jarduera horien plangintzan eta programazioan parte hartzeko eta konprometitzeko gaitasuna dutenak ere.

Elkarteek azpimarratzen dute biztanleria gero eta askotarikoagoa dela jatorriari eta interes edo jardunbideei dagokienez, eta horrek **hiri multikulturala eta plurala** dakarrela berekin, eta hori balioetsi eta aintzat hartu behar dela. Horren haritik, **Bilbo Zaharra** nabarmentzen da, **artistikoki garrantzitsua den eremu** gisa.

- ### BALIABIDEAK

Elkarteen ikuspegitik, Hiriari eta *Bilbao markari* ikusgaitasuna eta prestigioa ematen dioten ekipamendu edo kultura-proiektu publiko-pribatu jakin batzuen estandarte-papera balioesten da. Potentzial horrek nazioartean erakargarritasuna, turismoaren ondoriozko diru-sarrerak eta optimiza litezkeen beste aktibo batzuk eragiten ditu.

Era berean, oro har, **talde politikoek** kulturarekiko **interesa** dutela uste da, eta **udaleko talde tekniko eta programazioko talde ona** balioesten da.

AHULEZIAK

• KULTURA-AZPIEGITURAK

Elkarte-ehunetik, ahulezia gisa aipatzen da **kultura-jarduerak hartzeko helburuarekin barneko eta kanpoko azpiegiturak hobetzeko marjina zabala.** Zehazki, nabarmendu dute auzo jakin batzuetan ez dagoela espaziorik, edo daudenek premiazko esku-hartzeak edo zabaltzeko lanak behar dituztela.

Parte hartzen duten erakunde gehienek espazio, kokaleku edo azpiegitura erabilgarriak berregokitzeko proposamenak dituzte, **batez ere hirigunetik urrutien dauden edo garraio publikoko sare eskasagoa duten lekuetan.** Nabarmentzekoa da, halaber, gaur egun erabili gabe dauden espazio eskuragarrien erabilera errazteko proposamena.

Ildo horretan, **Udaltegiek jendearentzako duten arreta-ordutegi urria** ere azpimarratu da, eta **aisiako orduetan irekita egoteko ordutegiak zabaltzea** eskatu da, **batez ere asteburuetan.** Egungo ordutegiak bertan dauden baliabideen erabilera eta aprobetxamendua mugatzen duela, eta herritarren zati handi baten kontziliazioa zailtzen duela uste da.

• PROGRAMAZIOA: ESKAINTZA

Elkarteekin lotutako kultura-eragileek beharrezkotzat jotzen dute **ekitaldi gehiago programatzea dauden espazioetan.**

Jardueraren kokapenari dagokionez, **Hiriko zenbait tokitan kultura-eskaintza gehiegi** biltzen direla hauteman da, eta periferian ekitaldi garrantzitsuak eta ekipamenduen banaketa hobea egitea bilatzen da.

Publikoaren ikuspegitik, elkarteek ahuleziatzat jotzen dute, halaber, **gazteei eta nerabeei zuzendutako kultura-eskaintzarik eza** eta **haurren eskaintzan ematen den homogeneotasuna.** Programazioetan **diziplina jakin batzuen** (irakurketa, dantza edo zinema) **presentzia handiagoa** eskatzen da.

• PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Parte-hartzearen ikuspegitik, kultura-elkarteek **biztanle-talde jakin batzuen parte-hartze txikian** jartzen dute arreta, eta, zehazki, kezka agertzen dute **elkarte gehienen publikoetan eta bazkide aktiboetan belaunaldi-erreleborik ez dagoelako.** Era berean, aniztasun soziokulturalerantz aurrera egiten duen baina **parte-hartze kulturalean izaera multikultural hori bideratzen ez duen** Bilboren ikuspegia ere partekatzen da.

Elkarteei lotutako kultura-eragileek azpimarratu dute **sormen-arteen eta -diziplinen arloko prestakuntza-eskaintzarik ez dagoela**, **eta esparru horrek, prestakuntzarenak,** kultura-kontsumoari

buruzko datuetan **eragin zuzena duela uste dute.** Beraz, eskaintza hori udalaren aldetik eta modu deszentralizatuan handitzea proposatzen da.

Deigarria da **kultura-jardueraren komunikazioan** dauden gabeziak, eta komunikazio hori erakargarria, kanal anitzekoa eta auzoetan presentzia duena izatea eskatzen da. Gainera, azpimarratzen da komunikazio digitalak ez dezala ordezkatu alderdi fisikoa eta presentziala, baizik eta osatu dezala eta ikuspegi humanizatu batekin planifikatu dadila.

Era berean, **talde demografiko jakin batzuen parte-hartzeari eta erantzun gabeko nahi eta eskaerei buruzko daturik ez dagoela** nabarmentzen da. Parte-hartze prozesu hori goraipatzen bada ere, ez dela nahikoa uste da, eta **entzute aktiboko espazioak eskatzen dira** programatutako kultura-ekintzan parte hartzen ez duten herritarren interes kulturalak hautemateko.

Parte-hartzearen kapituluari amaiera emateko, elkarteek adierazitako ahulezien artean ikusten da beharrezkoa dela gazteentzako eta langabeentzako **deskontu- edo doakotasun-politika** ezartzea.

• IKUSGAITASUNA ETA BALIABIDEAK

Kapitulu zehatz honetan ahulezia nagusia, zalantzarik gabe, **gizarte-mailan elkarteen lana ez aitortzea** da. Uste da Hiriko kultura-elkarteek **ikusgaitasun-gabezia** handia dutela komunitatearen sorrera-elementuei eta kultura-garapenari dagokienez, nahiz eta Bilboko kultura-ekimen askoren erantzule zuzenak izan.

Herritarren erakundeen **eskura jarritako baliabideei** dagokienez, **baliabide faltaren pertzepzioa** dago, eta, horren ondorioz, lantaldeak txikiak dira, sektorean lan egiten duten pertsonak gainezka daude, eta programa egonkorrak abian jartzeko eta garatzeko zailtasunak dituzte.

Gainera, elkarte soziokulturalentzako biltegiratze, entsegu edo lantegiak egiteko **lagatzen dizkieten espazioen falta** sumatzen da. Era berean, **udal-ekipamenduak, -materialak eta -baliabideak eskuratzeko zailtasuna** nabarmentzen da.

Halaber, elkarteek aipatu dute **gero eta konplexutasun handiagoa dagoela eskatutako burokrazian eta protokoloetan**, eta izapide horietan **laguntzea** edo Udalak izapide horiek benetan erraztea **eskatu dute.**

• KOORDINAZIOA

Kultura-elkarteen ikuspegi horretatik, bat datoz Udalarekin (eta haren Sail desberdinekin, kultura-arloko jarduketak eta/edo eskumenak burutzeko) **hobeto koordinatzeko tartea dagoela** adieraztean.

Hala ere, nabarmendu behar da puntu honetan **elkarteek bi ikuspegi desberdin erakusten dituztela**. Alde batetik, Udalak lider eta bideratzaile gisa beste rol bat izatea nahi dutela adierazi dute, jardunbide kulturala eta herritarren parte-hartzea artikulatuz; bestetik, eguneroko bizitzan autonomia handiagoa izatea nahiago duten elkarteak daude, non Udalaren eginkizuna espazio eta baliabideak ezartzera bideratuagoa egingo den.

Nolanahi ere, bi ikuspegiak bat datoz esatean **lan-prozesuak optimizatu ahal izango liratekeela sailen arteko eta herritarrekin lankidetza eta komunikazio handiagoa izanez gero.**

HERRITARREN IKUSPEGIA

INDARGUNEAK

• PROGRAMAZIOA

Indargune gisa, **azken hamar urteetan programazioaren hobekuntza handia** nabarmendu da, kaleko kultura-eskaintzan eman den jauzi kualitatiboa eta kulturak nazioartean erakarpena sortzeko duen trakzio-papera azpimarratuz.

Bilbon musika-sektoreak erakusten duen sendotasuna da herritarren ikuspegitik nabarmentzen den beste indarguneetako bat. Bilbon programazioak musika-jarduerako errepertorio zabala eta askotarikoa duela uste da. Hainbat kontzertuk, musikalek eta orkestrak osatzen dute errepertorio hori, eta diziplina horretaz gozatzeko aukera ematen dute. Hiriko abesbatzen eta musika-taldeen kopuru handia ere aipatzen da.

• EUSKARA

Euskal Museoa handitzea nabarmentzen da indargune gisa, **euskal kulturara hurbilketa bultza dezakeela** interpretatzen baita, zeharka, euskararekiko ikusgaitasuna eta interesa sortuz.

• AZPIEGITURAK

Parte-hartzaileek **oso modu positiboan** baloratzen dituzte kultura-ekipamenduen **kalitatea, funtzionaltasuna eta irisgarritasuna.** Uste da Bilbok barne- eta kanpo-espazio ugari dituela, kultura-jarduerak eta-ekitaldiak garatu ahal izateko.

AHULEZIAK

• PROGRAMAZIOA

Herritarrek uste dute **kultura-eskaintza zabala, askotarikoa eta orekatua** izan behar dela, **gune periferikoenak kontuan hartuta** eta hazkunde azkarreko auzoak —adibidez, Bolueta— barne hartuta. Horregatik, eskaintzan aniztasun handiagoa egotea eta **kultura alternatiboa, arte plastikoak, dantza eta zinema sustatzea** gomendatzen dute. Proposamen berritzaileak, freskoak eta zuzeneko musika gehiago nahi dira.

Egutegiari dagokionez, nolabaiteko desoreka antzematen da: **eskaintza gehiegi dago udan** eta **oporrekin bat egiten duten urteko garaietan**, eta **jaialdi eta jardunaldi ugari daude**, baina urtean zehar programa egonkorragoak falta dira.

Publikoaren ikuspegitik, uste da **adinekoek ez dutela beren intereseko jarduerarik aurkitzen.** Era berean, uste da **haurrei** zuzendutako arte eszenikoen eskaintza ez dela oso berritzailea.

Gazteei eta nerabeei dagokienez, uste da ez dagoela eskaintza erakargarririk 12 eta 18 urte bitartekoentzat, eta 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako kultura-programazioa urria eta ez oso egokia dela.

- ## KOMUNIKAZIOA

Herritarrek atal hau kultura-jardueraren ahulezia nagusietako bat dela uste dute. Bat datoz **komunikazioa hobetzeko premian**, baita **inklusibitatetik** egiteko beharrean ere. Ildo horretan, uste da komunikazioak **adinekoak** hartu behar dituela kontuan, hain digitalizatuta ez dauden kolektiboak baitira. Beraz, **ezin dira baliabide guztiak Interneten jarri dibulgazio-metodo bakar gisa.**

Inklusioa errazteko, **dibertsitate funtzionala edo sentsoriala duten pertsonentzako komunikazio-estrategiak pentsatzea gomendatzen da.**

Dimentsio digitalari dagokionez, **sare sozialak** edo kanal berriak nolabaiteko ikuspegi estrategikoarekin eta ondo planifikatuta erabili behar direla uste da, batez ere publiko gaztea helburu gisa jartzearen alde egiten bada.

- ## BALIABIDEAK

Bilboko herritarrak bat datoz kultura-jarduerari **laguntzen eta finantzaketaren bidez** babesa emateko premian. Berariaz eskatzen da **auzotarren kultura-jarduerei** laguntza ematea (doako baliabide ekonomikoen, bitartekoen eta lokalen bidez), eta **eskualdeko jarduerei** (Bilboko kultura-identitatearen zatitzat hartzen direnak) eta **ekimen pribatuei** ikusgaitasun handiagoa ematea, batez ere arte-galeriei eta artista plastikoei.

Gainera, uste da gehiago finantzatu behar direla **sortzen ari diren** kultura-eragileak eta produkzio artistikoaren **hazkundea eta proiekzioa** bultzatzen duten proiektu guztiak. Era berean, kultura-sektoreko langileei egonkortasuna emateko apustua egiten da, baliabide publikoen bidez, **lan-prekaritateari** aurre egiteko.

- ## EUSKARA

Herritarrek **euskarazko programaziorik eza ahulezia garrantzitsutzat** jotzen dute, eta **hizkuntza horrek** kultura-azpiegitura nagusietan **presentzia** handiagoa izatea eskatzen dute.

Ildo beretik, **haurrei zuzendutako euskarazko programazio** urria nabarmentzen da. Gainera, bat datoz esaterakoan **oso zentralizatuta dagoela eta auzoetan presentzia txikia duela.**

• AZPIEGITURAK

Azpiegituren kapituluaren ahulezia nagusia **auzoen arteko azpiegituren (eta programazioaren) banaketan dagoen desorekari** dagokio. Berriro aipatzen da Miribilla edo San Adrian bezalako auzoek ez dutela erreferentziazko kulturgunerik, ezta ia jarduerarik ere; beste auzo batzuetan, berriz, hala nola Alde Zaharrean, askoz ere jarduera gehiago dituzte eta Arriaga Antzokia gune enblematikoa.

Zehazki, Deustuko Udaltegiko (Bidarte) erakusketa-aretoa berreskuratzea eskatzen da, eta Castaños, San Inazio- Ibarrekolanda eta Santutxuko udaltegietan hobekuntzak eskatzen dira, Begoña, Abando eta Ibaiondo erreferentziatzat hartuta.

• PARTE-HARTZEA

Herritarrek adierazten duten ahulezia nagusietako bat da **kulturarteko esparruari ez zaiola behar adinako arretarik ematen.** Beharrezkotzat jotzen da **parte-hartze kulturala sustatzea, aniztasuna bultzatuz**.

Era berean, eta modu osagarrian, **dibertsitate** intelektuala, fisikoa edo sentsoriala duten **pertsonentzako jarduerak** sustatzearen balioa azpimarratzen da, baita **gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak** kultura-eskaintzaren partaide izan daitezen bermatzearen balioa ere. Herritarrek erakusten dute nolabaiteko defizita dagoela ikasketa gutxien edo diru-sarrera txikien dituzten pertsonek kultura eskura izateko aukeran.

Oro har, herritarrek kultura-politika **parte-hartzaileagoa, oinarrizkoa eta auzokoa** nahi dute, parte hartzeko eta gobernatzeko tresna gisa elkarrekin sortzea sustatuko duena.

ZEHARKAKO IKUSPEGIA

INDARGUNEAK

• BALIOA ETA IKUSGAITASUNA

Zeharkako mahaietan parte hartu zuten kultura-eragileen iritziz, gizartean dagoen aniztasuna da Bilboko ekosistema kulturalaren indargune nagusietako bat. Hiriko herritarrak gero eta anitzagoak dira eta inplikazio handia erakusten dute auzoetako bizitza kulturalean. Azpimarratzekoa da, halaber, **artistek gizarte-arloarekin lotutako proiektuei egindako ekarpen garrantzitsua.**

Balio eta ikusgaitasuneko blokearen barruan aipatzen den beste indargune bat litzateke kulturak, *per se*, balio handiko elementuak GJHei emateko duen gaitasuna, generoaren, enplegagarritasunaren, inklusioaren eta abarren ikuspegitik. Prozesu hori, gainera, lagungarria izan daitekeela uste da kontzientzia sortzeko eta hausnarketa egiteko.

Azkenik, oso puntu positibo gisa azpimarratzen da, halaber, Bilboko gizarteak aintzat hartzen duela **auzoei** arreta emateko eta haien ezaugarri desberdinetara egokitzeko udalak, ahal duen neurrian, egindako ahalegina.

• GENERO-IKUSPEGIA

Emakumeak kultura-kontsumoaren zati handi baten atzean egotea ere indargune gisa ikusten da. Bereziki azpimarratzen da Bilbon emakumeek kultura inplikatzen duten ekitaldi eta ikuskizun guztietan parte hartzen dutela, haien tipologia kontuan hartu gabe eta zentzu zabalenean: lantegiak, hitzaldiak eta abar.

Adierazi da, gainera, **sorkuntzaren esparruan** gero eta **emakume gehiagok garatzen dituztela proiektuak** —nahiz eta horiek tamaina txikikoak diren nagusiki—; era berean, nabarmendu da emakumeek oso gutxi garatzen dituzten adierazpen batzuk badaudela, hala nola komedia; izan ere, bertan nagusiki gizonek jarduten dute.

• PROGRAMAZIOA

Azterketa orokor gisa, **paradigma enpresarial eta artistikoaren aldaketaz** ohartarazten da, eta hori sendotasun eta aukera gisa ikusten da. Aldaketa horrek eragin argia du arte eszenikoen esparruan; izan ere, azken urteetan enpresa handi gutxi batzuk egotetik autonomo eta egitura txiki ugari izatera igaro dela adierazi dute. Horrek, lehia areagotzea dakarren arren, enpresa-tamaina apalagoko proiektuetarako tarte bat aurkitzea ere ahalbidetzen du. Horrek Hirian **programazio egonkorra** egotea dakar, eta ondorioz **sektoreko konpainia eta enpresa batzuek** gutxieneko **egonkortasuna** izatea ahalbidetzen du.

- ## BALIABIDEAK

Udal-baliabideei buruzko kapituluan hainbat indargune hauteman dira. Alde batetik, **azaltzen ari diren artistentzako azken urteetan bekak eta baliabideak handitu egin dira**, eta kalitatezko eta erabateko prestakuntza-eskaintza hobetu egin da. Bestalde, nabarmentzekoa da **potentzial digitalak egiten duen ekarpena**, Udalak komunikazioa hobetzeko egin dezakeen apustu gisa.

Azkenik, **Udalak kultura-kontsumoa sustatzeko erabiltzen dituen baliabideei** balioa ematen zaie, **Kultura Bonua** eta oso errentagarritzat jotzen diren beste sustapen batzuk bezalako kasu arrakastatsuekin.

- ## KOORDINAZIOA

Zeharkako mahaietan parte hartzen duten kultura-eragileek **hasieratik nabarmentzen dute hibridazioaren kontzeptua.** Aukera gisa hartzen da, garapen-prozesuan baitago. Bilbo **industria** garrantzitsua eta ***startup*** **harrobi** oso **indartsua** dituen lurraldea da. Ekosistema hori egoteak tokiko sortzaileak inplikatzen ditu eta horiei arreta ematen die, programa ziklo eta jaialdi tematikoetan segmentatuz.

Gure Zinemak, adibidez, eskaintzen dituen jarduerak (filmaketa irekiak, zuzendariak bertan daudela pelikulak aurkeztea edo estra gisa parte hartzeko aukera barne) **esperientzia zabalduetara irekitzea** jartzen da aurrekoaren adibidetzat.

- ## KULTURA-AZPIEGITURAK

Hirian sorkuntzarako espazioak daudela nabarmentzen da, baita kulturari esker berdintasun soziala sustatzen duen asoziazionismo eta militantzia kultural historikoa ere. Kultura-zentroen eta -ekipamenduen hedapen horrek, sorkuntza bultzatzeko programekin lotuta, tokiko kultura-bizitza ikusarazten duen ekosistema oso bat sortzen duela uste da.

Gune zehatzez gain, **Bilbok** Europan duen **kokapena** eta Erresuma Batuarekin, Frantziarekin eta penintsulako gainerako lekuekin duen harremana nabarmentzen dira. Horrek **kultura-ekitaldi** garrantzitsuak bertara erakartzeko aukera ematen du. Hiriak **marketin** ona du eta bide horretan aurrera egiten jarraitu behar du.

- ## PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Parte-hartze kulturalaren indargune nagusiak honako hauek dira: Hiriko **herritarrek gero eta kultura gehiago kontsumitzen dute** eta **sorkuntza amateurrak gora egin du**, irakurtzen duen, filmak aretoan ikusten dituen eta antzerkira joaten den ikusle pasiboagoaren aurrean (Kulturaren Euskal Behatokiaren azken datuek hala adierazten dute).

Kulturaren zeharkako ikuspegi horretatik, azaltzen ari diren artista gazteen **gogo bizia** ere nabarmentzen da, prekaritatea dagoen arren. Azkenik, **GJH**ak praktikan jarri direla nabarmentzen da, horiei buruzko teorizazioa egitetik aurrekontuetan baliabideak esleitzera igaro baita.

AHULEZIAK

• BALIOA ETA IKUSGAITASUNA

Zeharkako diskurtsoaren eta Bilboko sormenarekin duen erlazioaren puntu nagusi gisa, **kultura-kontakizunaren hauskortasuna** azpimarratzen da ahulezia nagusitzat; horren ondorioz, askotan kultura elitistatzat edo garestitzat jotzen du horrekin lotura gutxien duen gizartearen zatiak. Horrenbestez, zeharkako mahaietan parte hartzen duten eragileek ikusi dute kultura, oro har, **hobeto ezagutzea falta dela**, alderdi eta diziplina guztietan.

Kulturaren eta GJHetan eskubide kulturalen ikusgaitasun eskasa modu pedagogikoan konpontzea sektorearentzat beharrezkoa den zeregin gisa planteatzen da. **2030 Agenda zer den eta eskubide kulturalak zer diren argitu** behar da. Nabarmendu da herritarrek askoz argiago dutela zer diren giza eskubideak edo hizkuntza-eskubideak.

Beste ahulezietako bat zuzenean lotuta dago **GJH**etan kultura ez egotearekin. Ildo horretan ikus daiteke, protagonismoa hartzen ari bada ere, oro har ez dagoela behar beste edo estrategikoki baloratuta. Era berean, ohartarazi da **GJHak instrumentalizatzeko arriskua dagoela**, baita diru publikoa lortzeko helburu bakarrarekin ere. Hala, **aurrekontuari dagokionez Bilbon garatutako proiektu kulturalek GJHak betetzen dituzten ebaluatzea** proposatzen da.

Azterketa horretan, berriz ere kultura aipatzen da, **dirulaguntzen** mende dagoen **sektore prekarioa** den aldetik; hala, planteatzen da, dirulaguntza horiek desagertuz gero, Bilboren kultura-sustapenerako funtsezkoak diren jarduera batzuk ere desagertuko liratekeela.

Zeharkako ikuspegi horretatik, **kulturaren** bidezko **garapen ekonomikoaren ikuspegi integrala duen estrategia falta dela** sumatzen da. Beharrezkotzat jotzen da **ikuspegi eta ekintza zeharkakoagoa sustatzea**, kulturaz baliatuz beste esparru batzuetan ere lan egiteko. Bestalde, kulturaren berezko balioa aldarrikatzen da, inpaktu ekonomikoa bilatzeak dakarren etengabeko hertsadurarik gabe. Beharrezkoa da **gizarte-eraginaren ikuspegitik baloratzen eta ebaluatzen hastea.**

Parametro monetarioaren barruan kokatzen dute, jakina, **prekaritate** orokortua eta, zehazkiago, **kontratazio artistikoa arautzeko beharra**, hori ezinbestekoa baita lan-baldintza duinen kontrola lehenesteko.

• GENERO-IKUSPEGIA

Laneko eta lan- eta bizi-baldintzetako prekaritate hori kulturaren esparruko emakume profesionalen errealitatean islatzen da bereziki. Zentzu horretan, gainera, egiaztatu da autoustiapeneko dinamika konplexuak daudela, denboran kronifikatuak.

Bilboren testuinguruan, maskulinizazio sektorialeko egoerak ikusten dira. Bilboko antzerki-eszenan emakume zuzendari gutxi dagoela nabarmentzen da. Bestalde, adierazi da **kultura-programazioaren**

sail gehienak gizonek betetzen dituztela, eta datu hau ematen da: mota horretako lanpostuen % 31 baino ez dute betetzen —esparru publikoan— emakumeek.

Halaber, **ekitaldi kulturaletara joatean emakumeen motibazioak sakonago ezagutzeko beharra** aipatu da, hau da, emakumeak publiko-profil gisa gehiago ezagutzea. Horretarako, analisi gehiago egin **behar direla** aipatu da, diagnostiko estatistiko espezifiko gehiago.

Nabarmentzekoa da, gainera**, garatzen den kultura-programazioa, oro har, emakume mota jakin bati zuzenduta dagoela:** zuria eta posizio sozial jakin batekin. Ekitaldien programaziotik, azken batean, salatzen da **emakumeak askotarikoak direla pentsatzea zaila dela.**

Prestakuntzaren ikuspegitik, halaber, **emakumeek sortutako eta garatutako proiektuek aurrekontuetan duten babes eskasa** azpimarratzen da, kontuan hartuz, gainera, desabantaila-egoera batetik abiatzen dela. Datorren **krisi ekonomikoak kulturan eta, zehazki, emakumeek sortutako kulturan egindako gastua gehiago murrizteko** balioko duela susmatzen da.

Azkenik, **publiko objektiboei zuzendutako komunikazio-estrategia** aipatzen da. Zehazki, kulturaren ikuspegi zeharkakoago horretatik, uste da **komunikazio-ekintzarako kontuan hartzen diren publiko objektiboari buruzko adierazleek ez dutela genero-ikuspegia barne hartzen**, eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko premia eta errealitate diferentzial eta desorekatuak baztertzen dituztela.

• PROGRAMAZIOA

Horren inguruan, zeharkako lan-mahaietan parte hartzen duten eragileek adierazi dute **ez dagoela programazio egonkorrik Hirira joaten den turismorako.** Bilbok turismoaren sektorean modu estrategikoan posizionatzeko egin duen apustua balioetsi da, baina ohartarazi da gaur egun ez duela Hiriaren ohikoak direnetatik kanpo **elementu eta programazio alternatiborik** bisitariek ordezkatzen dituzten publikoaren profil desberdinei begira.

Publiko gaztearengana iristeko zailtasuna ere aipatzen da. Ikusten da **gero eta alde handiagoa dagoela prestakuntza-eskaintzaren eta/edo kultura-jardueren eskaintzaren eta horiek zuzenduta dauden gazteen artean.** Zaila da gazteen interesekin konektatzea eta haien **gako eta kodeekin** komunikatzea.

Era berean, **adinekoentzat ez dago bermatuta kultura eskura izatea.** Eta **Hiriaren periferian sortutako proposamenetarako publikoa erakartzeko zailtasuna** ere azpimarratzen da.

Azkenik, kulturarekin eta bere adierazpenekin komunak diren bi elementu azpimarratzen dira: eskaintzari edo **deskontuari** ematen zaion gehiegizko balioa, eta **euskara** kultura-programazioan hizkuntza minoritarioa izaten jarraitzea.

Ekipamenduetako jarduerarekin lotuta, positiboki baloratzen bada ere, uste da eraginkortasuna galtzen duela **eskaintzaren saturazioagatik**, kontsumoa desanimatzen duela eta **gehiegizko lehia** sortzen duela urteko hilabete batzuetan. Alde horretatik, faltan botatzen da **erreferentziazko zentro eta ekipamendu nagusien programazioen artean oreka handiagoa.**

• BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, **esparru pribatutik babesletzarik edo konpromisorik eza** aipatzen da. Marka handiek ez dituzte babesten tamaina ertaineko ekitaldiak edo jarduera berrienak, eta, beraz, alde batera geratzen dira programazio berritzaileagoak. Era berean, adierazten da babesleak ez daudela lurraldean finkatuta, eta beharrezkoa dela ***mezenasgo aktiboaren*** kontzeptua bultzatzea.

Horren harira, zeregin artistikoaren osagarri diren zereginetan, hala nola banaketan edo administrazioan, **prestakuntza-eskaintzarik** ez izatearen arazoa aipatzen da.

• KULTURA-AZPIEGITURAK

Azpiegituren kapituluan ahulezia nagusia da **espazio eta ekipamendu gehiago behar direla oro har, eta, bereziki, sortzen ari diren kultura-eragileentzat sorkuntza-egoitzarik ez dagoela** eta entseatzeko behar bezain ondo egokitutako espaziorik ez dagoela diagnostikatzen da; halaber, kultura-ekitaldien aurretik edo ondoren topaguneak edukitzeko beharra dagoela adierazten da. Gainera, publiko berria erakartzeko edo haurrentzako ekitaldi desberdinak eskaintzeko bestelako kultura-jarduerak programatzeko espazio gutxi daudela ere aipatzen da. Horren haritik, **jardunbide egokien** kasu gisa **ABAOren Opera Txikia** aipatzen da.

Azkenik, Bilbon Dantza Kontserbatorio bat sortzea aldarrikatzen da, oinarrizko graduaren eta goi-mailako graduaren artean prestakuntza-hutsunea dagoelako.

• PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Komunikazioaren eta parte-hartzearen esparruan, hainbat ahulezia hauteman dira, **komunikazio-estrategia eremu digitalera gehiegi bideratzearekin** lotuta. Ildo horretan, aipatzen da sareen **algoritmoaren** pisuak proposamen asko ikusezintasunera kondenatzen dituela, estrategia digitalen esklabotza sortzen duela eta Sare Sozialetako publizitatean gutxiago inbertitzen dutenak baztertzen dituela.

Era berean, **publiko objektiboei dagokienez komunikazio-estrategia** eguneratzeko beharra aipatzen da. Zehazki, zeharkako mahaietako eragileek azpimarratzen dute **publikoen profilen segmentazioa jada zaharkituta dauden adierazleetan oinarritzen dela**, datu demografikoei gehiegizko garrantzia emanez eta **ohiturari, egindako kontsumoari edo interes-eremuei buruzko informazio kualitatiborik sartu gabe.** Gainera, Udalak antolatutako doako eta aire zabaleko ekitaldien kasuan, publikoak ezagutzeko benetako zailtasuna sumatzen da.

Parte-hartzearen atalean identifikatutako beste ahulezia bat eskubide kulturalekin lotuta dago. Zehazki, uste da **lan egin behar dela eskubide horiek haurtzaroan duten garrantziaz jabetzeko, haurren kulturarako irisgarritasuna erabat baldintzatzen baitute ezaugarri sozial, ekonomiko eta kulturalek.** Azken batean, haurrek hazten direnean kulturarekiko erakusten duten atxikimendua haurtzaroan kulturarekin izan duten harremanarekin oso lotuta dagoela uste da.

Azkenik, kapitulu honi amaiera emateko, **aurrerapen gutxi antzeman dira parte-hartze kulturalean izan den gizarte-aniztasunari dagokionez**, kontzientzia handia dela uste den arren. Bereziki adierazten da dibertsitate funtzionala duten pertsonek kulturarako duten irisgarritasuna mugatua dela, batez ere esparru profesionalari dagokionez.

DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN LABURPEN GRAFIKOA

KOMUNIKAZIOA ETA IKUSGAITASUNA

ONLINE ETA OFFLINE KOMUNIKAZIOA HOBETZEA

Kultura-jardueraren komunikazio-plan bat behar da (helburuak, audientzia segmentatua, tresnak...), **komunikazio erakargarria, kanal anitzekoa eta auzoetan presentzia duena** bermatzeko. Azpimarratzen da, gainera, **esparru digitalak ez duela euskarri fisikoa eta presentziala ordeztu behar, osatu baizik.**

ESTRATEGIA XEDE-PUBLIKOETARA BIDERATZEA

Komunikazio-estrategia eguneratu behar da publikoengana iristeko, eta ohitura, interes edo kontsumo kulturalari buruzko profilen araberako informazio kualitatiboa sartu.

PUBLIKO GAZTEARENTZAKO KOMUNIKAZIO ESPEZIFIKOA

Publiko gaztearengana iristeko plan espezifiko bat behar da. **Sare sozialek eta online inguruneak funtsezko eginkizuna betetzen dute.** Ongi planifikatutako eta haien ohituretara bideratutako online presentzia funtsezkoa da publiko gaztea xedetzat hartzearen aldeko apustua egiten bada.

TOKIKOARI IKUSGAITASUN HANDIAGOA EMATEA *MAKROA*REN AURREAN

Tokiko kultura-eragileentzako eta elkarteentzako ezagumendu soziala indartzea, Hiriko kultura-ekimenetako askoren zuzeneko erantzuleak dira-eta. Ahal dela, ***mikroa* eta tokikoa komunikazioari dagokionez alde batera uztea saihestu behar da.**

BILBOK KULTURA-PLAZA GISA DUEN ERREFERENTZIALTASUNA LANTZEA

Bilbo ez da beti hautematen kultura-plaza nabarmen gisa. Hiriak duen erreferentzialtasun sektoriala (adibidez, antzerki-esparruan) kultura-ekosistema osora zabaltzeko lan egin behar da.

KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA BULTZATZEA

Babesletza sustatu eta kultura-sektorearen jasangarritasuna bultzatuko duen **lankidetza publiko-pribatuaren eredu sendoago bat**en aldeko apustua egiten da.

ESKUMEN-MUGAKETAREN OZTOPOAK GAINDITZEA

Erronka gisa ezartzen da **eskumen-mugaketak sortzen dituen oztopoak gainditzea**, arloen eta kultura-ekipamendu handien arteko koordinazio edo erlazio falta sortzen baitute. Askotan, **koordinazio falta horrek gainjartzeak eragiten ditu programazioan.**

ATOMIZAZIOAREN AURREAN LANKIDETZA ERRAZTEA

Kultura-eragileen arteko foroak eta topaguneak bultzatu behar dira sektorearen atomizazioari aurre egiteko. Askotariko eragileak daude, oso tipologia desberdinetakoak (profil, behar, interes eta egiteko modu oso desberdinak dituzte), eta modu bakartuan lan egiten dute.

KULTURAREN ESPARRU GUZTIAK ERLAZIONATUKO DITUEN SARE BAT EHUNTZEA

Interrelazio handiagoa sorkuntzari eta programazioari lotutako **ikastetxe, enpresa, erakunde eta kultura-eragileen artean.** Funtsezkoa da erakunde horien arteko koordinazioa. Era berean, komunikazio-modu askoz ere arinagoa behar da.

KULTURA SAILA LEHEN LEIHO GISA

Kultura Sailaren aprobetxamendua maximizatzea, politikaren eta kultura-jardueraren lehen leihoa den aldetik, Bilboko kultura-ekosistemaren barruan betetzen duen **eragile hurbil, inplikatu eta irisgarriaren rola baliatuta.**

AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

SEKTOREEN BEHARREI ERANTZUNGO DIETEN ESPAZIOAK

Udal-espazioak birmoldatzea eta egokitzea, sektoreen benetako beharrei erantzun diezaieten: entsegu-espazioak, sorkuntza-egoitzetarako, filmaketetarako, emanaldietarako edo erakusketetarako.

EKIPAMENDUEN BANAKETA AUZOKA OREKATZEA

Kultura-jarduerak hartzeko barneko eta kanpoko azpiegitura eta ekipamenduen banaketan hobekuntza-tarte zabala dago. Zehazki, **barruti jakin batzuetan espaziorik ez dagoela edo daudenek presako esku-hartzeak behar dituztela nabarmentzen da.**

ERABILTZEKO BALDINTZAK HERRITARREN ESKARIEN ARABERA EGUNERATZEA

Udaltegien ordutegiak herritarren benetako beharren arabera eguneratzea; batez ere, ordutegia asteburuan zabaltzea. Era berean, udalaren kultura-ekipamenduen **espazio fisikoa egokitzea, irisgarritasuna hobetzeko, oztopoak kenduz eta publikoen aniztasuna kontuan hartuz.**

ELKARTEEI ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDURAKO IRISPIDEA EMATEA

Kultura-elkarteei, irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo konpainia eta talde amateurrei zuzendutako ekipamenduak eta egitura hobetzea. Biltegiratzeko, entseguetarako edo lantegietarako espazioak falta dira elkarteei lagatzeko. **Udalaren ekipamenduetarako, materialetarako eta gainerako baliabideetarako irispidea erraztu behar da.**

ESPAZIO PUBLIKOAREN ALDEKO APUSTUARI EUSTEA

Herritarrek positiboki baloratzen dute udalak kalerako egiten duen kultura-programazioa, eta txalotu egiten dute Hiriak **espazio publikoan kultura-ekintza doan eskaintzearen alde egiten duen apustua.**

PARTE-HARTZEA ETA PUBLIKOAK

IKUSPEGI GAZTEAREN INTEGRAZIOA

Lehentasunezkoa da **programatutako kultura-ekintzan ikuspegi gaztea sartzea.** Funtsezkotzat jotzen da publiko gaztea erakartzea, **parte hartzeko eta aktiboki entzuteko prozesuetatik abiatuta**, biztanleriaren talde horri berariaz doitutako kultura-eskaintza egin ahal izateko.

DATUETAN OINARRITUTAKO ANALISIA

Parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten pertsonen **parte-hartzeari eta kultura-eskaerei buruzko datuak biltzeko eta ustiatzeko estrategia bat behar da**. Haien beharrak, balorazioak eta bertaratze-datuak ulertzeko funtsezko analisi-elementuak dira.

PUBLIKOAREN ERRONKA: FIDELIZAZIOA ETA BILAKETA

Publiko berriak sortzeko politika aktiboak egiten lan egin behar da, batez ere arte eszenikoetan, musika klasikoan eta ikus-entzunezkoen sektorean. Gainera, **parte hartzen duen publikoa fidelizatzeko politika publikoen beharraz** ohartarazten da.

ANIZTASUN SOZIOKULTURALA

Bilbok aurrera egiten du aniztasun soziokulturalerantz, baina **izaera multikultural hori ez da bideratzen parte-hartze kulturalera**. Kultura inklusiboa sustatzearen balioa azpimarratzen da, eta, horretarako, **dibertsitate intelektuala, fisikoa edo sentsoriala duten pertsonei eta gizarte-bazterketako arriskuan daudenei kulturarako irispidea** bermatu beharra.

GERO ETA KULTURA-KONTSUMO HANDIAGOA

Hirian **gero eta handiagoa da kultura-kontsumoa, herritar aktibo, inplikatu eta parte-hartzaileen aldetik**. Gainera, **Bilbok elkarte-ehun zabala eta askotarikoa du,** kultura-bizitza garrantzitsua sortzen duena, eta herritar kritikoak eta kultura-jardueretara joateko nahiz horien plangintzan eta programazioan parte hartzeko eta konprometitzeko gaitasuna dutenak.

PROGRAMAZIOA

OREKA, EGONKORTASUN ETA KOORDINAZIO HANDIAGOA

Kultura-eskaintza orekatua (barruti guztietan diziplina guztien presentziarekin) **eta egonkorra bermatzea,** kultura-eragileei nolabaiteko **finantza-oreka lortzen laguntzeko.** Gainera, funtsezkoa da Hiriko eragile programatzaileen arteko koordinazioa lantzea, **ekitaldien arteko gainjartzeak eta lehia saihesteko.**

ERDIGUNEAREN ETA PERIFERIAREN ARTEKO ESKAINTZAREN BANAKETA

Hiriko puntu batzuetan kultura-eskaintza gehiegi kontzentratzen dela hautematen da. Periferian ekitaldi garrantzitsuak nahi dira, baita **auzoetan hurbileko kultura indartzea** ere.

PROGRAMAZIO ASKOTARIKOAGOA ETA BERRITZAILEAGOA

Kultura-eskaintza zabala, askotarikoa eta aniztasun handiagokoa bultzatzea, kultura alternatiboa, arte plastikoak, dantza eta ikus-entzunezkoak indartuz. **Proposamen berritzaileak eta egungoak ez bezalakoak** nahi dira.

INPAKTUAREN ETA NABARMENTASUNAREN DIAGNOSTIKOAK

Udalaren **kultura-jardueren inpaktua ezagutzera eta datuak ustiatzera zuzendutako lan-prozesuak abian jartzea**, Hiriko programazioari buruzko erabakiak hobeto hartzeko.

KULTURARAKO IRISGARRITASUNA BERMATZEA URTEKO 365 EGUNETAN

Urteko 365 egunetan kultura-programazioa eskaintzeko apustua indartzea, eta biztanle guztiei hura irispidean izatea bermatzea, kultura-agenda askotariko eta erakargarriaren bitartez.

BALIABIDEAK ETA FINANTZAKETA

TALENTUA ATXIKITZEKO ETA PREKARITATEA GELDIARAZTEKO BALIABIDE GEHIAGO

Talentuaren ihesa sektoreko lan-prekaritatearekin lotuta dago, batez ere antzerkia, musika klasikoa, ikusmen-arteak edo ikus-entzunezkoak bezalako esparruetan. Proiektu ertainak eta txikiak dira kaltetuenak, eta baliabide publikoen bitartez egonkortasuna ematearen aldeko apustua egiten da.

PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO BIZIKIDETZA

Bi esparruen arteko oreka mantentzea da, zalantzarik gabe, udalaren kultura-politikaren desafio nagusietako bat.

BUROKRAZIA MURRIZTEA ETA IRIZPIDE PRAKTIKOAGOAK IZATEA

Finantzaketa publikoa **mugatuegia dago, eta oso irizpide zurrunak ditu laguntza-deialdietan. Horrek sakonki mugatu eta baldintzatzen du sormena.** Gainera, finantzaketa eskuratzeko erraztasunak eman beharko lirateke, eta **eskakizun burokratiko txikiagoak ezarri laguntzak tramitatzean.**

APUSTU GEHIAGO ESPARRU PRIBATUTIK

Esparru pribatutik **bitartekaritzan lan egitea edo babesletza eta konpromisoa erraztea**. Ekimen pribatuek tamaina ertaineko ekitaldiak edo programazio berritzaileagoak ere babes ditzaten bultzatzea.

KULTURARI LAGUNTZEKO KONPROMISOA MANTENTZEA

Udalak **kultura-kontsumoa** (KULTURA BONUA bezalako kasu arrakastatsuekin) **eta sorkuntza eta programazioa bultzatzearen aldeko apustuarekin jarraitu** behar da, pandemian bereziki gertatu zen bezala.

EUSKARA, BERDINTASUNA, ANIZTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

GENERO-BERDINTASUNEAN SENTSIBILIZATZEA ETA PRESTATZEA

Titulartasun publikoko **espazioetako programazioaz arduratzen diren langileak genero-berdintasunean sentsibilizatzera eta prestatzera** (genero-ikuspegia duen kultura-programazioa, intersekzionalitatea, estereotipoen haustura, eta abar) zuzendutako prestakuntza-prozesuak abian jartzea.

BABES HANDIAGOA EMAKUMEEN SORKUNTZARI ETA PARTE-HARTZEARI

Desabantaila-egoera batetik abiatzen garela kontuan harturik, funtsezkoa da **emakumeek sortutako eta garatutako proiektuei laguntza handiagoa ematea**. Era berean, **emakumeen presentzia handiagoa sustatu behar da kultura-programazioan,** eta, horretarako, haien kontratazioa bultzatu.

NAGUSIA IZANGO DEN EUSKARAZKO KULTURA-ESKAINTZA

Euskarazko kultura-eskaintza, benetan, programazioaren elementu nagusi bihurtzea. Horretarako, **euskarazko ekitaldiak areagotu behar dira,** irispidean izateko tresnak ahalbidetu (azpitituluak, espazioak...), **euskarazko sorkuntza-lanetarako finantza-laguntza handitu, eta euskarazko edukiak sortzen dituzten pertsonei ikusgaitasun handiagoa eman**, beste zenbait ekimenen artean.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK BILBOKO

Garrantzi handikoa da **GJHak udalaren kultura-ekintzan integratzera bideratutako ekimenak bultzatzea,** hala nola kultura-eraikinen energia-efizientzia bermatzea, aire zabalean programatutako kulturan ingurumen-aztarna murriztea edo dirulaguntzen oinarrietan ingurumen-irizpideak ezartzea, besteak beste.

KOLEKTIBO GUZTIEI KULTURARAKO IRISPIDEA BERMATZEA

Hirian dagoen kultura-aniztasuna islatzeaz harago, lehentasunezkoa da **Bilboko kolektibo eta gutxiengo guztientzako irisgarritasunaren eta parte-hartzearen alde** egitea, eta **komunitate migratzaileen integrazioa** bultzatzea.

4.2

DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

Kapitulu honetan Bilboko kulturaren egoerari buruzko datu nagusiak identifikatu eta aztertzen dira, hainbat alderdi kontuan hartuta: testuinguru soziodemografikoa; kulturarako udal-aurrekontuaren bilakaera; egun dagoen kultura-eskaintza; kultura-kontsumoa eta garatutako kultura-arloko parte-hartzea; eta, azkenik, Hiriko enpresa kultural eta sortzaileen errealitatea.

TESTUINGURU SOZIODEMOGRAFIKOA

Atal honetan Bilboko egoera demografikoaren panoramika bat eskaintzen da.

- ### BILBOKO ETA HAREN BARRUTIETAKO DEMOGRAFIA

Bilboko biztanleria sexuaren eta adinaren arabera

Bilboko biztanleriaren banaketa sexuaren arabera (2021)



Iturria: bertan landua, Bilbao.eus webgunetik ateratako datuak abiapuntu hartuta

Bilbok **350.000 biztanle inguru ditu**. Emakumeak biztanleriaren % 52,7 dira.

Biztanleriaren ehunekoa adinaren eta sexuaren arabera (2021)

Bilboko biztanleria osoaren gaineko %	Guztira (%)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
0-14 urte	11,5	5,6	5,9
15-19 urte	4,4	2,1	2,3
20-29 urte	10,0	4,9	5,1
30-39 urte	11,8	5,9	5,9
40-49 urte	15,1	7,6	7,5
50-64 urte	23,1	12,1	11,0
+65 urte	24,1	14,5	9,6
Guztira	**100**	**52,7**	**47,3**

Iturria: bertan landua, Bilbao.eus webgunetik ateratako datuak abiapuntu hartuta

Bilboko biztanleria-piramideak zahartze nabarmena erakusten du: **biztanleriaren % 48k 50 urte baino gehiago ditu, eta % 26 baino ez da 29 urtetik beherakoa**. Garrantzitsua da, halaber, **65 urtetik gorako biztanleria-tartearen feminizazioa** azpimarratzea.

Bilboko biztanleriaren banaketa barrutien arabera

Bilboko biztanleriaren ehunekoa barrutien arabera (2021)



Iturria: bertan landua, Bilbao.eus webgunetik ateratako datuak abiapuntu hartuta

Ibaiondo da biztanleria-pisurik handiena duen barrutia, Hiriko guztizkoaren % 18,1 hartzen du-eta. Abando, Deustu eta Errekalde bigarren maila batean daude (% 15 inguru). Otxarkoaga-Txurdinaga da biztanle gutxien dituen barrutia.

KULTURARAKO UDAL-AURREKONTUAREN ANALISIA

Ondoren emango ditugu Bilboko Udaleko Kultura Sailaren aurrekontuaren eta azken urteotan izan duen bilakaeraren oinarrizko datuak. Urte bakoitzean Osoko Bilkuran onartutako udal-aurrekontuak hartu ditugu iturri gisa.

- ## KULTURARAKO UDAL-AURREKONTUA (2019-2022)

Kulturarako guztizko aurrekontuaren bilakaera (2019-2022)

Kulturarako udal-aurrekontuaren zenbatekoa, 2019tik 2022ra



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Hazkunde-tasa 2019tik 2022ra (%)

+% 6,6

Ikus daitekeenez, **kulturarako udal-aurrekontua handitu egin da 2019 eta 2022 artean**. Aldi horretan % 6,6 handitu da, hau da, 2.579.234 €.

Batez ere 2021etik 2022ra izandako igoera nabarmentzen da.

Kulturarako udal-aurrekontuaren bilakaera, gastu-kapituluaren arabera (2019-2022)

Kulturarako udal-aurrekontuaren zenbatekoa eta ehunekoa, gastu-kapituluaren arabera (2019-2022)

	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%	Hazkunde-tasa (19-22) (%)
LANGILE-GASTUAK	5.292.700	% 13,6	5.320.190	% 13,3	5.170.632	% 13,0	5.354.124	% 12,9	% 1,2
GASTU ARRUNTA	3.264.800	% 8,4	3.214.800	% 8,0	3.202.460	% 8,0	3.044.960	% 7,3	–% 6,7
TRANSFERENTZIAK	27.942.530	% 71,8	29.147.699	% 72,9	29.656.900	% 74,3	30.641.180	% 73,9	% 9,7
INBERTSIO ERREALAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	2.396.300	% 6,2	2.302.531	% 5,8	1.871.200	% 4,7	2.435.300	% 5,9	% 1,6
Guztira	38.896.330	% 100	39.985.220	% 100	39.901.192	% 100	41.475.564	% 100	+% 6,6

Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Kulturarako gastu-kapituluak kontuan harturik, Udalak transferentzietara bideratzen du bere aurrekontuaren zatirik handiena. Izan ere, 2019 eta 2022 artean urtero handitu dira, % 9,7ko gehikuntza izatera iritsi arte. Azken urtean guztizko aurrekontuaren % 73,3 izan dira.

Langile-gastuak, gastu arrunta eta inbertsioak dira hurrengoak, baina askoz ere neurri txikiagoan. Nabarmentzekoa da langile-gastuek eta inbertsioek gora egin dutela pixka bat azken lau urteetan; gastu arruntak, aldiz, % 6,7ko beherakada izan du aurrekontuan.

Ondoren, arretaz ikusiko dugu gastu-kapitulu bakoitza.

- ## LANGILE-GASTUAK (2019-2022)

Kulturarako langile-gastuen zenbatekoa, 2019tik 2022ra



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Hazkunde-tasa 2019tik 2022ra (%)

+% 1,2

Kulturarako langile-gastuak 61.424 € **handitu dira azken lau urteetan**; hots, 2019an baino % 1,2 handiagoak dira.

Nabarmentzekoa da 2020tik 2021era izandako beherakada. Halere, 2022an berriz gora egiten du eta beherakadaren aurreko zifrak gainditzen dira.

- ## GASTU ARRUNTA (2019-2022)

Kulturarako gastu arruntaren aurrekontuko zenbatekoa, 2019tik 2022ra



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Hazkunde-tasa 2019tik 2022ra (%)

–% 6,7

2019az geroztik kulturarako udal-gastu arruntak etengabe egin du behera, eta azken urtean iritsi da kopururik txikienera. Lau urteko aldian gastuak % 6,7 egin du behera; horrek esan nahi du 2019an baino 219.840 € gutxiago direla.

- ## TRANSFERENTZIAK (2019-2022)

Kulturarako transferentzien aurrekontuko zenbatekoa, 2019tik 2022ra



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Hazkunde-tasa 2019tik 2022ra (%)

+% 9,7

2019az geroztik kulturarako transferentzien kapituluak etengabe egin du gora, 2022an kopururik handienera iritsi arte. Igoera % 9,7koa izan da, hots, 2019an baino 2.698.650 € gehiago.

- ## INBERTSIOAK (2019-2022)

Kulturarako inbertsioen aurrekontuko zenbatekoa, 2019tik 2022ra



*Oharra: zenbatekoak 6. (Inbertsio errealak) eta 7. (Kapital-transferentziak) kapituluen baturari dagozkio
Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren aurrekontuen bitartez

Hazkunde-tasa
2019tik 2022ra (%)

+% 1,6

Antzeman daitekeenez, 2021ean jaitsi egiten da kultura-inbertsioetan egindako udalaren aurrekontuko zenbatekoa, baina **azken urtean pixka bat igotzen da (% 1,6) 2019ko guztizkoaren aldean**.

HIRIKO KULTURA-ESKAINTZA

Atal honetan Hiriak eskaintzen dituen kultura-jarduerak aztertuko ditugu, diziplina artistikoak eta kultura-eskaintza eta-eskaria ezagutzeko beste zenbait aldagai interesgarri kontuan hartuta.

- ## HIRIKO KULTURA-JARDUERA GUZTIAK

Bilbon programatutako kultura-jardueren kopuruak

Kultura-jardueren kopuruaren bilakaera (2018-2021)

KULTURA-JARDUERAK				
2018	2019	2020	2021	Bilakaera (18-21)
3.804	4.034	2.545	3.187	–% 16,2

Kultura-eragile publikoek, pribatuek eta asoziatiboek Bilbon programatutako kultura-jardueren kopuruak nabarmen egin du behera 2018 eta 2021 artean (–% 16). Pandemiaren urtean atzerakada nabarmena izan zen, eta 2021ean gora egin duen arren, galdutakoaren zati bat besterik ez da berreskuratu. Ez da lortu 2019ko zifretara iristerik.

Bilboko kultura-jardueren banaketa, tipologiaren arabera

Hiriko kultura-eskaintzaren bilakaera, tipologiaren arabera (2018-2021)

	KULTURA-JARDUERAK					
	2018	2019	2020	2021	Programazio osoaren gaineko pisuaren % (18-21) (bertikala)	Ekitaldi kopuruaren bilakaera (18-21) (*horizontala*)
ARTE ESZENIKOAK	1.113	1.195	932	1.114	% 32,1	+% 0,1
MUSIKA	1.184	1.201	638	675	% 27,3	–% 57,0
IKUS-ENTZUNEZKOAK	526	694	396	564	% 16,1	+% 7,2
ERAKUSKETAK	555	542	357	480	% 14,2	–% 13,5
LITERATURA	201	191	158	193	% 5,5	–% 4,0
FOLKLOREA	79	92	42	53	% 1,9	–% 32,9
BESTE ZENBAIT	100	74	0	66	% 1,8	–% 34,0
JAIALDIAK	46	45	22	42	% 1,1	–% 8,7
GUZTIRA	**3.804**	**4.034**	**2.545**	**3.187**	**% 100**	**–% 16,2**

Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Bilbon 2018 eta 2021 artean programatutako kultura-jarduera gehienak arte eszenikoetakoak eta musikakoak izan dira. Bi kategorien artean Hiriko **kultura-eskaintzaren ia % 60 biltzen dute** aztertutako aldian.

Jarduera moten bizitasunari dagokionez, **musikan eta folklorean izandako beherakadak nabarmentzen dira**. Izan ere, **2018 eta 2021 artean ekitaldien % 57 eta % 33 galdu dituzte**, hurrenez hurren.

Nabarmendu beharra dago **arte eszenikoak** eta **ikus-entzunezkoak** direla pandemiaren eragina hobekien jasan duten jarduera motak.

Hiriko kultura-eskaintza osoaren hizkuntza

Kultura-jardueren banaketaren bilakaera, hizkuntzaren arabera (2018-2021) (%)



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Ikus daitekeenez, aztertutako aldian **gaztelaniaz programatutako jardueren kopurua (% 55) euskaraz (% 9) eta ele bitan (% 10) egindakoena baino askoz ere handiagoa da**.

Hala ere, azken lau urteetan **euskarazko kultura-eskaintza pixka bat handitu** dela antzeman daiteke.

Bilboko kultura-eskaintzaren doakotasunaren analisia

Doako jarduera guztien bilakaera (2018-2021) (%)



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Bilboko doako kultura-jardueren ehunekoa 11 puntu baino gehiago jaitsi da azken urteotan: 2018an % 48,7 eta 2021ean % 37,3.

• BILBOKO UDALEKO KULTURA SAILAK PROGRAMATUTAKO KULTURA-JARDUERAK

Kultura Sailak programatutako kultura-jardueren garrantzia

Kultura Sailak programatutako kultura-jarduerak, Hiriko kultura-jardueraren ehuneko osoaren gainean (2018-2021)



(Oharra: erakusketen eta jaialdien datua baztertuta)
Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Kultura Sailak programatutako jarduerak, gutxi gorabehera, Hiriko jarduera osoaren **% 25** dira. **Banaketa horrek egonkor iraun du** azken urteetan.

Kultura Sailak programatutako kultura-jardueren guztizko kopurua, tipologiaren arabera

Kultura Sailaren eskaintzaren bilakaera, tipologiaren arabera (2018-2021)

	KULTURA-JARDUERAK					
	2018	2019	2020	2021	Programazio osoaren gaineko pisuaren % (18-21) (bertikala)	Ekitaldi kopuruaren bilakaera (18-21) (horizontala)
ARTE ESZENIKOAK	327	293	253	284	% 40,2	–% 13,1
MUSIKA	251	288	104	195	% 29,1	–% 22,3
IKUS-ENTZUNEZKOAK	127	123	45	63	% 12,4	–% 50,4
FOLKLOREA	69	75	32	41	% 7,6	–% 40,6
LITERATURA	52	75	47	63	% 8,2	% 21,1
BESTE ZENBAIT	31	15	0	27	% 2,5	% 12,9
GUZTIRA	**857**	**869**	**481**	**673**	**% 100**	**–% 21,5**

Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Kultura Sailak 2018 eta 2021 artean programatutako jardueren % 40 arte eszenikoak izan ziren. Musika da pisu espezifikorik handiena duen bigarren esparrua (% 29).

Kultura Sailak programatutako jardueren kopurua % 22 jaitsi zen 2018 eta 2021 artean. Beherakada hori pandemiaren ondorioz 2019 eta 2020 artean izandako % 45eko atzerakadak argitzen du. Ikus-entzunezkoen eta folklorearen sektoreek jasan zuten eraginik handiena.

Kultura Sailak bultzatutako kultura-eskaintzaren hizkuntza

Kultura Sailak programatutako kultura-eskaintzaren banaketaren bilakaera, hizkuntzaren arabera (2018-2021) (%)



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Kultura Sailak 2018-2021 aldian programatutako kultura-eskaintzaren % 41 gaztelaniaz egiten da. Proportzio horrek aski iraunkor jarraitu du urteetan zehar.

2018 eta 2021 arteko udal-eskaintzaren % 27 elebiduna izan zen, argi eta garbi Hiriko kultura-eskaintza orokorraren gainetik.

Euskara hutsean egindako eskaintza hirugarren tokian dago (% 15), berriz ere Bilboko kultura-eskaintza orokorraren (% 9) gainetik.

Kultura Sailaren kultura-eskaintzaren doakotasunaren analisia

Kultura Sailaren doako jarduera guztien bilakaera (2018-2021)



Iturria: bertan landua, Bilboko Udalaren barneko datuak abiapuntu hartuta

Kultura Sailak programatutako kultura-eskaintza neurri handiagoan da doakoa eskaintza osoa baino, ehunekoa bikoiztu egiten du-eta. 2019an iritsi zen ehunekorik handienera (% 90,4), baina 2021ean % 72,5eraino jaitsi zen.

KONTSUMO ETA PARTE-HARTZE KULTURALA

Atal honetan kultura-eskaintzaren eta-kontsumoaren arteko erlazioa aztertuko dugu, hasi herritarren jardunbide eta ohituretatik eta kulturaren irisgarritasunera iritsi arte. Horretarako, Udalaren azterketak eta Kulturaren Euskal Behatokiaren informazioa erabili ditugu.

- ## BILBOKO HERRITARREN KULTURA-OHITURAK

Kulturarekiko jarrera orokorrak

Bilboko udal-zerbitzuen balorazioa



Izanik 0 notarik txarrena eta 10 onena. Iturria: Bilbao 2021 azterketa soziopolitikoa, Gizaker

Herritarrei egindako inkesten bidez landutako Bilbao 2021 azterketa soziopolitikoak erakusten duenez, **kultura da hobekien baloratzen den udalaren bigarren jarduketa-esparrua**.

Bilboko herritarren kultura-jardunbideak

Bilboko kultura-kontsumoaren urteko maiztasuna (2018) (%)



Iturria: bertan landua, Kulturaren Euskal Behatokiaren datuak abiapuntu hartuta

Ikus daitekeenez, **Bilboko herritarrek irakurtzeko eta zinemarako zaletasun handiagoa dute**. Izan ere, horiek dira maiztasun handienarekin kontsumitzen diren bi kultura-jarduerak (% 48,4 eta % 39,6, hurrenez hurren).

Horien atzetik daude museoak bisitatzea (% 41) eta kontzertuetara joatea (% 35,8), jendea urtean behin, bi edo hiru aldiz joaten baita.

Aitzitik, herritar gehienak ez dira inoiz edo ia inoiz joaten arte-galerietara, dantza-jardueretara eta liburutegietara.

KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK (KSI) BILBON

Ondoren, Bilboko ekonomiako Kultura eta Sormen Industrien (KSI) oinarrizko datuak aurkeztuko ditugu, bai enpresa-ehunaren ikuspuntutik bai enpleguaren ikuspegitik.

Analisi hori egiteko **Kulturaren Euskal Behatokiaren KSIen kategorizazioa** erabili da, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) 64 kategoria honako lau sektore handi hauetan konpilatzen dituena: (1) Berezko kultura-jarduerak, (2) Kultura-jarduera lagungarriak, (3) Berezko sormen-jarduerak, eta (4) Sormen-jarduera lagungarriak.

Ondoren aurkeztuko den informazioa **Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik atera da eta egoitza soziala edo establezimenduak Bilbon dituzten enpresen errealitatea islatzen du**.

- ## KSI ENPRESAK

Bilboko KSI enpresa guztiak

2022Ko urtarrilaren 1ean, Bilboko 3.752 enpresa zeuden KSIen sektoreetan.

Enpresa horiek Bilboko **enpresa guztien % 12,5** dira.

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

Bilboko KSI enpresen bilakaera

Bilboko KSI enpresen bilakaera (2015-2021)

Urtea	Bilboko KSI enpresen guztizko kopurua	Bilboko KSI enpresen urtetik urterako bilakaeraren %	Bilboko enpresen guztizko kopurua	KSI enpresen %, Bilboko enpresa guztien gainean
2015	3.502	-	30.804	% 11,4
2016	3.521	% 0,5	30.705	% 11,5
2017	3.597	% 2,2	30.511	% 11,8
2018	3.655	+% 1,6	30.502	% 12,0
2019	3.785	% 3,6	30.782	% 12,3
2020	3.793	% 0,2	30.287	% 12,5
2021	3.752	–% 1,1	30.092	% 12,5
Bilakaera (15-21)	+250	+% 7,1	–512 (–% 1,7)	% 1,1

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Bilboko KSI enpresen kopuruak **hazkunde iraunkorra** erakusten du **2015-2021 aldian**, urtean % 1 hazten baita gutxi gorabehera.

KSIen enpresa-ehunaren hazkundearen noranzkoak eta erritmoak Hiriko enpresa-globalak baino joera askoz positiboagoak dituzte. Izan ere, Hiriko enpresa-globala % 1,7 uzkurtu da 2015 eta 2021 artean, eta KSIen hazkundea % 7koa izan da aldi horretan bertan. **Pandemiaren lehen urteak eten egin du** Bilbon KSI enpresen kopuruak **bost urtez jarraian izan duen hazkundea**.

Enpresak Bilboko KSIen sektoreen arabera

Enpresen banaketa Bilboko KSIen sektoreen arabera (2021)

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPRESA KOPURUA (2021)	ENPRESA GUZTIEN %
A. Berezko kultura-jardueren guztizko partziala	1.014	% 27,0
A.1 Arte eszenikoak	163	% 4,3
A.2 Ikusmen-arteak	352	% 9,4
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	160	% 4,3
A.4 Liburua eta prentsa	220	% 5,9
A.5 Musika	99	% 2,6
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	20	% 0,5
B. Kultura-jarduera lagungarrien guztizko partziala	543	% 14,5
B.1 Arte eszenikoak	125	% 3,3
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	228	% 6,1
B.3 Liburua eta prentsa	137	% 3,7
B.4 Musika	7	% 0,2
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	46	% 1,2
C. Berezko sormen-jardueren guztizko partziala	2.184	% 58,2
C.1 Arkitektura	701	% 18,7
C.2 Diseinua	191	% 5,1
C.3 Hizkuntzaren industriak	807	% 21,5
C.4 Publizitatea	330	% 8,8
C.5 Bideojokoak	5	% 0,1
C.6 Moda, fabrikazioa	150	% 4,0
D. Sormen-jarduera lagungarrien guztizko partziala	11	% 0,3
D.1 Web-atariak	11	% 0,3
GUZTIRA	3.752	% 100

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Berezko sormen-jarduerena enpresa kopururik handiena duen sektorea da; guztizkoaren % 58 biltzen du. Horien barruan, hizkuntzaren industrien eta arkitekturaren pisu espezifikoa nabarmentzen da.

Garrantziz bigarren tokian kultura-jarduera hutsak daude. Izan ere, KSI enpresen laurdenak baino gehiago hartzen dituzte barnean. Horien artean, ikusmen-arteen eta liburuaren eta prentsaren enpresak nabarmentzen dira.

Enpleguaren banaketaren bilakaera Bilboko KSIen sektoreen arabera (2015-2021)

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPRESA KOPURUA (2015)	ENPRESA KOPURUA (2021)	BILAKAERA (15-21)
A. Berezko kultura-jardueren guztizko partziala	**973**	**1.014**	**+% 4,2**
A.1 Arte eszenikoak	143	163	+% 14,0
A.2 Ikusmen-arteak	243	352	+% 44,9
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	159	160	+% 0,6
A.4 Liburua eta prentsa	315	220	–% 30,2
A.5 Musika	96	99	+% 3,1
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	17	20	+% 17,6
B. Kultura-jarduera lagungarrien guztizko partziala	**501**	**543**	**+% 8,4**
B.1 Arte eszenikoak	83	125	+% 50,6
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	178	228	+% 28,1
B.3 Liburua eta prentsa	185	137	–% 25,9
B.4 Musika	10	7	–% 30,0
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	45	46	+% 2,2
C. Berezko sormen-jardueren guztizko partziala	**2.016**	**2.184**	**+% 8,3**
C.1 Arkitektura	705	701	–% 0,6
C.2 Diseinua	151	191	+% 26,5
C.3 Hizkuntzaren industriak	641	807	+% 25,9
C.4 Publizitatea	373	330	–% 11,5
C.5 Bideojokoak	-	5	-
C.6 Moda, fabrikazioa	146	150	+% 2,7
D. Sormen-jarduera lagungarrien guztizko partziala	**12**	**11**	**–% 8,3**
D.1 Web-atariak	12	11	–% 8,3
GUZTIRA	**3.502**	**3.752**	**+% 7,1**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Berezko sormen-enpresen kopuruak gora egin du 2015-2021 aldian (+% 8), diseinuak eta hizkuntzaren industriek emandako bultzadari esker. Bestalde, **sormen-jarduera lagungarriek** —unibertso murritza osatzen dute— **behera egin dute**.

Kultura-enpresa lagungarrien kopurua (+% 8) berezko kultura-enpresena (+% 4) baino gehiago hazi da. Arte eszenikoena, ikusmen-arteena eta ikus-entzunezko eta multimediarena dira azken sei urteetan proiekziorik handiena erakutsi duten sektoreak. Liburu eta prentsarena da bilakaera esanguratsuki negatiboa izan duen jarduera bakarra.

• ENPLEGUA BILBOKO KSI-ETAN

Guztizko enplegua Bilboko KSIetan

2021Eko urtarrilaren 1ean **10.890 pertsonak zuten enplegua** Bilboko **Kultura eta Sormen Industrien sektorean**.

KSIek Bilboko enplegu guztien (128.431) **% 8,5 biltzen dituzte**.

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Bilboko KSI enpleguaren bilakaera

Bilboko KSI enpleguaren bilakaera (2015-2021)

Urtea	Bilboko KSI enpleguen guztizko kopurua	Bilboko KSI enpleguen urtetik urterako bilakaeraren %	Bilboko enpleguen guztizko kopurua	KSI enpleguen %, Bilboko enplegu guztien gainean
2015	10.445	-	120.037	% 8,7
2016	10.308	–% 1,3	119.858	% 8,6
2017	10.530	+% 2,2	121.754	% 8,6
2018	10.566	+% 0,3	124.544	% 8,5
2019	10.937	+% 3,5	128.595	% 8,5
2020	11.012	+% 0,7	128.051	% 8,6
2021	10.890	–% 1,1	128.431	% 8,5
Bilakaera (15-21)	+445	% 4,3	+8.394 (+% 7,0)	–% 0,2

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Bilboko enplegu kopuruak lerro egonkorra erakusten du azken urteetan. Zehazki, % 4 hazi da 2015-2021 aldian, hiriko enpleguen globalak izan duen bilakaeraren azpitik (+% 7,0).

Pandemiaren lehen urteak **atzerakada mugatua** ekarri du KSIen **enpleguen kopuruan** (–% 1), 2021. urteko efektua ezagutzeko zain.

Enplegua Bilboko KSIen sektoreen arabera

Enpleguaren banaketa Bilboko KSIen sektoreen arabera (2021)

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPLEGU KOPURUA (2021)	ENPLEGU GUZTIEN %
A. Berezko kultura-jardueren guztizko partziala	3.649	% 33,5
A.1 Arte eszenikoak	452	% 4,1
A.2 Ikusmen-arteak	399	% 3,7
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	1.394	% 12,8
A.4 Liburua eta prentsa	816	% 7,5
A.5 Musika	342	% 3,1
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	246	% 2,3
B. Kultura-jarduera lagungarrien guztizko partziala	2.000	% 18,4
B.1 Arte eszenikoak	418	% 3,8
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	870	% 8,0
B.3 Liburua eta prentsa	311	% 2,9
B.4 Musika	12	% 0,1
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	389	% 3,6
C. Berezko sormen-jardueren guztizko partziala	5.218	% 47,9
C.1 Arkitektura	964	% 8,9
C.2 Diseinua	263	% 2,4
C.3 Hizkuntzaren industriak	2.788	% 25,6
C.4 Publizitatea	890	% 8,2
C.5 Bideojokoak	16	% 0,1
C.6 Moda, fabrikazioa	297	% 2,7
D. Sormen-jarduera lagungarrien guztizko partziala	23	% 0,2
D.1 Web-atariak	23	% 0,2
GUZTIRA	10.890	% 100

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

KSIetako enpleguaren ia erdia berezko sormen-jardueretan kontzentratzen da (% 48). Horien barruan, hizkuntzaren industriak dira nabarmenenak, KSIetako enpleguaren % 25 biltzen dute-eta. **Enplegu-bolumenari dagokionez, berezko kultura-jarduerak daude bigarren tokian, enpleguen herenak baino gehiago biltzen dituzte-eta.** Ikus-entzunezkoak eta multimedia eta liburua eta prentsa dira kategoriarik nabarmenenak.

Enpleguaren banaketaren bilakaera Bilboko KSIen sektoreen arabera (2015-2021)

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPLEGU KOPURUA (2015)	ENPLEGU KOPURUA (2021)	BILAKAERA (15-21)
A. Berezko kultura-jardueren guztizko partziala	3.789	3.649	–% 3,7
A.1 Arte eszenikoak	427	452	+% 5,9
A.2 Ikusmen-arteak	311	399	+% 28,3
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	1.231	1.394	+% 13,2
A.4 Liburua eta prentsa	1.071	816	–% 23,8
A.5 Musika	526	342	–% 35,0
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	223	246	+% 10,3
B. Kultura-jarduera lagungarrien guztizko partziala	2.159	2.000	–% 7,4
B.1 Arte eszenikoak	350	418	+% 19,4
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	806	870	+% 7,9
B.3 Liburua eta prentsa	490	311	–% 36,5
B.4 Musika	19	12	–% 36,8
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	494	389	–% 21,3
C. Berezko sormen-jardueren guztizko partziala	4.368	5.218	+% 19,5
C.1 Arkitektura	894	964	+% 7,8
C.2 Diseinua	197	263	+% 33,5
C.3 Hizkuntzaren industriak	2.100	2.788	+% 32,8
C.4 Publizitatea	904	890	–% 1,5
C.5 Bideojokoak	0	16	-
C.6 Moda, fabrikazioa	273	297	+% 8,8
D. Sormen-jarduera lagungarrien guztizko partziala	129	23	–% 82,2
D.1 Web-atariak	129	23	–% 82,2
GUZTIRA	10.445	10.890	+% 4,3

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Kultura-jarduerek, bai berezkoek (–% 4), bai lagungarriek bereziki (–% 7), enplegu kopuruaren beherakada garrantzitsua izan dute 2015-2021 aldian. Hala ere, joera desberdina da azpisektoreen artean: arte eszenikoek eta ikusmen-arteek igoera handiak izan dituzte; liburuak eta prentsak eta musikak, aldiz, atzera egin dute.

Berezko sormen-jarduerena da aztertutako aldian enplegua sortzen hazten den sektore handi bakarra (+% 20). Bere hazkundea hain bizia da, ezen beste hiru sektoreen beherakadak konpentsatzea eta KSIen osotasunerako balantze positiboa sortzea lortzen baitu. Nabarmendu beharra dago hizkuntzaren industriek, diseinuak eta arkitekturak aurrerabide horretan duten eginkizuna.

Bilboko KSIetako enplegua sexuaren arabera

Bilboko KSIetako enpleguaren bilakaera sexuaren arabera (2018-2021)

URTEA	Emakumeen KSI enpleguen guztizko kopurua	Gizonen KSI enpleguen guztizko kopurua	KSIetako gizon-emakumeen proportzioa	Bilboko enplegu guztietako gizon-emakumeen proportzioa
2018	5.244	5.322	% 49,6- % 50,4	% 49,0- % 51,0
2019	5.384	5.553	% 49,2- % 50,8	% 49,2- % 50,8
2020	5.379	5.633	% 48,8- % 51,2	% 48,7- % 51,3
2021	5.314	5.576	% 48,8- % 51,2	% 48,3- % 51,7

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Bilboko KSIetako enpleguaren sexuen araberako ikuspegi orokorrak **oso datu orekatuak erakusten ditu emakumeen eta gizonen artean (% 49- % 51)**, eta Hiriko enpresa guztien artean enpleguak sexuen arabera duen banaketaren oso antzekoa.

2018-2021 aldiko bilakaera-ikuspegiak erakusten duenez, KSIetako enpleguaren sexuen araberako banaketan egonkortasun handia dago, eta azken lau urteetan enpresetan gizonen presentzia handiagoa izateko joera arina hautematen da, ehuneko 0,8 puntuko igoera izan du-eta.

Enpleguaren banaketaren bilakaera sexuaren eta Bilboko KSIen sektoreen arabera (2021)

JARDUERA-SEKTOREAK	Emakumeen KSI enpleguen guztizko kopurua (2021)	Gizonen KSI enpleguen guztizko kopurua (2021)	Gizon-emakumeen proportzioa (* ikurraren bidez adierazten dira % 60- % 40 baino feminizazio edo maskulinizazio handiagoa duten sektoreak)
A. Berezko kultura-jardueren guztizko partziala	**1.749**	**1.900**	**% 47,9- % 52,1**
A.1 Arte eszenikoak	186	266	% 41,2- % 58,8
A.2 Ikusmen-arteak	182	217	% 45,6- % 54,4
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	624	770	% 44,8- % 55,2
A.4 Liburua eta prentsa	434	382	% 53,2- % 46,8
A.5 Musika	188	154	% 55,0- % 45,0
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	135	111	% 54,9- % 45,1
B. Kultura-jarduera lagungarrien guztizko partziala	**713**	**1.287**	***% 35,7- % 64,3**
B.1 Arte eszenikoak	200	218	% 47,8- % 52,2
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	251	619	*% 28,9- % 71,1
B.3 Liburua eta prentsa	121	190	*% 38,9- % 61,1
B.4 Musika	5	7	% 41,7- % 58,3
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	136	253	*% 35,0- % 65,0
C. Berezko sormen-jardueren guztizko partziala	**2.848**	**2.370**	**% 54,6- % 45,4**
C.1 Arkitektura	351	613	*% 36,4- % 63,6
C.2 Diseinua	151	112	% 57,4- % 42,6
C.3 Hizkuntzaren industriak	1.761	1.027	*% 63,2- % 36,8
C.4 Publizitatea	408	482	% 45,8- % 54,2
C.5 Bideojokoak	2	14	*% 12,5- % 87,5
C.6 Moda, fabrikazioa	175	122	% 58,9- % 41,1
D. Sormen-jarduera lagungarrien guztizko partziala	**4**	**19**	***% 17,4- % 82,6**
D.1 Web-atariak	4	19	*% 17,4- % 82,6
GUZTIRA	**5.314**	**5.576**	**% 48,8- % 51,2**

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sektoreen araberako ikuspegi espezifikoari esker, kultura-jarduera lagungarriak maskulinizatuta daudela antzeman daiteke, batez ere ikus-entzunezkoei eta multimediari, eta ondareari, museoei, artxiboei eta liburutegiei dagozkien jardueren kasuan.

Arkitekturak eta bideojokoek maskulinizazio garrantzitsua erakusten dute berezko sormen-jardueren barruan.

Sormen-jarduera lagungarriek ere —web-atariak besterik ez daude— **nolabaiteko maskulinizazioa erakusten dute**, nahiz eta KSIen artean pisu txikia duen sektorea izan.

Sektore feminizatu bat (hizkuntzaren industriak) besterik ez da hauteman. Dena den, % 60- % 40 atalasetik hurbil egon arren, interesgarria da monitorizatzea, KSIen artean oso pisu espezifiko handia du-eta.

HERRITARREI EGINDAKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

Ondoren jasoko ditugu online galdetegian bildutako emaitza kuantitatibo nagusiak. Galdetegi horretan **220 pertsonak** parte hartu dute (ikusi IV. eranskina: parte-hartzaileen karakterizazioa).

BILBOKO KULTURAREN PERTZEPZIOAREN BALORAZIOA

Atal honetan, galdetegian parte hartu duten pertsonek Bilboko kulturaz duten pertzepzioari buruzko informazioa eskainiko dugu.

- ### KULTURA BULTZATZEAREN GARRANTZIA

Zenbateraino da garrantzitsua Bilbon kultura bultzatzea?



- ### BILBOKO KULTURAREKIKO GOGOBETETASUN-MAILA

Bilboko kulturarekiko gogobetetasun-maila 6,2**koa da**. Ez da desberdintasun adierazgarririk antzematen bi sexuen artean.

Parte-hartzaileen artean **sumatzen denez, Bilbon…**

*"Kultura-eskaintzak **hobekuntza nabarmena izan du** azken urteotan"*

*"**Bilboko kultura-eskaintza 0tik 100era igaro da denbora laburrean**; beraz, nabaritzen da gauzak egiten ari direla, bai maila publikoan, bai pribatuan"*

"Asko aurreratu dela iruditzen zait; ***zorionez, bilbotarrentzat kulturarekiko konpromiso handia duen hiria da****"*

*"****Eskertzen dut Bilboko kultura-eskaintza erakargarri nagusienetako bat izatea bisitariak erakartzeko*** *eta bilbotarren eta, hedaduraz, inguruko herrietako eta Bizkaiko herritarren* ***bizi-kalitatea*** *hobetzeko"*

"Aspaldi honetan, ***Bilboko kultura-jarduerek gora egin dutela hauteman dut****. Hain zuzen ere, azken hilabete honetan ia astero izan dira ekitaldiak Indautxu plazan. Orain arte erabat ahaztuta zegoen espazio hori gainera"*

UDALERRIKO KULTURA-EKINTZAREN BALORAZIOA

Galdetegia egin zaien pertsonek udalerriko kultura-ekintzari buruz egin duten balorazioari buruzko informazioa aurkeztuko dugu atal honetan.

- ## KULTURA-JARDUEREN UDAL-PROGRAMAZIOA

Kultura-jardueren udal-programazioarekiko adostasun-maila



Bilboko kultura-jardueren udal-programazioak balorazio positiboak jasotzen ditu nagusiki. Oro har, parte-hartzaileek adostasun-maila handia edo handi samarra erakusten dute **Bilboko kultura-eskaintza zabala, etengabea eta askotarikoa** delako.

Parte-hartzaileen gogobetetasun-mailarik txikiena lortzen duten gaiak **kultura-ekitaldien zabalkundea eta herritarrek horietan duten parte-hartzea** dira, eta, neurri txikiagoan, ekitaldiak auzoen artean ekitatez banatzea.

Kultura-jardueren udal-programazioarekiko adostasun-maila
(sexuen araberako ikuspegia)

	OSO HANDIA		HANDIA		ERTAINA		TXIKIA		OSO TXIKIA	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Bilbok kultura-jardueren agenda zabala eta askotarikoa dauka	12,6	19,2	37,8	43,8	37	27,4	10,1	8,2	2,5	1,4
Kultura-jardueren etengabeko eskaintza dago urte osoan	7,7	15,1	42,3	41,1	40,1	31,5	5,6	9,6	4,2	2,7
Kultura-programazioak pertsona eta talde desberdinak batzen laguntzen du	12,7	23,3	34,5	32,9	29,6	23,3	18,3	16,4	4,5	4,1
Kultura-ekitaldiak behar bezala komunikatu eta jakinarazten dira	7	5,5	26,1	19,2	36,6	46,6	21,8	20,5	8,5	8,2
Pertsonek aktiboki parte hartzen dute kultura-programazioan	2,8	5,5	19,7	19,2	45,1	47,9	28,2	17,8	4,2	9,6
Kultura-jarduerak auzo guztietan banatuta daude	4,9	8,2	17,8	26,1	38,4	40,1	18,3	19,2	10,6	16,4

Ikus daitekeenez, **gizonak askoz ere neurri handiagoan daude ados** Bilboko kultura-eskaintza zabala, etengabea, askotarikoa eta auzoen artean hobeto banatua izatearekin. **Emakumeen** artean, aldiz, **ekitaldien komunikazioari buruzko balorazioa nabarmen handiagoa da**.

• KULTURA-JARDUEREN MOTA

Zer-nolako jarduerak bultzatu beharko lirateke gehiago Bilbon? (hautapen anizkuna)



Parte-hartzaileen ustez, **udal-eremutik gehien bultzatu behar diren jarduerak antzerkiarekin zerikusia dutenak dira (% 21,9)**, eta ehuneko txikiagoan musikalak (% 18,5). Gainerako kultura-diziplinek antzeko ehunekoak jasotzen dituzte.

Zer-nolako jarduerak bultzatu beharko lirateke gehiago Bilbon? (hautapen anizkuna)
(sexuen araberako ikuspegia)



Sexuen arabera bereizitako ikuspegiak erakusten duenez, emakumeen iritziz neurri handiagoan bultzatu behar dira **irakurketarekin, dantzarekin eta zinemarekin zerikusia duten jarduerak, eta gizonen iritziarekiko diferentzia % 6,6koa, % 5,7koa eta % 5,6koa da, hurrenez hurren**.

Norengana zuzendu beharko lirateke gehiago kultura-jarduerak? (hautapen anizkuna)



Gazteenengana bideratutako jardueretan arreta berezia jarri behar dela baloratzen da (% 30,6). Inkestatutakoen % 5,7k baino ez dute uste banaketa orekatua dagoela jarduerak publiko guztien artean bideratzerakoan.

Norengana zuzendu beharko lirateke gehiago kultura-jarduerak? (hautapen anizkuna)
(sexuen araberako ikuspegia)



Ez da desberdintasun adierazgarririk antzematen bi sexuen artean, alde batera utzirik **gizonek neurri handiagoan uste dutela publikoaren araberako banaketa orekatua dela, emakumeen artean baino % 6,3 gehiago**.

• KULTURA-EKIPAMENDU PUBLIKOAK

Kultura-ekipamendu publikoekiko adostasun-maila (%)



Kultura-ekipamendu publikoekiko gogobetetasun-maila handia edo handi samarra da. **Parte hartzaileek modu positiboan baloratzen dituzte kultura-ekipamenduen kalitatea, funtzionaltasuna eta irisgarritasuna.**

Jendearentzako ordutegia eta arreta da balorazio neurritsua jasotzen duen beste elementu bat. Aitzitik, jendea ez dago guztiz ados behar beste ekipamendu izatearekin, ezta horiek etxetik hurbil eskuragarri izatearekin ere.

Kultura-ekipamendu publikoekiko adostasun-maila (%)
(sexuen araberako ikuspegia)

	OSO HANDIA		HANDIA		ERTAINA		TXIKIA		OSO TXIKIA	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Kalitatezko ekipamenduak dira	% 4,9	% 11	% 51,4	% 37	% 34,5	% 38,4	% 7	% 11	% 2,1	% 2,7
Ekipamenduak funtzionalak eta irisgarriak dira	% 3,5	% 4,1	% 44,4	% 45,2	% 37,3	% 27,4	% 9,9	% 13,7	% 4,9	% 9,6
Ordutegiak eta arreta egokiak dira	% 4,9	% 8,2	% 35,2	% 27,4	% 42,3	% 32,9	% 12	% 17,8	% 5,6	% 13,7
Bilbon behar beste kultura-ekipamendu dago	% 4,2	% 8,2	% 40,1	% 39,7	% 34,5	% 27,4	% 17,6	% 19,2	% 3,5	% 5,5
Ekipamenduak dauzkat etxetik hurbil samar	% 8,5	% 13,7	% 34,5	% 31,5	% 32,4	% 24,7	% 19,7	% 23,3	% 4,9	% 6,8

Kultura-ekipamenduen balorazioari dagokionez, ez da desberdintasun adierazgarririk antzematen sexuaren arabera; hala ere, **egia da gizonak kritikoagoak direla item guztietan**, eta emakumeek baino neurri handiagoan egiten dituztela balorazio txikiak eta oso txikiak.

5

PLANAREN MISIOA ETA IKUSPEGIA

MISIOA

Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoaren (2023-2033) misioak Bilboko herritarren garapena bideratzea eta bultzatzea du ardatz, bai arlo indibidualean bai kolektiboan, betiere kultura balio propioa duen tresna dela ulertuta.

Helburua da **kultura dimentsio bikoitzean funtsezko elementu gisa sendotzea**, bai Bilboren eta bere herritarren garapen orekatu eta kohesionatua bultzatzeko kulturarako sarbideari dagokionez, bai Hiriaren eta, ekonomiari dagokionez, jarduera bertan garatzen duten profesional, enpresa eta erakundeen garapena bultzatzeko, betiere genero-berdintasunean, euskararen zaintzan, aniztasunaren arretan eta garapen jasangarrian oinarritutako ikuspegitik abiatuta bi dimentsio horietan.

IKUSPEGIA

Lehenenik, kultura Bilbon **gizarte-kohesioa eta gizarte-eraldaketa** lortzeko tresna erreal eta eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da kultura herritarrengana hurbiltzen aurrera egitea, eta, aldi berean, kulturaren balio propioa eta berezkoa babestea, balio propioak sortzeko gai den elementua den aldetik.

Kulturarako irispidea demokratizatzea, herritarrak udalaren kultura-politikaren subjektu aktibo gisa ulertzen sakontzea eta herritarrek kultura-ekipamenduak irispidean izateko eta erabiltzeko aukera erraztea dira funtsezkotzat definitzen diren elementuak, eta horiei gehitu behar zaie kulturak Bilbo osatzen duten auzoak integratzeko eta kohesionatzeko elementu laguntzaile gisa duen rola, kultura-ekipamenduei eta kultura-programazioari buruzko erabakiak hartzean erdigune deritzonaren eta periferien arteko oreka modu estrategiko, jarraitu eta egonkorrean gogoan izango duen Hiri baterantz aurrera egiteko.

Bigarrenik, kultura **garapen ekonomikoa errazteko eragile** gisa baliatuko duen hiri-eredu baterantz egin nahi da aurrera. Kultura eta Sormen Industriak eta tokiko kultura-ehuna kultura-politikaren subjektu lehentasunezkoak, nagusiak eta erreferenteak izango dira, bai egungo ehunari lagunduz, bai ehun berria sortzea ahalbidetuz, eta modu positibo eta aktiboan nabarmenduz ekimen pribatuak tokiko kultura-ekosisteman duen eginkizuna. Hori guztia Bilbok kanpoaldearekin duen beharrezko konexioa ere kontuan hartuta, kulturaren nazioartekotzea eta turismoari laguntzea oinarrizko begiradetako bat izanik, garapen ekonomikoaren eragile horren parte gisa.

Hirugarrenik, **kultura- eta sormen-sektoreei eta balio-katea osatzen duten elementuei ematen zaien arreta estrategikoa eta udal-eskumenen esparrua** azpimarratu nahi dira, horrela, eremu horretan lan egiten duten profesionalei ematen zaien arreta hobetzea ahalbidetzeko.

Orain arte deskribatutako hiru elementuek osatzen dute Planak kulturari buruz proposatzen duen kontzepzio estrukturalena. Ondoren, beste hiru elementu osagarriren oinarrizko deskribapena garatuko dugu. Elementu horiek izaera instrumentalagoa dute, eta, nolanahi ere, garatu egin behar dira, udalaren kultura-politikari gaitasun operatiboa, proiekzioa eta koherentzia emateko.

Lehenengo elementua ***Bilbo, kultura-hiria*** **marka finkatzea da, baita Hiriaren identitatearekin duen lotura ere**, kulturaren alorreko udal-ekintzatik proiektatu nahi den ikuspegiaren parte baita.

Bigarren elementu instrumentalak beharrezko **lankidetzan, koordinazioan eta sareko lanean** jartzen du arreta, bai udal-sailen eta-erakundeen artean, bai horien eta Hiriko kultura-eragileen artean, baita Bilbon eragina duten kultura-politiken diseinuan eta garapenean parte hartzen duten administrazioen artean ere.

Azkenik, **komunikazioaren** bidez ere eragin nahi da, bai **publikoak sortzean eta erakartzean** (bereziki gazteei eta publiko askotarikoagoak sortzeari begira), bai kultura-arloko ekintzei, ekitaldiei eta dinamikei egiten zaien zabalkundea hobetzean, herritarrek kulturaz hobeto jabetu daitezen, eta, hortaz, kulturaren sorreraren eta kultura-gozamenaren parte aktiboago izanik, haien dinamizazioa bultzatze aldera.

Orain arte deskribatutako elementu guztiak Planak bere koordenatuak definitzeko eta bere jomugak eta erronkak planteatzeko hartzen duen ikuspegiaren parte dira. 10 urtera begira planteatzen den ikuspegi hori, era berean, zeharkako lau aldagairen (euskara, genero-berdintasuna, aniztasuna eta kulturartekotasuna eta jasangarritasuna) kontsiderazio estrategikoan —hau da, zentrala, denboran jarraitua eta lagundua— ere oinarritzen da. Aldagai horiek erronkei eta ekintza-ildoei buruzko agenda propioa dute, eta gainerako ildo estrategikoen muinean egon behar dute, Planaren izaera, zentzua eta orientazioa definitzen laguntzen baitute.

Euskararen eta euskarazko kulturaren sorkuntza, zabalkundea eta ikusgaitasuna zaintzea, babestea eta berariaz laguntzea zeharkako planteamendu baten koordenatuak dira. Planteamendu horrek Planak hartzen duen ikuspegi osoa bildu behar du, eta udal-sailen arteko beharrezko lankidetza planteatu, baina baita arlo horien eta Bilbon euskararen eta kulturaren alde lan egiten duten eragileen artekoa ere.

Genero-berdintasuna ere proposatutako ikuspegiaren funtsezko osagaia da, emakumeek Bilboko bizitza kulturalean duten posizioa hobetzeko modu positiboan eragin nahian. Ikuspegi horrek, alde batetik, lehendik dauden politikak eta dinamikak berrikustera bideratu behar du bere begirada, genero-ikuspegitik, eta, bestetik, ekintza-ildo espezifikoak sortzera, erreferente eta kanon berrien birsorkuntzan modu espezifikoan eta positiboan eragiteko.

Aniztasunaren arreta kultura inklusiboa sortzean eta sortzen laguntzean oinarritzen da. Kultura inklusibo horrek gizarte gero eta askotarikoagoaren begiradak bildu eta erakartzeko gai izan behar du, gizarte, ekonomia, kultura, adin, gaitasun eta abarri dagokienez, eta kulturak gizarte-kohesioa sortzeko duen gaitasuna nabarmendu.

Planean **jasangarritasuna** txertatzeak berori udalaren kultura-ekintzan txertatzea du helburu, kultura deskarbonizatzen laguntzeko. GJHen integrazioa eta GJH espezifikoki kultural baten sustapena ere proposatutako ikuspegiaren parte dira.

PRINTZIPIOAK

Printzipioak esku-hartzea gidatzen duten **parametro etikoak** dira.

- ## KULTURARAKO IRISPIDEA DEMOKRATIZATZEA

Kultura-ekipamenduak, kultura-programazioa eta sorkuntza eta esperimentazio kulturaleko esperientziak berak herritar guztiek irispidean izatea, aukera-berdintasunean oinarrituta.

- ## GIZARTE-KOHESIOAREN ETA LURRALDE-OREKAREN ALDEKO APUSTUA

Hiriaren garapena, gizarte-kohesioari eta lurralde-orekari dagokienez, hura osatzen duten auzoetako azpiegiturei, ekipamenduei, programazioari eta kultura-jardunbideei erreparatuta.

- ## ENTZUTEA

Bilboko kultura-ehuna osatzen duten sortzaile, eragile, erakunde eta enpresekiko entzute aktiboa eta komunikazioa planteatzen diren esku-hartze guztien erdigunean dago.

- ## LANKIDETZA

Planteatutako ildo estrategikoak garatu ahal izateko, behar-beharrezkoak dira lankidetza, koordinazioa eta sareko lana, bai Udalaren barruan (udal-sailen eta erakundeen artean), bai bertatik kanpo (Udalaren eta kultura-eragileen artean eta, halaber, erakunde arteko mailan).

- ## KSI-EN ETA TOKIKO EHUNAREN ALDEKO APUSTUA

Testuingururik hurbileneko Kultura eta Sormen Industriak zaintzearen aldeko apustua, ehunari laguntzeko ikuspegitik, balio-katean eta ekimen pribatu eta asoziatiboari emandako arretan oinarrituta.

- ## BERRIKUNTZAREN ETA FORMATU BERRIEN ALDEKO APUSTUA

Kulturaren esparruan sektore eta adierazpen guztiei berrikuntza eta formatu berriak txertatzearen aldeko apustua.

- ## PUBLIKOAK

Publikoak eta audientziak sortzearen eta fidelizatzearen inguruan lan egiteko beharretik, gazteei eta aniztasun sozioekonomiko eta soziokulturalari arreta berezia eskainita.

- ## EUSKARAREN BABESA ETA SUSTAPENA

Norberaren identitatetik abiatuta, euskarari eta euskarazko kulturari bultzada eta arreta berezia ematea.

- ## GENERO-BERDINTASUNA

Kulturarako irispidean aukera-berdintasuna bermatzeko etengabeko lana, bai dimentsio profesionaletik bai herritarren dimentsiotik, dauden genero-desberdintasunak konpontzeko eta planteatzen diren esku-hartze berrietako edozeinetan diskriminaziorik eza bermatzeko.

6

ILDO ESTRATEGIKOAK

ILDO ESTRATEGIKOAK

ESKEMA OROKORRA

Plana **SEI ILDO ESTRATEGIKOREN** bitartez egituratzen da:

1.	Kultura Hiriaren kohesio eta eraldaketa sozialerako elementu gisa
2.	Kultura jarduera ekonomikoaren eragile gisa
3.	Kulturaren balio-katea aintzat hartzea
4.	Identitatea, irudia eta *Bilbo, kultura-hiria* marka. Kultura identitate, historia eta etorkizun gisa
5.	Lankidetza, Plana garatzeko funtsezko elementua
6.	Publikoak, audientziak eta komunikazioa

Sei ildo estrategiko horiez gain, Planak **ZEHARKAKO LAU ILDO** hartzen ditu barnean:

7.	Euskara
8.	Berdintasuna
9.	Aniztasuna eta kulturartekotasuna
10.	Jasangarritasuna

1. KULTURA HIRIAREN KOHESIO ETA ERALDAKETA SOZIALERAKO ELEMENTU GISA

Ildo estrategiko honek **kulturaren kontzeptualizazioari egiten dio erreferentzia, Bilbon gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzeko oinarrizko elementu gisa**, eta, hortaz, Hiriaren garapena bultzatzeko, gizarte-berdintasunaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik.

Bilboko Udalak bat egiten du Mondiacult (UNESCOren Mundu Biltzarra, Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzkoa) 2022ko azken adierazpenarekin eta konpromisoa hartzen du, horretarako, giza eskubide guztiak, bereziki kultura-eskubideak —indibidualak eta kolektiboak— errespetatzeko eta egikaritzeko ingurune egokia sustatzeko, kulturaren esparru guztietan, hasi kultura-ondaretik eta kultura- eta sormen-sektoreetara iritsi arte, ingurune digitala barne.

Ildo horretan, Bilboko Udalak ondorengoak bezalako elementuak kontuan izango ditu, kultura-eskubide deritzenekin zerikusia dutenak (batez ere kultura-bizitza irispidean izateko eta bertan parte hartzeko dimentsioan):

Kultura eskubide gisa

1. **Kultura-programazio egonkorra**, plurala eta kalitatezkoa bermatzea, herritarrei kulturarako irispidea errazteko aurrekontu eta baliabide egokiak izanda.

2. Herritar guztiek beren sormen-gaitasunak eta-ahalmenak eta kultura-identitateak garatzeko aukera izan dezaten ahalbidetzea, eta, horretarako, espazioak, baliabideak eta ezagutza eskaintzea.

3. *Kulturaren Agenda 21* babesten jarraitzea, kulturarako eskubidea modu eraginkorrean egikaritzen laguntzeko esparru kontzeptual eta tresna gisa.

4. Nazioartean kulturarako eskubidearen defentsan zeregin aktiboa izatea, CGLUren Kultura Batzordean eta/edo antzeko erakunde eta foroetan parte hartzearen bitartez.

Hurbileko azpiegiturak eta ekipamenduak, kultura-hedapenaren bizkarrezur

KULTURA-AZPIEGITUREN MAPAKETA, IRTEERA-LAUKIA

5. Barrutietako **udaltegien kultura-erabilerei buruzko urteko azterketa-txostena** egitea.

6. **Kultura-erabilerarako eskuragarri dauden eraikinen mapaketa eguneratuta edukitzea**, haien ezaugarriak eta erabilera-arauak, ordutegiak, zuzkidurak eta abar adierazita, elkarteek eta herritarrek horiek irispidean izateko aukera izan dezaten.

7. Udal-espazioak kultura-erabilerarako gaitzen eta egokitzen jarraitzea.

8. Ikastetxeak eskola-ordutegitik kanpo kulturarako erabiltzeko erraztasunak ematea.

HERRITARREK KULTURA IRISPIDEAN IZATEKO ATE IREKIA

9. Udal Liburutegiak irekitzeko **ordutegia** herritarren benetako eskarien arabera **eguneratzea**.

10. Udal Liburutegietako **ekipamenduak eta altzariak pixkanaka berritzen joatea**, dauden desberdinetara egokitu daitezkeen espazio erosoagoak, erakargarriagoak eta malguagoak lortzeko.

11. Udalaren kultura-ekipamenduen **espazio fisikoa egokitzea**, irisgarritasuna hobetzeko, oztopoak kentzeko eta **publikoen aniztasuna** aintzat hartzeko, kultura-ekitaldiak egingo diren **espazioak hautatzean**.

12. Barrutietako udaltegietako ekitaldi-aretoen zuzkidura hobetzea, herritarrei askotariko kultura-eskaintza hurbiltzeko.

13. **Sorkuntzarako eta baterako sorkuntzarako espazioak eskaintzea**, herritarrek kulturan modu aktiboagoan eta protagonistagoan parte har dezaten.

Kultura auzoen arteko integrazio- eta kohesio-faktore gisa

ERDIGUNEAREN ETA PERIFERIAREN ARTEKO OREKA, GILTZARRIA

14. **Kultura-jardueren deszentralizazioa bultzatzen jarraitzea** barruti guztietan, eskaintza gero eta auzo gehiagotara eta auzo bakoitzaren barruko kokaleku gehiagotara irits dadin sustatuz.

15. **Kultura-programazio orekatua** bermatzea, **barrutiek ahalik eta kultura-sektore gehienen ekimenak har ditzaten saiatuz (arte eszenikoak, ondarea, literatura, ikus-entzunezkoak, ikusmen-arteak, musika, diziplina arteko proposamenak eta abar)**.

16. **Erdiguneko jaialdiek, ekitaldiek eta ekipamenduek barrutietan programazio hedatua izan dezaten ahalbidetzea, eta, horretarako, herritarrekiko konexio-okasioak areagotzea.**

17. **Barruti bakoitza kultura-modalitate jakin batean** pixkanaka espezializatzeko aukera ematea, eta, horretarako, **haiek identifikatuko dituzten, kultura-nortasuna emango dien eta Hiri osorako elementu erreferentzialak izango diren jaialdi eta jarduera bereziak bultzatzea**.

18. **Hiriko auzoetako kultura-jarduerak lotuko dituzten ibilbideak edo zirkuituak sortzea**.

19. Kultura-jardunbide komunitarioaren eta hurbileko ekipamenduen arteko lankidetza sustatzea, auzoen gizarte-garapena zein Hiriko kultura-dinamismoa bilatzeko.

ANALISIAN OINARRITUTAKO BERRIKUNTZA

20. Udalaren kultura-jardueren **inpaktuaren eta nabarmentasunaren aldizkako diagnostikoak egitea**, **erabakiak hobeto hartzeko** eta auzoetako kultura-programazioa berritzeko eta berriztatzeko prozesuak abian jartzeko.

ESPAZIO PUBLIKOA, PROGRAMAZIOAN OREKA LORTZEKO ETA HERRITAR GUZTIEN KULTURARAKO IRISPIDEA AHALBIDETZEKO ALIATUA

21. **Espazio publikoan doako kultura-eskaintza bultzatzea**.

22. Obren arloan eskumena daukan udal Sailarekin koordinatuta lan egitea, **kultura-jarduerak** kale eta plaza publikoetan **hobeto integratzeko aukera emango duten berrikuntzak eta diseinuak egiteko espazio publikoan**.

PARTE-HARTZE SOZIALA, KULTURA-PROGRAMAZIOA DEMOKRATIZATZEKO BERMEA

23. **Udalaren kultura-ekintzari buruzko erabakiak hartzean parte-hartze soziala integratzea** (hiri-espazioen erabilerei buruzko inkestak, ideia-lehiaketak, kulturari buruzko partaidetzazko aurrekontuak...). Parte hartzeko prozesuak abian jartzea, herritarrek **rol aktiboagoa** izan dezaten programazioan bertan.

24. **Parte hartzeko dinamikei jarraipena ematea** (hala nola Kulturaren Plan Estrategikoa bera lantzeko egindakoari), herritarrek eta sektoreek udaren kultura-politikan duten parte-hartzea areagotzeko.

25. Barrutietako kontseiluetako batzorde soziokulturalekin lankidetzan jardutea, herritarren topaguneak eta udalaren kultura-gaietan parte hartzeko guneak baitira.

2. KULTURA JARDUERA EKONOMIKOAREN ERAGILE GISA

Kultura, **Bilboren garapen ekonomikoari eta posizionamenduari laguntzen dion faktore** gisa, ekonomiaren aldetik egiten duen ekarpenaren aitormenean eta garapen horretan laguntzen duten beste lan-esparru batzuekin interakzioan jarduteko gaitasunean oinarrituta. Honako hauek bezalako esparruei buruzkoa izan daiteke:

Kultura- eta sormen-sektoreari laguntzea, Hirian sorkuntza eta berrikuntza bultzatzeko estrategiaren zutabea

26. Udal-sailek sustatutako kultura- eta sormen- sektorearentzako finantzaketa-lerroak koordinatzea, eraginkortasuna hobetzeko eta bikoizketak saihesteko.

27. Laguntzen burokratizazioa murrizteko eta haien tramiteak sinplifikatzeko aukera aztertzea, ekonomia- eta finantza-kontrolaren ardura duten udal-sailekin lankidetzan.

28. Hitzarmen bidezko dirulaguntza izendunak konkurrentzia-dirulaguntzen aurretik lehenestea, tokiko kultura-erakundeei egonkortasun handiagoa eta tramitazio-zailtasun txikiagoak emateko.

29. Dirulaguntzen urteko deialdiaren ebazpena arintzea, ahalik eta epe laburrenean ordaindu ahal izateko.

30. **Laguntzen jarraipena egiteko eta inpaktua neurtzeko sistema** bat inplementatzea.

31. **Programazioan egonkortasuna bermatzea**, tokiko enpresa eta konpainiek **oreka ekonomikoa** manten dezaten eta **talentua atxikitzeko aukera izan dadin**.

32. **Laguntza- eta babes-lerro berriak** sortzea **gorabidean dauden artistentzat eta tokiko enpresentzat**.

33. Udalak **tokiko kultura- eta sormen-ehunaren babesletza pribatua** sustatzea.

34. RIS3 Euskadi Sortzailea programan eta beste erakunde batzuek abian jartzen dituzten nazioartekotzeko eta KSIei zeharka laguntzeko ekimen publiko guztietan parte hartzean sakontzea, garapen ekonomikoaren arloan eskumena duen udal-sailarekin koordinatuta.

Nazioartekotzeari laguntzea: kultura Hiriaren enbaxadore gisa

ALIANTZAK EGITEA ABIADA HARTU ETA JAUZI EGITEKO

35. **Etxepare Institutuarekin** lankidetzan jardutea, artisten nazioarteko zirkulazioari bidea emateko, tokiko kultura- eta sormen-sektorea gehiago zabaltze aldera.

36. Bilboko kultura eta sormena nazioartekotzea, Europako eta munduko beste sare batzuekin indarrak batuz. Ildo horretan:

    a. **Bilbok CGLUren Kultura Batzordean duen parte-hartzea sakontzea.**

    b. **Bilbok UNESCOren Sormen Hirien Sarean duen parte-hartzea sakontzea**.

37. **Kultura- eta sormen-eragileen nazioartekotzea eta Hiriaren kultura-posizionamendua bultzatzeko bide berriak aztertzea**, nazioarteko gaien eskumena daukan udal-sailarekin lankidetzan.

UDALA BITARTEKARI GISA, NAZIOARTEKO POSIZIONAMENDURAKO LORBIDEA

38. Hiria kanpoaldean sustatzeko ekitaldietan (turismo-azokak, ekitaldi instituzionalak eta abar) tokiko kultura- eta sormen-arloko eragileen eta/edo produktuen **presentzia** erraztea eta **sustatzea** (hainbat formatutan).

39. Tokiko kultura- eta sormen-eragileei mesede egingo dieten proiektuetan lagun egitea eta **Europako baliabideak biltzea**.

40. Bertako sortzaileak proiektatuko dituzten **truke-aukerak** aprobetxatzea. Nazioarteko sareetan Bilboko kultura-sektorearen presentziari bidea ematea eta erakundeak Europako deialdietara aurkez daitezen bultzatzea.

Kultura-turismoa garapen ekonomikoaren eragile gisa

KULTURAREN ORIENTAZIO TURISTIKOA: BILBOREN KULTURA- ETA SORMEN-KAPITALAREN BALIOA NABARMENTZEKO ESTRATEGIA

41. Inplikatutako eragileekin **marka bultzatzeko estrategia lantzea, Bilboren kultura-kapitala sustatzeko**. Nazioarteko ekitaldien politika (biltzarrak eta abar) Hiriko kultura-politikarekin bat etorraraztea.

42. Turismoaren arloan eskumena daukan udal-sailarekin lan egitea kulturaren eta ekitaldien eginkizuna indartzeko, bisitatzen gaituzten pertsonen motibazio nagusi gisa. **Egungo kultura-programaziotik Hiriaz kanpoko publikoarentzat trakzio-ahalmena duen guztia *paketizatzea*.**

43. Tokiko **turismo-sektorearekin aliantzak ezartzea** (hotelak, bidaia-agentziak, taxiak eta bisitariekin lehen harremana ezartzen duten beste eragile batzuk), gure kultura-eskaintza (kultura-programazioa, ondarea...) bisitatzen gaituzten pertsonei komunikatzeko.

44. **Bilbo Metropolitarreko kultura-jardueraren sustapen handiagoa** garatzea, beste erkidego batzuetako bisitariak erakartzeko eta haien egonaldia luzatzeko. Kalitate handiagoko turismoa lortzea, eta, horretarako, kultura-jardueren aniztasun handiagoa eskaintzea eta jarduera horiek politika gastronomiko onarekin osatzea, horrela hiri-marka sortzeko.

3. KULTURAREN BALIO-KATEA AINTZAT HARTZEA

Kulturaren Plan Estrategikoaren arreta balio-katera bideratzen da, batez ere lanbide-jarduera abiapuntu eta jomuga hartuta, eta kontuan hartzen dira, halaber, gorabidean eta/edo prestakuntza- eta finkatze-prozesuan dauden artistak eta sortzaileak. Berekin dakar, inplizituki, Hirian jarduten duten kultura- eta sormen-sektoreak aintzat hartzea.

Honako aldi hauen inguruan hedatutako balio-katea proposatzen dugu:

Ikerketa eta prestakuntza

45. Prestakuntza-erakundeekin lankidetzan jardutea (UPV/EHU, Dantzerti, Juan Crisostomo de Arriaga Musika Kontserbatorioa, eta abar) artista berriak lan-munduan txertatzea erraztuko duten lanbide-praktikak eta-esperientziak bideratzen.

46. Musika-irakaskuntza ez-arautura (Bilbao Musika) bideratutako udal-espazioen zabalkuntza aztertzea, horien potentzial guztia erabiltzeko eta herritarrei irekitako jarduerak zabaltzeko aukera emango dien azpiegitura berri bat bilatuz.

47. Profesionalizazioarekin zerikusia duten gai guztietan (kudeaketa, kontratazioa, egile-eskubideak, produkzioa, banaketa eta salmentak) **arte-prestakuntza osagarria zabaltzea**, gaur egun arteetan prestatzen diren pertsonak ekintzaile izateko moduan egon daitezen. Modu espezifikoan, konpetentzia digitalen gaia aintzat hartzea.

48. Udal Artxiboari buruzko ezagutza indartzea.

Sorkuntza

49. **Bizkaiko Foru Aldundiarekin aztertzea Bilbon eta lurralde historikoan oro har dantzaren sektorea indartuko duten politikak inplementatzeko aukera.**

50. Gorabidean dauden eta finkatutako sortzaileen beharrei erantzungo dieten **egoitzen eta lagun egiteko / anezka moduko programen eskaintza handitzea**.

51. Hiriaren **erdigunetik kanpoko espazioak berregokitzea**, hainbat arte-modalitatetan sorkuntzarako egoitza gisa erabil daitezen errazteko.

52. Gazteriaren arloan eskumena daukan udal-sailarekin lankidetzan, pertsona eta kolektibo gazteen sormenari laguntzeko programak bultzatzea (adibidez, VillaSound), eta pertsona eta kolektibo horiek udal-ekipamenduetan sormenerako espazioak erabiltzeko erraztasunak ematea (adibidez, Bilborock, La Perrera edo beste batzuk).

53. Artisten adierazpenera bideratutako udal-espazioak handitzea.

Produkzioa

54. **Lankidetzan jardutea Bilbao Bizkaia Film Commission indartzen.** Ikus-entzunezkoen produkzioari laguntzeko **udal-dirulaguntzen lerro bat abian jartzea**, gainerako erakunde publikoenekin bateragarriak eta lerrokatuak.

55. **Ikus-entzunezko industriarentzako aukera-espazio bat garatzea**, behar adinako **zuzkidura tekniko eta espaziala izango duena**, hura bultzatzeko polo gisa jardungo duena eta **kate-maila guztietan garatzeko balioko duena (filmaketak, produkzioa, postprodukzioa eta abar)**.

56. Kultura-sorkuntza eta-produkziorako udal-laguntzaren baldintzak malgutzea, eta, horretarako, dirulaguntza hutsaz harago doazen eta denbora luzeagoan lagun egitea berma dezaketen ereduak aztertzea, eta, halaber, babesletzak edo koprodukzioak eskaintzea.

Banaketa, merkaturatzea eta erakusketa

57. **Liburuaren sektoreari udal-laguntza ekonomikoa ematea, liburutegietarako funts bibliografikoen erosketaren bidez.**

58. **Arte eszenikoen egungo erakusketa mantentzea eta indartzea, gaur egun dauden espazio eszenikoen arteko oreka eta definizioa eta horien programazioen arteko koordinazioa bilatuz**.

59. **Arriaga Antzokia *B areto* batez hornitzeko aukera aztertzea**. Areto horrek aukera emango luke produkzioak denbora luzeagoan eskaintzeko, proposamenak edukiera txikiagoetarako edo formatu ausartagoetarako sailkatzeko eta herritar gazteentzako espazio hurbilagoaren eginkizuna betetzeko.

60. **Arriaga Antzokiaren *trakzio-espazioaren* rola bultzatzea**, beste espazio eta programazio batzuekin aliantzak lortu ahal izateko.

61. **Ikus-entzunezko jaialdien arteko oreka eta definizioa bilatzea, kontraprogramazioak saihesteko eta haiekin lankidetzan jarduteko, haien programazioa urte osoan zehar hedatu ahal izan dadin, jaialdi bakoitzaren data zehatzetan egindako lanari errentagarritasun handiagoa ateratzeari begira**.

Bitartekaritza

62. **Udal-liburuzainek** herritarrekiko harremanetan **lehen lerroko bitartekari eta bideratzaile gisa egiten duten lana bultzatzea**.

63. **Unibertsitateen eta ikastetxeen** eta jaialdien eta zinema-aretoen **arteko harreman-bidea irekitzea**.

64. Bitartekaritza-lanak egin ditzaketen **ikastetxeetara artistak hurbilduko dituzten programak eskaintzea**.

Kudeaketarako laguntza

65. Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari kultura-sektoreari laguntzeko bulego bat sortzeko aukera helaraztea, sektore horri bere eguneroko zereginetan laguntzeko, informazioa emateko edo mentore-lanak egiteko eta bere finantzaketa-aukerak areagotzeko. Proiektu horrek udalaren lankidetza izango luke.

Kultura-jardunbideak eta -kontsumoa

Balio-katearen maila horretako jarduketak aurrerago garatuko ditugu, seigarren ildo estrategikoan (Publikoak, audientziak eta komunikazioa).

4. IDENTITATEA, IRUDIA ETA *BILBO, KULTURA-HIRIA* MARKA. KULTURA IDENTITATE, HISTORIA ETA ETORKIZUN GISA

Ildo honetan, kultura eta bere adierazpenak Bilboren, haren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko kontakizuna sortzeko gaitasunean oinarrituta kokatzen dira. Ildo estrategikoak **kontakizun horri buruzko jarrera** hartzeko eskatzen du, zer hiri-eredu proiektatu eta kontatzen dugun zehazteko.

Kultura hiriaren marka-irudi gisa finkatzea

KULTURAREN BIDEZ EZAGUTZERA EMATEA. *BILBO, KULTURA-HIRIA* MARKA-IRUDIAREN ANALISIA ETA KONTZEPTUALIZAZIOA

66. **Bilboren kultura-identitatea diseinatzea**, barruko publikoarentzat (Bilboko herritarrak) eta kanpokoarentzat (bisitariak), eta inbertsioa (eragile ekonomikoak) eta talentua (sormen- eta kultura-eragileak) erakartzeko:

    a. Tokiko kultura-identitatea osatzen duten atributuak definitzea.

    b. Kulturari lotutako hiriaren markaren inguruan transmititu nahi den irudia definitzea.

    c. *Bilbo, kultura-hiria* eta *Bilbao Kultura 365* markak indartzea.

67. **Bilboren identitate historikoa** berreskuratzea kultura- eta ondare-legatuari dagokionez, herritarrek nondik datorren jakin dezaten.

68. **Bilboren kultura-marka** haren **auzoetan** ere sostengatzen delako **kontakizuna indartzea**.

BILBOREN MARKA-IRUDI KULTURALA ERAGINKOR BIHURTZEA. ESTRATEGIA LEKUAN BERTAN ABIAN JARTZEA

69. **Kulturak Hiriaren eraldaketan ekarri duenari buruzko kontakizuna** garatzea.

70. **Bilboren kultura-identitatea garatzea:**

    a. **Bilbo marka** Hiriko **museoetan** eta arte-zentroetan eta arte-sorkuntzakoetan **ardaztea**.

    b. Kalitatezko kultura-eskaintza planteatzea, besteengandik bereiziko gaituena, eta, horretarako, udalerria ordezkatzen duten eta bilbotarrek ezagutzen dituzten **kultura-elementu bereizgarriak** identifikatzea eta garatzea.

71. **Bilbo** *Zinemaren hiri* gisa **indartzea eta sustatzea**:

    a. **Bilbon istorioak garatzen dituzten** proiektuetara laguntzak bideratzea, ikus-entzunezkoetarako Bilbo marka indartzeko.

    b. **Bilbon filmaketak eta ikus-entzunezko produkzioa erraztea**, Bilbao Bizkaia Film Commission zerbitzuaren bitartez.

72. **Bilboren identitate propioa kontserbatzea eta transmititzea** (ondarearen ikuspuntutik), eta, horretarako, Bilboren identitatea, ezaugarri historikoak, sozialak, kulturalak eta identitarioak gazteenei transmititzeko ekintzak sortzea.

73. **Bilboko ondarea ezagutzea, mapatzea eta ezaugarritzea**, eta ondarea sustatzeko, hedatzeko eta ezagutarazteko estrategia orekatua garatzea.

5. LANKIDETZA, PLANA GARATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUA

Ildo estrategiko hau instrumentalagoa da, eta ez hain kontzeptuala. Udal-sailen eta -erakundeen artean eta horien eta kultura-eragileen artean kulturaren inguruan lan egiteko komunikazio-dinamikak eta-espazioak sortzea, zuzentzea edo indartzea helburu duten ekintza guztiei egiten die erreferentzia.

Gainera, erakundeen arteko koordinazioan eta akordioan oinarritzen diren ekintzetarako tartea egon daiteke, eskumen-konkurrentziaren testuingurua kontuan hartuta.

Udal-sailen eta -erakundeen arteko lankidetza

74. **Udal-gobernuaren sailen organigrama, behar izanez gero, kultura-politiken bilakaerara egokitzea.**

75. **Kultura Sailaren barne-organigrama, behar izanez gero, kultura-politiken bilakaerara egokitzea.**

76. **Kultura-jarduerak programatzen dituzten udal-sailen arteko koordinazio handiagoari bidea ematea** (Kultura, Jaiak, Gazteria, Euskara eta Hezkuntza, Ekonomiaren Garapena...), eta, horretarako, haien artean koordinatzeko prozedurak edo mekanismoak sortzea, kontraprogramazioak saihesteko eta baliabideak optimizatzeko.

77. **Kultura Sailaren eta espazio publikoak jarduerak antolatzen inplikatutako sailen arteko koordinazio handiagoari bidea ematea.**

78. Udalbatzako talde politiko guztiak udalaren kultura-politikaren partaide egitea, horretarako urteko agerraldietan programak aurkeztearen eta horien kontuak ematearen bidez.

Udal-sail eta -erakundeen eta kultura-eragileen arteko lankidetza

79. Bilbon dauden kultura-eragileen mapa eguneratua egitea.

80. **Kulturaren Udal Kontseilua sortzea.**

81. **Eragileen arteko koordinazioa hobetzea, eta, horretarako, nahi gabeko kontraprogramazioa saihestea eta baliabideak partekatzeko aukera planteatzea**.

82. **Udal-esparruan museoen arteko koordinazioa eta lankidetza bultzatzea**, betiere haien koordinazioa partekatzen duten gainerako erakundeen adostasunarekin.

83. Bilbon artearen eta kulturaren erreferenteen arteko lankidetza bultzatzea.

Erakunde arteko lankidetza

84. Kultura Sailak HAKOBA Kulturan (Herri Administrazioen Kultura eta Ondare Batzordea) duen partaidetza sakontzea, eta Bilboko kultura- eta sormen-sektoreak sortzen dituen proposamenak esparru horretan eztabaidatzeko helaraztea.

85. Osagarritasunean oinarrituta, EAEko hiriburuen arteko kultura-esparruko lankidetza bultzatzea.

6. PUBLIKOAK, AUDIENTZIAK ETA KOMUNIKAZIOA

Ildo honen helburua da **publiko eta audientzien inguruan lan egitera** bideratutako ekintzak biltzea, **kulturaren sostengu eta garapenerako oinarrizko elementu gisa**. Honako hauek bezalako erreferentzia-esparruak sar daitezke:

Publikoa baterako subjektu sortzaile gisa. Parte-hartze pasibotik erantzukizun kolektibora

86. **Kultura-publikoen plan bat egin eta inplementa dadin sustatzea**, publikoak hobeto ezagutu eta segmentatzeko, kultura-edukiak herritarrei kanal berrien bidez hurbiltzeko, topaguneak eta hitz egiteko espazioak sortzeko, parte-hartzea bultzatzeko eta programak modu partaidetuan batera diseinatzeko ereduei bidea emateko.

    Plan horrek honako ezaugarri hauek izango ditu:

    - Adin-geruzen errealitatera egokituta egongo da, eta haietako bakoitzaren erronka espezifikoei erantzuten ahaleginduko da.
    - Kultura-diziplina posible guztiak hartuko ditu.
    - Parte hartzeko moduan batera sortuta egongo da, eta herritarrei eta kultura-eragileei aktiboki entzuteko mekanismoak izango ditu.
    - Sorkuntzarako eta publikoak sustatzeko eta fidelizatzeko tresnak konbinatuko ditu.

87. **Kultura-programazioetan artistaren eta publikoaren arteko topaketa-uneak bultzatzea**, produktu amaituaz harago (prozesuan dauden sorkuntzen entseguetarako bisitak, film osteko hitzaldiak zinema-aretoetan, diziplina jakin batzuk zuzenean praktikatzeko edo ezagutzeko lantegiak edo masterclass-ak...).

88. **Espazio eszenikoetara joatea *gizarte-plan* bihurtzea**, topagune bat sortzeari bidea emanez, esperientzia emanaldiak irauten duenaz harago joan dadin.

89. **Kultura-lan amateurra sustatzea**.

90. **Jarduera presentziala bultzatzea**, herritarren ohitura-aldaketak **aztertuz** eta, behar izanez gero, kultura-jardueren egunak eta ordutegiak birpentsatuz.

Publiko gaztea, kezka eta ardura sortzen duen erronka bati erantzutea

91. **Gazteekin entzute aktiboko prozesuak egitea** gaur egungo kultura-eskaintza lantzeko:

    a. Gazteek **gehien erabiltzen dituzten kanalen** ezagutzan sakontzea.

b. **Publiko gaztearentzat erreferenteak bilatzea** eta, pertsona horiekin lankidetzan, publiko gaztea erakar dezaketen jarduerak (tertuliak, lantegiak...) sortzea.

92. **Bilboko Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluarekin sinergiak sortzea, haurrek eta nerabeek kultura-proposamenetan aktiboki parte hartu ahal izatera zuzendutako plan bat egiteko.**

93. **Lokal erakargarriak egokitzea, publiko gazteak** bere kultura-programazioa sortzeko aukera izan dezan.

94. **Gazteei zuzendutako komunikazioa garatzea**, teknologia berrien eta sare sozialen bitartez, gazteentzat egokitutako *hizkerak* erabilita.

95. Ahal diren udal-ekipamendu guztiak inplikatzea (eskolak, udaltegiak, Bilborock aretoa, La Perrera, Itxaropen kaleko pilotalekua —etorkizun hurbilean—, Ramoni, Gazteguneak...), kultura biztanle gazteen bizitzan integratzeko.

Garai berri baterako komunikazio-estrategia berriak

96. **Kulturaren Komunikazio Plana egitea**, helburuak, audientziak, tresnak, mezuak eta abar zehazteko eta Udal osoaren kultura-programazioa barnean hartzeko eta koordinatzeko.

97. **Hiriaren kultura-ikuspegi integrala aintzat hartzen duen komunikazio argia bultzatzea**, eta, horretarako, etengabeko ikusgaitasuna eskaintzea sektore publikoak eta pribatuak Hirian kultura-sektore guztietan egiten dutenari.

98. **Espazio edo erakunde txikienetako jardueren zabalkundea hobetzea.**

Euskarriak eta komunikazio-tresnak eguneratzea

ONLINE

99. **Kultura Sailaren webgune berri bat sortzea**, informazioa sektoreen, barrutien eta auzoen arabera behar bezala segmentatuta.

100. **Webgune horretan agenda erkide bat izatea, Hiriaren kultura-programazio osoa kontsultatzeko**, modu segmentatu eta argian argitaratuta.

OFFLINE

101. Hiriko kultura-interesguneak adierazten dituzten **seinaleak instalatzea** kalean.

102. Bilboko kaleetan kultura-ekitaldiei buruzko **informazio-euskarriak instalatzea**.

103. Hiriko kultura-programazioa udal-espazioetan banatu beharreko euskarri fisikoetan ere argitaratzea (programak, liburuxkak...), eten digitala gainditzeko.

7. EUSKARA

Euskara kulturan sustatzeko (edukiak, erabilera, transmisioa) eta euskarazko kultura sustatzeko estrategikoki pentsatutako ekintzak biltzea helburu duen **zeharkako ildoa**. Zehazki:

104. **Udalaren euskarazko kultura-eskaintza bultzatzea.**

105. **Udalaren euskarazko kultura-eskaintza behar bezala komunikatzea, erakargarria izan dadin.**

106. **Euskara irispidean izateko tresnak ahalbidetzea**: azpitituluak jartzea, doako prestakuntza-ikastaroak, kultura-espazio edo-programetan erraztasunak ematea.

107. **Euskarazko sorkuntza eszenikoak babestea**.

108. **Bilboko Udal Liburutegien Sarearen euskarazko funtsa dinamizatzea honako hauen bidez: erakusketa espezifikoak egitea, nobedadeen erakusmahaietan euskarazko liburuak sartzea, sare sozialetan sustatzea eta abar.**

109. **Euskararekin zerikusia duten Bilboko kultura-balioak azaleratzea**, argitalpenen, euskararen ikuspuntutik egindako ibilbide historikoen, euskarari buruzko biltzarren eta abarren bidez.

110. **Euskarazko kultura-edukien sortzaileei ikusgaitasun handiagoa ematea.**

111. Tokiko **eragile eta erakundeen laguntza eta lankidetza izatea** kulturaren barruan euskararen erabilera bultzatuko duten proiektuetan.

8. BERDINTASUNA

Berdintasunaren ikuspegitik kultura sortzea sustatzeko eta kulturatik desberdintasun-elementuak desagerrarazten laguntzeko —sexu- eta genero-aniztasuna ere kontuan hartuta— estrategikoki pentsatutako ekintzak biltzea helburu duen zeharkako ildoa. Honako hauek jasotzen ditu:

112. Udal-titulartasuneko espazioetako programazioaz arduratzen diren langileak **genero-berdintasunean sentsibilizatzea eta prestatzea** (genero-ikuspegia duen kultura-programazioa, intersekzionalitatea, estereotipoen haustura, eta abar).

113. Etorkizuneko Publikoen Planaren barruan, informazioa biltzeko sistemak hobetzea, sexu aldagaia txertatzeko eta **emakumeen eta gizonen arteko behar, lehentasun eta abarretan dauden diferentziak** kontuan hartzeko.

114. Emakumeek udalaren kultura-programazioaren esparruan duten eginkizuna ikusaraztea.

115. Literatura-sari, jaialdi, kultura-lehiaketa, artistentzako egoitza-beka eta abarretarako epaimahaien osaeran emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkaritza orekatua sustatzea.

116. Kultura-programazioan emakumeen presentzia handiagoa sustatzea, eta, ildo horretan, emakumezko hizlari eta artisten kontratazioa bultzatzea.

117. Komunikazio-politika eta-edukiak berrikustea, **rolen eta estereotipoen haustura** eta genero-berdintasunean oinarritutako kulturaren **erreibindikazioa** bultzatzeko (sexu- eta genero-aniztasuna ere barne).

118. **Kultura-programazioa ebaluatzeko kultura** neurri handiagoan garatzea, publiko eta audientzien ezagutzan aurrera egitea ahalbidetuko duten adierazleak definituz, baita **genero-ikuspegitik** ere.

119. **Berdintasunaren arloan eskumena daukan udal-sailarekin koordinazioa** bilatzea, *Bilboko arte eszenikoetako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterketan* definitu diren hobetzeko edo esku hartzeko esparruen inguruan lan egiteko.

120. **Emakumeek Bilboko kultura-adierazpen eta-sektore guztietan egiten dituzten ekarpenak ikusarazten eta haien balioa nabarmentzen** laguntzea, bai historian, bai gaur egun, eta, batez ere, emakume gazteenentzako elementu erreferentzial positiboak sortzeko asmoa izatea.

121. **Kultura Sailaren eta hari atxikitako erakundeen produkzio propioetan emakumeen lidergoa bultzatzea.**

9. ANIZTASUNA ETA KULTURARTEKOTASUNA

Zeharkako ildo honen helburu orokorra da modu estrategikoan kontuan hartzea publiko eta audientzietan dagoen aniztasuna, adinarekin nahiz kultura-jatorriarekin, baliabide ekonomikoetarako irispidearekin, gaitasunekin edo interesgarritzat eta gogoan hartu beharrekotzat jo daitezkeen beste batzuekin zerikusia duten aldagaiak kontuan hartuta. Honako hau proposatzen da:

122. Eten digitalak kultura-jardueren zabalkundean eta haietarako irispidean duen inpaktua minimizatzea.

123. Bereziki **adineko pertsonei** zuzendutako kultura-jarduerak egitea eta **programazio horren diseinuan Udalarekin lankidetzan jarduten duten adineko pertsonek osatutako Talde Eragilea inplikatzea**.

124. **Udalaren kultura-programazioetan eta, bereziki, Arriaga Antzokia bezalako erreferentziazko ekipamenduetan ikasle, langabe, erretiratu eta abarrentzako prezio eta deskontuen** politika egokitzen jarraitzea.

125. **Bilbon dagoen kultura-aniztasuna Hiriko kultura-zirkuituan islatzea.**

126. Barrutietako bizitza elikatzen duten **komunitate migratzaileen eta askotarikoen integrazioaren alde egitea**, eta, horretarako, kultura-programazioan ahotsa eta espazioa ematea, eta auzoetan **kulturartekotasuna** eta bizikidetza **bultzatzeko ekimen gehiago** garatzea.

127. **Atzerritar jatorriko komunitateen inplikazioaren alde egitea**, herritar askotarikoagoak, globalagoak eta toleranteagoak bultzatzeko.

128. **Kolektibo eta gutxiengo guztientzako irisgarritasuna eta parte-hartze kulturala** bermatzea.

10. JASANGARRITASUNA

Zeharkako lerro honen asmoa da kultura-ekintzari jasangarritasunaren ikuspegia txertatzea eta gure esparru zehatzetik Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) tokiko eskalan lortzen laguntzea. Ildo horretan, litekeena da:

129. Oro har, kultura deskarbonizatzen laguntzea.

130. Udalaren kultura-espazioek **energia-kontsumoan efizienteak izateko** behar diren instalazioak edo teknologiak txertatuko dituztela bermatzea.

131. Kanpoko espazioetan egiten diren kultura-ekitaldiek ingurumen-aztarna murritz dezaten sustatzea, erabilera bakarreko edo birziklatzen zailak diren elementuak saihestuz eta herritarrak haien aztarna minimizatzeko erantzunkide izan daitezen erraztuz.

132. Udal-titulartasuneko espazioetako programazioaz arduratzen diren langileak **jasangarritasunaren eta GJHen inguruan sentsibilizatzea eta prestatzea**.

133. Kultura Sailaren dirulaguntza izendunak bideratzen dituzten hitzarmenetan **jasangarritasun ekonomikoaren, baliabide materialen eta ingurumenaren ikuspegia** sartzea.

134. Kulturako GJHen kokalekuaren inguruko adierazle sorta lantzea.

135. 2030 osteko GJHen barruan kultura-helburu espezifiko bat ("18. helburua edo kultura-helburua" deritzona) sar dadin bultzatzea.

7

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Sarrera

Politika publiko ororen funtsezko eta ezinbesteko elementuetako bat politika horren **aurrerapenak eta inpaktuak neurtzeko sistema** da, eta arreta berezia jartzen du izan ditzakeen doikuntzak eta behar berriak hautemateko gaitasunean, batez ere Plan honena bezalako epe ertain-luzerako plangintzetan. Horregatik, funtsezkoa da erronka eta helburu argi eta bideragarriak eta horiei lotutako adierazleak finkatzea, Plan Estrategikoaren beraren esku-hartzeak modu jarraitu eta errealean monitorizatzeari begira.

Ikuspuntu praktikotik, jarraipen-eredu horrek honetarako balioko dio Bilboko Udalari:

- **Garatutakoa komunikatzeko, justifikatzeko eta balioesteko:** gure lanak gizartean sortzen duen balioa nabarmentzeko eta efizientziaz komunikatzeko. Prozesu hori *datutik kontakizunera* izenda dezakegu, edo, intuizioei zenbakiak jarri ondoren —gogora dezagun erakundeak berak inork baino hobeto dakiela nola funtzionatzen duen—, inpaktua transmititu, ukigarria zein ukiezina, kontuak emateko eta mezua herritarrei berei helarazteko.

- **Barne-estrategia lantzeko eta/edo desbideratzeak zuzentzeko:** hau da, Planak sortzen duen efektua denbora errealean ezagutzeko eta bere helburuari buruz gogoeta egiteko, betetzen ari den eta lortzeko prozesuan zer ekintza egin behar diren zehazte aldera. Garrantzitsua da, beraz, espero diren helburuak azpimarratzea eta prozesuaren hasieran lortu nahi genuenaren eta benetan gertatzen ari denaren artean dagoen aldea konparatzea.

- **Lankidetza eta esku-hartze berriak zehazteko:** bestela esanda, Planera eragile edo kolaboratzaile berriak erakartzeko balio du alderdi horrek. Horiek funts ekonomikoak edo esku hartzeko ildo berriak ekar ditzakete, edo babes mediatikoa eman dezakete, besteak beste.

Informazioari eta datu-iturriei dagokienez, adierazi beharra dago gaur egun udalaren kultura-ekintzak hainbat tresna dituela Bilboko kultura-errealitatea ezagutzeko, egindako diagnostiko kuantitatiboaren atalean ikus daitekeen bezala: Udalaren beraren iturriak (memoriak, open data, kultura-programazioaren datuak), Eustat, Kulturaren Euskal Behatokia... Hala ere, Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoa (2023-2033) onartuta, sistema hori osatu eta sakondu egin behar da, jasotako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Jarraipen-eredu berri hori eraikitzeko, bi ebaluazio-mekanismo zehaztu dira:

- **Bi urtez behingo jarraipen-txostenak:** estrategiaren ekintza eta ekimenen aurrerapen-maila bilduko dute. Txostenak lagungarriak izango dira tarteko eta amaierako ebaluazioak egiteko.

- **Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoaren (2023-2033) ebaluazio-txostenak:** txosten horiek 2028. urtean (tarteko ebaluazioa, esku-hartzea doitzeko eta egokitzeko) eta 2033. urtean (amaierako ebaluazioa) egingo dira.

Ebaluazio-izaera duten txosten horiek egindako prozesua eta Plan Estrategikoan jasotako ekintza eta ekimenen inpaktua aztertuko dute, baita aginte-taularen adierazleen bilakaera ere. Horrez gain, eta beharren arabera, txosten eta analisi sektorial espezifikoak egingo dira aurreko horiek osatzeko.

Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesu horietan sortzen diren dokumentazio, informazio eta analisi guztiak herritar guztiek eskuratzeko moduan egongo dira, Kulturako udal-webgunearen eta Bilboko Udalaren Gardentasun Atariaren bitartez kontsultatu eta parte hartzeko aukera izan dezaten.

Adierazle-panela

Plan Estrategikoaren jarraipena eraginkorra izan dadin, erronka nagusien eta planifikatutako ekintzen **bilakaera egituratu eta monitorizatzeko adierazle-panela** eraiki da.

Kultura Saileko arduradunak koordinatuko du neurketa-panel horren erabilera, eta udaleko hainbat teknikarik eta informazio interesgarria eman dezaketen kanpoko langileek parte hartu ahal izango dute panel hori betetzen. Panela udal-sail bakoitzaren idiosinkrasiara egokituko da, eta eremuak gehitu eta kendu ahal izango dira, arduradunek egokitzat jotzen badute. Gero, informazio hori jarraipenak eta ebaluazioak egiteko erabiliko da.

Panel-proposamen honen helburua da **Planaren ildo estrategikoei lotutako erronkak eta helburuak lortzeko funtsezkotzat identifikatu diren adierazleen inguruko hausnarketa** sortzea. Adierazle horiek kuantitatiboak badira ere, horiek aztertzeko informazio kualitatiboa behar da, eta informazio hori da elkarrizketen eta lantaldeen bitartez bildutako datuen kontakizunak eta azalpenak jasotzea bilatzen duena. Azken batean, tresna horren azken helburua da, informazio kuantitatiboaren lehen bilketatik abiatuta, ondorio kualitatiboak ateratzeko erraztasunak ematea.

Ondoren aurkeztuko dugu Plan Estrategikoa zenbateraino betetzen den neurtzeko sistema (**Aginte Taula Integrala**).

1. KULTURA HIRIAREN KOHESIO ETA ERALDAKETA SOZIALERAKO ELEMENTU GISA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Kultura eskubide gisa	○ Kultura-elkarteen kopurua
Hurbileko azpiegiturak eta ekipamenduak, kultura-hedapenaren bizkarrezur	○ Azpiegitura/ekipamendu soziokulturalen kopurua (barrutiaren eta tipologiaren arabera) ○ 1.000 biztanleko azpiegitura/ekipamendu soziokulturalen ratioa ○ Urtean Liburutegien Sarera joaten direnak ○ Udal Artxibora urtean egindako kontsulta kopurua ○ Kultura-ekipamenduen balorazio soziala
Kultura auzoen arteko integrazio- eta kohesio-faktore gisa	○ Urteko kultura-jardueren kopurua ○ Sektore bakoitzeko kultura-jardueren kopurua ○ Barrutietako kultura-jardueren kopurua ○ Barruti bakoitzeko urteko kultura-aurrekontua ○ Kultura-elkarteen kopurua (barrutien arabera) ○ Kultura-ekitaldi eta -jardueretara joaten direnak
2. KULTURA JARDUERA EKONOMIKOAREN ERAGILE GISA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
KSIei laguntzea, hirian sorkuntza eta berrikuntza bultzatzeko estrategiaren zutabea	○ Dirulaguntzak tramitatzeko/ebazteko batez besteko denbora ○ Diruz lagundutako enpresa/erakunde/pertsona kopurua ○ Emandako guztizko euroak eta batez besteko dirulaguntza ○ Bilboko KSI enpresen kopurua ○ Bilboko KSIetako langile kopurua
Nazioartekotzeari laguntzea: kultura Hiriaren enbaxadore gisa	○ Nazioarteko sareetako presentzia ○ Bilboko Kulturaren kanporako irteerak
Kultura-turismoa garapen ekonomikoaren eragile gisa	○ Museo nagusietan izan diren Bilbotik kanpoko bisitarien kopurua ○ Garrantzizko kultura-ekitaldietan (BBK Live...) izan diren Bilbotik kanpokoen kopurua

3. KULTURAREN BALIO-KATEA AINTZAT HARTZEA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Sorkuntza eta produkzioa	○ Sorkuntzarako eta produkziorako laguntza kopurua (egoitzak eta lagun egitea) ○ Sorkuntzan eta produkzioan diruz lagundutako enpresa/erakunde/pertsona kopurua (sektorearen arabera) ○ Sorkuntzan eta produkzioan emandako guztizko euroak eta batez besteko dirulaguntza ○ Entseguetarako ekipamenduen erabilera kopurua
Banaketa, merkaturatzea eta erakusketa	○ Banaketarako/merkaturatzerako/erakusketarako laguntza kopurua ○ Diruz lagundutako enpresa/erakunde/pertsona kopurua (sektorearen arabera) ○ Emandako guztizko euroak eta batez besteko dirulaguntza enpresaren/erakundearen/pertsonaren arabera
Bitartekaritza	○ Ikastetxeekiko lankidetza

4. IDENTITATEA, IRUDIA ETA *BILBO, KULTURA-HIRIA* MARKA. KULTURA IDENTITATE, HISTORIA ETA ETORKIZUN GISA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Kultura hiriaren marka-irudi gisa finkatzea	○ Marka-irudia (*Bilbo, kultura-hiria; Bilbo, zinemaren hiria; Bilbao Kultura 365*) indartzera zuzendutako ekintza/dirulaguntza kopurua

5. LANKIDETZA, PLANA GARATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Udal-sail eta -erakundeen eta kultura-eragileen arteko lankidetza	○ Kultura-mahai sektorialen kopurua eta urteko bilera kopurua ○ Kultura-elkarteei emandako dirulaguntza (€)
Erakunde arteko lankidetza	○ Lankidetzarako egitura/erakunde kopurua eta urteko bilera kopurua

6. PUBLIKOAK, AUDIENTZIAK ETA KOMUNIKAZIOA	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Publikoa baterako subjektu sortzaile gisa. Parte-hartze pasibotik erantzukizun kolektibora	○ Kultura-jardueren kopurua ○ Kultura-jardueren kopurua: presentzialak vs online
Publiko gaztea, kezka eta ardura sortzen duen erronka bati erantzutea	○ Sare sozialei eta Kulturako udal-webguneari jarraitzen dieten gazteen % ○ Liburutegien Sareko txartela duten gazteen kopurua
Garai berri baterako komunikazio-estrategia berriak	○ Kulturako udal-webgunearen bisita kopurua eta erabiltzaileak
Euskarriak eta komunikazio-tresnak eguneratzea	○ Online edukien kopurua (agenda) ○ Euskarri fisikoetan egindako inbertsioa eta aleak

7. ZEHARKAKO ILDOAK	
ILDO ESTRATEGIKOAK	EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK
Euskara	○ Euskarazko kultura-jardueren kopurua ○ Euskarazko kultura-jardueren kopurua sektoreen arabera
Berdintasuna	○ Lehiaketa, txapelketa, beka eta abarretarako epaimahaietako kide diren emakumeen kopurua
Aniztasuna eta kulturartekotasuna	○ Doako kultura-ekitaldien kopurua
Jasangarritasuna	○ Urtean ziurtagiri jasangarriarekin garatutako kultura-ekitaldien kopurua (Erronka Garbia)

8

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA

1. Adsuara, A. Del Arte y su Obsolescencia. Madrid: Casimiro, 2021.

2. Bowitz, E.; Ibenholt, K. (2009). Economic impacts of cultural heritage—Research and perspectives. Journal of Cultural Heritage, 10, 1, 1–8.

3. Brandt, T., Bendler, J.; Neumann, D. (2017). Social media analytics and value creation in urban smart tourism ecosystems. Information; Management, 54, 6, 703–713.

4. Barbieri, N. Cultura, políticas públicas y bienes comunes: hacia unas políticas de lo cultural. In: Revista Kult-ur, 2014. Vol. 1, pp. 101-119

5. Capello, R. &; Perucca, G. (2017). Cultural Capital and Local Development Nexus: Does the Local Environment Matter? In Socioeconomic Environmental Policies and Evaluations in Regional Science, Springer, 103–124.

6. CGLU (2022). Pacto para el futuro de la Humanidad. La Declaración política de Daejeon.

7. Cultural and Creative Cities Monitor (2020). Consultado el 15 de septiembre de 2022.

8. Cuenca, M (2019): El desarrollo de audiencias en España Reflexiones desde la teoría y la práctica. Documentos de Estudios de Ocio, 64. Universidad de Deusto.

9. Dewey, J. Art as Experience. The Later Works of John Dewey, 1925-1953. Volume 10: 1934. Ed. Jo Ann Boydston. Carbondale; Edwardsville: Southern Illinois University Press, 1987a.

10. Esteban, I. El efecto Guggenheim, del espacio basura al ornamento. Revista EURE, 2009, Vol. XXXV, nº 105, p.143-147.

11. European Commission (2018). Una Nueva Agenda europea para la cultura.

12. European Commission (2021). Directrices de la UE para la reanudación segura de las actividades en los sectores cultural y creativo. COVID-19.

13. Euskal Kulturaren Behatokia. Sormen-industrien estatistika. Eusko Jaurlaritza/ Gobierno Vasco. 1. edizioa, 2020.

14. Florida R., Mellander, CH., Stolarick (2008). «Inside the black box of regional development—human capital, the creative class and tolerance». Journal of Economic Geography. July, 1-35

15. Haarich, S.; Plaza, B. (2012). The Guggenheim Museum in Bilbao—At the Centre of a Creative City. Urban Planning International, 27, 3 11–16.

16. Hadley, S. (2021). Audience Development and Cultural Policy.

17. Hankinson, G. (2004). Relational network brands: Towards a conceptual model of place brands. Journal of Vacation Marketing, 10, 2, 109-121.

18. Hankinson, G. (2006). The management of destination brands: Five guiding principles based on recent developments in corporate branding theory. Journal of Brand Management, 14, 240–254.

19. Holden, J. Cultural Value and the Crisis of Legitimacy. Why culture needs a democratic mandate. London: Demos, available at http:// www.demos.co.uk/files/Culturalvalueweb.pdf?1240939425 [Consulta 9 mayo 2022].

20. Hughes, H. (2000). Arts, Entertainment and Tourism. London. Routledge.

21. Kashdan, T. B.; Rose, P. y Fincham, F. D. (2004). Curiosity and exploration: faciliting positive subjective experiences and personal growth opportunities. Journal of Personality Assessment, 82, 291-30.

22. Kavaratzis, M. (2005). Branding the City through Culture and Entertainement. The AESOP 2005 Conference, Vienna.

23. Kavaratzis, M.; Ashworth, G.J. (2005). City Branding: An effective assertion of identity or a transitory marketing trick? Tijdschrift voor economische en Sociale Geografie, 96 506–514.

24. KEA Affairs 2022: A Year in Review. Consultado el 20 de octubre de 2021.

25. Kotler, P., Asplund, C., Rein, I.; Heider, D. (1999). Marketing Places Europe: Attracting Investments, Industries, Residents and Visitors to European Cities, Communities, Regions and Nations. London: Pearson Education.

26. Kotler, P., Haider, D.H.; Rein, I.R. (1993). Marketing Places: Attracting Investment, Industry and Tourism to Cities, States and Nations. New York: Free Press/Macmillan.

27. Kurin, R. (2004). Safeguarding Intangible Cultural Heritage in the 2003 UNESCO Convention: A critical appraisal. Museum International, 56, 1-2, 66–77.

28. Mas, E. Ciudad: Identidad y rankings. Revista EURE, Vol. XXXV, 2009, nº 106, p.29-49.

29. Méndez, R., Abad, L., Caravaca, I. y González, G. Las ciudades de Andalucía ante la sociedad del conocimiento. Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales. Scripta Nova, 2010, Vol. XIV, nº 345. Universidad de Barcelona.

30. McGrath, J.M., Primm, D.; Lafe, W. (2017). Heritage tourism's economic contribution. Vol. 23, Nº. 5, 2017, págs. 1131-1137.

31. Plaza, B. (2002). A note on "Panorama of the Basque Country and its competence for self-government: Terrorism and the Guggenheim Museum Bilbao effect". European Planning Studies, 10, 383–389.

32. Plaza, B., González-Casimiro, P., Moral-Zuazo, P.; Waldron, C. (2015). Culture-led city brands as economic engines: Theory and empirics. Annals of Regional Sciences, 54, 179–196.

33. Plaza, B., Tironi, M.; Haarich, S. (2009). Bilbao's Art Scene and the "Guggenheim effect" Revisited. European Planning. Studies, 17, 1711–1729.

34. Power, D., Nielsen, T. (2010): Priority Sector Report: Creative and Cultural Industries. European Cluster Observatory

35. Richards, G. (1996). Cultural Tourism in Europe. Wallingford, UK: Cab International.

36. Richards, G. (2010). Increasing the Attractiveness of Places Through Cultural Resources. Tourism, Culture; Communication, 10, 47–58.

37. Richards, G. (2011). Creativity and tourism. Annals of Tourism Research, 38, 1225–1253.

38. Richards, G.; Wilson, J. (2006). Developing creativity in tourist experiences: A solution to the serial reproduction of culture? Tourism Management, 27, 6, 1209–1223.

39. RIS3: http://ris3euskadi.eus/eu/espezializazio-esparruak/kultura-etasormeneko-industriak/"http://ris3euskadi.eus/eu/espezializazio-esparruak/kultura-etasormeneko-industriak/. 1240939425 [Consulta 9 mayo 2022].

40. Riza, M., Doratli, N.; Fasli, M. (2012). City Branding and Identity. Procedia-Social and Behavioral Sciences, 35, 293-300.

41. Sacco, P., Ferilli, G.; Blessi, G.T. (2014). Understanding culture-led local development: A critique of alternative theoretical explanations. Urban Studies, 51, 13, 2806–2821.

42. Seisdedos, G. Cómo gestionar las ciudades del siglo XXI. Del City Marketing al Urban Management. Madrid. Prentice Hall, 2004

43. Scott, A.J. (1997). The cultural economy of cities. International Journal of Urban and Regional Research, 21, 2, 323–339.

44. Throsby, D. (1999). Cultural capital. Journal of Cultural Economics, 23, 3–12.

45. Tweed, C.; Sutherland, M. (2007). Built cultural heritage and sustainable urban development. Landscape and Urban Planning, 83, 1, 62–69.

46. UNCTAD. Creative Economy Report: The Challenge of Assessing the Creative Economy. New York, 2008.

47. UNESCO (1982). Conferencia Mundial sobre las Políticas Culturales. Informe final. Paris: UNESCO.

48. UNWTO Tourism Highlights (2008). Consultado el 18 de septiembre de 2022.

49. Vecco, M. (2010). Definition of cultural heritage: From the tangible to the intangible. Journal of Cultural Heritage, 11, 321–324. WTO (2008). European Travel Commission. Handbook on e-marketing for tourism destinations. World Tourism Organisation.

50. Yáñez, C.; Rucker, C (2018). La gestión cultural desde Latinoamérica. Formación e investigación. Referencias y retos del campo disciplinar. Repositorio del Observatorio Latinoamericano de Gestión Cultural.

II. ERANSKINA: DIAGNOSTIKOAN PARTE HARTU DUTENAK. DATU OROKORRAK

Udal-ikuspegia eta udalaz gaindikoa (52 erakunde)

Udal-sailak	Alderdi politikoak
1. Alkatetza 2. Kultura eta Gobernantza 3. Herritarren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak 4. Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak 5. Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua 6. Euskara eta Hezkuntza 7. Berdintasuna 8. Gazteria eta Kirola 9. Obrak, Hiri Plangintza eta Proiektu Estrategikoak 10. Hiri Berroneratzea 11. Zerbitzuak eta Bizi Kalitatea 12. Gizarte Ekintza 13. Ogasuna 14. Mugikortasuna eta Jasangarritasuna 15. Herritarren Segurtasuna 16. Etxebizitza	1. EAJ-PNV 2. EH BILDU 3. ELKARREKIN PODEMOS 4. PP 5. PSE-EE
Museoak, ekipamenduak eta jaialdiak	**Beste administrazio batzuk**
1. Guggenheim Bilbao Museoa 2. Azkuna Zentroa 3. Bilbao Bizkaia Museoak 4. Bilboko Arte Ederren Museoa 5. Arriaga Antzokia 6. BilbaoArte 7. Bilbao Musika 8. Euskalduna Jauregia 9. Zinebi 10. Musika-Música 11. ABAO 12. Udalaren Musika Banda	1. Bizkaiko Foru Aldundia 2. Arabako Foru Aldundia 3. Gipuzkoako Foru Aldundia 4. Donostiako Udala 5. Gasteizko Udala 6. Eusko Jaurlaritza 8. Kulturaren Euskal Behatokia

Beste erakunde batzuk	
1. BBK Gizarte Ekintza 2. Euskaltzaindia 3. Bilbao Dendak 4. Athletic Club Fundazioa 5. Merkataritza Ganbera 6. Bilbao Metropoli-30 7. EITB 8. Bilbao Exhibition Centre 9. Eusko Ikaskuntza	
Akademia eta hezkuntza-erakundeak	
1. UPV/EHU 2. Mondragon Unibertsitatea- Zorrotzaurre 3. Deustuko Unibertsitatea (Aisiako Ikaskuntzen Institutua)	

Ikuspegi sektorial-profesionala (125 erakunde)

Arte eszenikoak		Euskararen sustapena	
1. DOOS Colectivo 2. Khea Ziater 3. La Dramática Errante 4. Kabia kolektiboa 5. ADDE 6. Tartean Teatroa 7. Marie de Jongh 8. Zirkozaurre 9. EAB 10. Pabellón 6	11. Harrobia Eskena 12. Arriaga Antzokia 13. Erre Produkzioak 14. Dantzerti 15. Mitusu 16. ATX Teatroa 17. La Fundición 18. Azkuna Zentroa 19. Richard Sahagún	1. Euskara eta Hezkuntza Saila 2. Labayru Fundazioa 3. Bira 4. Elhuyar Fundazioa 5. AEK 6. Nontzeberri 7. Irudi Biziak 8. Bizkaia Irratia	9. Loraldia 10. Tinko Euskara Elkartea 11. Azkue Fundazioa-Euskararen Etxea 12. Gabriel Aresti euskaltegia

Ikusmen-arteak	Ondarea
1. BilbaoArte 2. Bulegoa z/b 3. BALA 4. Okela 5. UPV/EHU: Arte Ederren Fakultatea 6. CFC Bilbao	1. Udalaren Txistulari Banda 2. Santutxuko Bertso Eskola 3. Ondalan 4. Bilboko Eleiz Museoa 5. Bilbao Bizkaia Museoak 6. Bizkaikoa

7. Rekalde Aretoa 8. La Taller 9. FIG 10. Azkuna Zentroa 11. Obrador 12. Guggenheim Bilbao Museoa 13. Lumbreras Arte Galeria	7. Itsasmuseum 8. Bizkaiko Dantzarien Biltzarra

Liburua	Kultura eta garapen komunitarioa
1. JA! Bilbao 2. Euskal Editoreen Elkartea 3. Euskadiko Editoreen Elkartea 4. Euskal Irudigileak 5. Euskadiko Liburu Azokak 6. Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkartea 7. Bilboko Udal Liburutegien Sarea 8. Azkuna Zentroaren Mediateka 9. Bidebarrieta Kulturgunea 10. Euskal Idazleen Elkartea	1. Kultura, Comunicación y Desarrollo (KCD) 2. Urbanbat 3. Unesco Etxea 4. Bizitegi 5. Txotena Gunea 6. Sarean 7. EDE Fundazioa 8. Hika Ateneo 9. Bilbao FormArte

Ikus-entzunezkoak		Sormen-industriak
1. EPE/APV 2. EIKEN 3. Sayaka Producciones 4. Doxa Producciones 5. Golem 6. UPV/EHU: Ikus-entzunezko komunikazioa 7. Uniko Producciones 8. Barton Films 9. Begira Bideoak	10. Seriesland 11. Fant Bilbao 12. ZINEBI 13. SeriesLand 14. FAS zinekluba 15. Mendifilm Fest 16. Zinegoak 17. Euskal Gidoigileak 18. IMVAL 19. ECPV 20. Bilbao Bizkaia Film Commission	1. Bilbao Ekintza 2. Bizkaiko Moda Elkartea 3. EIDE 4. Karraskan 5. GAIA 6. Bilboko Arkitektoen Elkargoa 7. As Fabrik 8. IED Kunsthal 9. La Terminal 10. Espacio Open 11. Art & Fashion

Musika klasikoa	Musika modernoa
1. Bilboko Elkarte Filarmonikoa 2. Kuraia Ensemble 3. ABAO 4. Bizkaiko Akordeoi Elkartea 5. Bilboko Koral Elkartea 6. Behotsik 7. BOS 8. Musika-Música 9. Bilboko Musika Eskola 10. Juventudes Musicales 11. Bilboko Udalaren Musika Banda 12. Soinuak Haizean	1. Gazteria eta Kirol Saila 2. Last Tour International 3. MrJam 4. Nave 9 5. Dekker Events 6. VillaSound Bilbao 7. Jazz On 8. Kafe Antzokia 9. Izar and Star 10. Slow Producciones

Ikuspegi asoziatiboa (32 erakunde + 30 herritar)

1. Panpotx 2. Artekale 3. Follow the Party Kultura Elkartea 4. Bizkai Euskal Folklor Elkartea 5. EDUKANTE Elkartea 6. Mitusu 7. Garaizarko Matsorriak Kultur Elkartea 8. Goi Herri Dantza Taldea eta Goi Herri Txistu Band 9. Locos por la música- Grupo Nervión 10. Akelarre Abesbatza 11. Bizkaiko Dantzarien Biltzarra 12. Baleuko 13. Mulisol Elkartea 14. Euskal Irudigileak 15. Solokoetxeko Nagusiak Elkartea 16. Gure Lurra Elkartea	17. Zirkozaurre elkartea 18. Caostica elkartea 19. OnTour Up plataforma 20. Toni La Sal antzerki-konpainia 21. Media Attack 22. Harribaltzaga Kultur Elkartea 23. Zurekin Kultura Elkartea 24. Basabi musika-elkartea 25. Arymux 26. Zinegoak Elkartea 27. Remoto.eus 30. Starlan

Zeharkako ikuspegia (32 erakunde)

2030 Agenda eta kultura-eskubideak	Gorabidean dauden artistak
1. Kulturaren Euskal Behatokia 2. Moviltik 3. Bilbao FormArte 4. Wikitoki 5. As Fabrik 6. UNESCO Etxea 7. Harrobia Eskena 8. Nevipen 9. Euskaltzaleen Topagunea 10. Aukera Berriak	1. ACT Jaialdia 2. Dantzerti 3. Bilboko Koral Gaztea 4. TGA Ballet Klasikoko Estudioa 5. Harrobia Eskena 6. Pabellón 6-ko Gazte Konpainia

Kultura garapen ekonomikoaren faktore gisa	Genero-ikuspegia	Publikoen analisia eta kudeaketa
1. Bilbao Ekintza 2. EIDE 3. Tarima 4. Innevento 5. Media Attack	1. Berdintasun Saila 2. La Dramática Errante 3. UPV/EHU	1. Caostica 2. Espacio Open 3. Deustuko Unibertsitatea (Aisiako Ikaskuntzen Institutua) 4. Harrobia Eskena 5. Karraskan 6. ADDE 7. EZAE 8. Artaziak

III. ERANSKINA: DIAGNOSTIKOAN PARTE HARTU DUTENAK (SEXUAREN ARABERA)

Udal-ikuspegia eta udalaz gaindikoa (48 elkarrizketa)

	GIZONAK	EMAKUMEAK
Udal-sailak	6	4
Alderdi politikoak	-	4
Museoak, ekipamenduak eta jaialdiak	7	5
Beste profil batzuk	6	3
Beste administrazio batzuk	7	3
Akademia eta hezkuntza-erakundeak	2	1

Ikuspegi sektorial-profesionala (135 pertsona bakar)

	GIZONAK	EMAKUMEAK
Arte eszenikoak	12	15
Euskararen sustapena	9	4
Ikusmen-arteak	6	8
Ondarea	7	1
Liburua	6	5
Kultura eta garapen komunitarioa	3	6
Ikus-entzunezkoak	12	8
Sormen-industriak	6	5
Musika klasikoa	8	4
Musika modernoa	9	1

Ikuspegi asoziatiboa eta herritarrak (62 pertsona)

GIZONAK	EMAKUMEAK
24	38

Zeharkako ikuspegia (34 pertsona)

	GIZONAK	EMAKUMEAK
2030 Agenda eta kultura-eskubideak	5	5
Gorabidean dauden artistak	4	2
Kultura garapen ekonomikoaren faktore gisa	6	-
Genero-ikuspegia	-	4
Publikoen analisia eta garapena	3	5

Barrutietako Batzorde soziokulturalak (71 pertsona)*

GIZONAK	EMAKUMEAK
32	39

(*) Sexuaren araberako gutxi gorabeherako banaketa, 44. gogobetetasun-inkestan jasotako datuetatik abiatuta lortua

Galdetegia (220 pertsona)

GIZONAK	EMAKUMEAK
75	145

Laburpen-taulak (570 pertsona)

	GIZONAK	EMAKUMEAK
Udalekoa	28	20
Sektorial-profesionala	78	57
Asoziatiboa eta herritarrak	24	38
Zeharkakoa	18	16
Barrutietako Batzorde soziokulturalak	32	39

Galdetegia	75	145
Guztira	255 (% 45)	315 (% 55)

IV. ERANSKINA: ONLINE GALDETEGIA. EZAUGARRIAK

Parte-hartzaileen ezaugarriak

Atal honetan galdetegian parte hartu duten pertsonen panoramika eskainiko dugu.

- PARTE-HARTZAILEEN SEXUA ETA ADINA



Inkestan **parte hartu duten gehienak emakumeak** izan dira; ia gizonen kopurua halako bi izan dira.

PARTE-HARTZAILEEN ADINA



45- 54 urteko pertsonak izan dira galdetegia betetzen **gehien parte hartu dutenak**, eta 35- 44 urtekoak izan dira hurrengoak.

• PARTE-HARTZAILEEN BIZILEKUA ETA PROFILA

PARTE-HARTZAILEEN BIZILEKUA



Inkestan parte hartu dutenen % 87 Bilbon bizi dira.

PARTE-HARTZAILEEN BIZILEKUA



Bilbon bizi direnen barrutiari dagokionez, Ibaiondo eta Abando (% 19,9 eta % 17,8 hurrenez hurren) dira **ordezkaritzarik handiena dutenak**, eta Otxarkoaga/Txurdinaga da presentziarik txikiena duena.

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

	PROFILA (%)		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Indibiduala / Partikular gisa	79,5	65,7	32,6
Kultura-esparruko profesionala	11,4	48	45,5
Kultura-elkartea	5,9	61,5	38,5
Bestelako elkartea	1,8	100	0
Auzo-elkartea	0,9	100	0
Beste bat	0,5	100	0

Gehienek partikular gisa parte hartu dute inkestan (% 80). Bestalde, kulturako profesionalen ordezkaritza % 11koa da. Batez ere maila indibidualean parte hartzen dutenen eta kultura-elkarteetakoen artean, emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da.

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO